



SILVIA FEDERICI

**LARRUAZALAREN
PERIFERIAZ
HARAINDI**

Itzulpena:
Amaia Astobiza Uriarte

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Silvia Federici

***LARRUAZALAREN
PERIFERIAZ HARAINDI***

Silvia Federici

***LARRUAZALAREN
PERIFERIAZ HARAINDI***

Itzultzailea: Amaia Astobiza Uriarte

Jatorrizko izenburua (2020): *Beyond the Periphery of the Skin: Rethinking, Remaking, and Reclaiming the Body in Contemporary Capitalism*

Egilea: **Silvia Federici**

Jatorrizko lizentzia: © PM Press

Itzulpena: **Amaia Astobiza Uriarte**

Barruko argazkia: **Shane, @theyshane: Unsplash (CC BY-SA 4.0)**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2021ko azaroa**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-57-0

Lege gordailua: NA 2358-2021

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
ESKER ONA	15
SARRERA	19

LEHENENGO ZATIA

BAT

Lehenengo hitzaldia. Gorputza, kapitalismoa eta lan-indarraren erreprodukzioa.....	29
--	----

BI

Bigarren hitzaldia. «Gorputzen politika» iraultza feministan	47
---	----

HIRU

Hirugarren hitzaldia. Gorputza gaur egungo krisi erreproduktiboan	63
--	----

BIGARREN ZATIA

LAU

Gorputzaz, generoaz eta antzezpenaz.....	77
--	----

BOST

Gorputzak berreraikiz, mundua berreraiki? 87

SEI

Amatasun subrogatua: bizitzaren oparia
ala amatasun ukatua? 101

HIRUGARREN ZATIA

ZAZPI

Filosofia, psikologia eta beldurra baliatzea
gorputzak lan-indar bilakatzeko 115

ZORTZI

Sexu-lanaren jatorria eta garapena
AEBn eta Britainia Handian 133

BEDERATZI

Mormoiak espazioan (berrikusia).
George Caffentzis-ekin batera 155

LAUGARREN ZATIA

HAMAR

Gorputz dantzariaren laudorioa 169

HITZOSTEA

Militantzia alegera 177

BIBLIOGRAFIA 183





ARGITALETXEAREN OHARRA FEDERICI BERANTIARRA

Borrokarik gabe, ez dago aurrera egiterik. Aldarrikatzen dutenek askatasunaren alde daudela baina, era berean, agitazioa mespretxatzen dutela... uzta nahi dute, goldaketarik gabe. Euria nahi dute, ostotsik eta tximistarik gabe. Ozeanoa nahi dute, itsas uren orro izugarririk gabe. Bote-reak deus ez du ematen aldarrikapenik gabe. Ez du sekula eman, eta ez du sekula emanen.

Frederick Douglass

Gorputzari buruzkoa da liburu hau. Gorputzari buruz idatzi du hemen Silvia Federicik, aurrez inoiz egin ez duen modu batean. Medikuntza, arraza, feminismoa, askapena, antzezipena. Haustura bat dago liburu honen eta aurrekoen artean. 1975ean argitaratu zuen, taldean, *Etxeko lanen kontrako soldatak*, eta, haren eta beste lan kolektibo batzuen ostean, bakarkako bi-deari ekin zion. Hortik etorri ziren *Caliban eta sorgina* (2004), *Iraultza zero puntuan* (2012), *Soldataren patriarkatua* (2017), *Mundua berriz liluratuz* (2018) eta *Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria* (2018). Horiek guztiak lanketa eta ikuspegi ezberdinetatik egin zituen: ikerketa historikotik hasita (*Caliban*), abagunea aztertzeko testu militanteen bildumetara (*Iraultza, Soldataren*) eta lan mardulen eguneraketara (*Kapitalismoa*).

Calibanen hasi zuen zikloa, kontzeptualki, Munduan itxi zuen (historia aztertzetik etorkizuna pentsatzera pasa zen). Liburu hura testamentu moduko bat izan zen, baina, askotan, obraren amaierak ez du egilearen heriotzarekin bat egiten. Sarritan, heldutasunera iritsi aurretik hiltzen da egilea, edo, aldrebes, gerta daiteke ere autorea maila goren eta heldura iristea baina urte luzez bizirik jarraitzea. Azken kasu horretan, zer egin obrarekin? Isilik geratu?

2003an, Edward Said hil ostean, Mariam C. Said alargunak *Estilo berantiarra* (2006) liburua findu eta argitaratu zuen, hiltzear zela Edward ontzen aritu zena. Lan hartan, Saidek esaten zuen literaturan eta musikan badela «estilo berantiar» bat, beste sortzaile batzuegan ere ikusia zuena: Thomas Mann, Richard Strauss (*Der Rosenkavalier* eta *Ariadne auf Naxos*, «erradikala eta zoragarriki landua»), Jean Genet, Lampedusa, Kavafis, baina baita Europides, Britten edota Mozart ere.

Saidek bereizi egiten zituen estilo berantiarreko egile horien ekoizpenaren azken faseak eta beste egile batzuenak, hau da, heldutasunean planto egin eta zahartzean aurrerapausorik egin ez zuten haienak (Sofokles, Shakespeare, Matisse, Bach, Wagner). Zeren estilo berantiarra ez baita «armonia eta ebazpena, baikik eta intrantsigentzia, zailtasuna eta kontraesana». Eta da, Glenn Gould-ek egin bezala, munduan egonda mundutik aldentzea, alde egitea, eta geure burua mundutik kanpo ikustea, aparte. «Adornorentzat —Saiden beraren hitzetan—, ‘berantiarra’ izatea da onargarria eta normala den horretatik haraindi bizirautea; gainera, berantiartasunak dakar norbera ezin dela estilo berantiarretik haraindi joan». Fase berantiarren ostean ez dago bestelakorik, heriotza-epaira arte.

Adornotik abiatuta, Saidek Beethovenen obra berantiarrak ekartzen ditu. Obra konplexuak dira, baina konpositorearen aurreko lanekiko sintesian ezinean dabiltzanak (*Missa solemnis* edota *Hammerklavier* sonata). Antzeko urgentzia batetik dabil Federici kapitulu hauetan: testamentua jada idatzia utzi duen arren oraindik bizirik dagoela eta aurrera begira ere bizitza zain duela dakienaren larritasunetik. Eta ekiten dio prostituzioaren eztabaidari, eta heltzen dio Freudi, Butlerri, Foucaulti, guztia termino historikoetan kokatuz, eta sartzen da gaixotasunen inguruko gogoetetan eta haurdunaldi subrogatuaren aferan.

Pentsa genezake, Saidek bere liburuaren hasieran planteatzen duen bezala, egilearen baldintza fisikoa eta haren estilo estetikoa ez daudela loturik, eta are axalekoa dela bizitzak, heriotzak, zientzia medikoak eta osasunak obrarekin duten lotura. Baina, Saidek berak dioenez, «gu guztiok, kontzienteak izate hutsagatik, etengabe pentsatzera behartuta gaude. Uler dezakegu naturaren parte dela gorputza, osasuna, zaintza, haztea, gaixotasuna eta heriotza. Baina, kontzientziak ulertze-ariketa hori ekartzen digun neurrian, guk geuk ikuspegi indibidual eta kolektibo bat ere ematen diogu».

Eta horren guztiaren arrastoak daude Silvia Federiciren azken lan honetan, Amaia Astobizak euskarara ekarri duen laugarrenean eta euskarara itzultitako bosgarrenean. Halako batean, azelerazio betean, egile handi baten bizitzaren amaierak eta bizigarria den munduarenak bat egiten dutela dirudien uanean.

Iruñea

2021eko azaroa

ESKER ONA

Larruazalaren periferiaz haraindi liburua gonbidapen bati esker sortu da. 2015ean, Kaliforniako Ikasketa Integralen Institutuko Antropologia eta Gizarte Aldaketa Sailaren gonbidapena jaso nuen, gorputzari buruzko hiru hitzaldi emateko, gero PM Press argitaletxeak argitaratuko zituenak. Horrek aukera eman zidan nire ibilbidean garrantzitsuak izan diren gai batzuk berriaz aztertzeko, baita gai horiei iraganean eskainitako artikuluak liburu bakar batean biltzeko ere. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet lehen-lehenik Antropologia eta Gizarte Aldaketa Saileko zuzendari Andrej Grubic-i eta PM Press argitaletxeari.

Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, «Free Home University» sortu zuten emakumeei, zeinek nire jaioterrian egin zen ikastaro batean parte hartu baitzuten (Parma, Italia, 2019ko ekainaren 11-16 bitartean). Ikastaroa gorputzei eta erreproduzio sozialari buruzkoa izan zen, eta, emakume haiekin batera, liburu honen lehen zatiko artikuluak irakurri eta aztertu nituen. Berziki eskertu nahi ditut Gaia Alberti, Sarah Amsler, Edith Bendicente, Carla Bottiroli Greil, Claire Doyon, Daria Filardo, Jesal Kapadia, Aglaya Oleynikova, Ales-

sandra Pomarico, Teresa Roversi eta Begonia Santa Cecilia, baita Parmako Art Lab gizarte-etxea ere, ikastaroa han egiteko erakutsi zuen eskuzabaltasunagatik.

Eskerrik asko orobat Jesse Jones, Tessa Giblin, Rachel Anderson eta Cis Boyle-ri, beren adiskidetasun eta sostenguagatik. Eskerrak ere gorputzen politikei buruz hizketan eta *sheela na gig* tailuak zizelkatzen elkarrekin igaro genuen denboragatik. Mila esker, Jesse, zure *Tremble* indartsuagatik (*Tremble*, 2017), non amaren gorputza birmoldatu baituzu, irudimen politiko berri bati bide emateko.

Esker bereziak eman nahi dizkiot Camille Barbagallo-ri lan hau editatzeagatik, eta esker bereziak eman nahi dizkiet, orobat, liburu honetan bildutako artikuluren bat lehenago kaleratu duten argitalpenei.

Era berean, Indarkeriari buruzko Ikerketa Feminista taldeak nire lanari egindako ekarpena aipatu nahi dut. New York-eko emakume-talde horrekin konspiratu ohi dut, mundua aldatzeko eta webgune bat elikatzeko (<http://feministresearchonviolence.org>). Eskerrik asko gure bileretan partekatzen dugun jakinduria, maitasun eta irrikagatik, horiek sostengatzen eta adoretzen baitituzte nire izkribuak.

Azkenik, esan behar dut liburu honetan bildutako artikulua batzuk beste liburu eta aldizkari batzuetan argitaratu zirela lehenik, eta eskerrak eman nahi dizkiet haien editoreei.

«Filosofia, psikologia eta beldurra baliatzea gorputzak lan-indar bilakatzeko» hemen argitaratu zen lehenik: Athanasios Marvakis et al., ed., *Doing Psychology under New Conditions* (Concord, Ontario: Captus Press), 2-10.

«Mormoiak espazioan (berrikusia)» George Caffentzis-ekin batera idatzitako artikulua baten bertsio

bat da, eta lehen artikulua hura hemen argitaratu genuen: *Midnight Notes* 2, 1. zk. (1982): 3-12.

«Gorputz dantzariaren laudorioa» hemen argitaratu zen lehenik: Gods&Radicals, ed., *A Beautiful Resistance* 1. zk. (2016ko abuztuak 22): 83-86.

«Militantzia alegera» artikulua «Feeling Powers Growing» izenburuko elkarrizketatik ateratako zati editatu bat da, eta elkarrizketa hura hemen argitaratu zen: *Joyful Militancy: Building Thriving Resistance in Toxic Times*, ed. Nick Montgomery eta carla bergman (Chico, CA: AK Press, 2018).

SARRERA

Hasiera batean, *Larruazalaren periferiaz haraindi* liburuaren asmoa zen 2015eko neguan Kaliforniako Ikasketa Integralen Institutuan eman nituen hiru hitzaldietan sortu ziren galderei erantzutea. Izan ere, argitu nahi nuen zer toki hartu zuen gorputzak eta gorputzen politikak 1970eko hamarkadako mugimendu feministan, orobat nire lan teorikoan. Hitzaldi haiekin zenbait helburu bete nahi nituen: alde batetik, azpimarratu nahi nuen zer ekarpen egin zion gorputzaren teoriari 1970eko hamarkadako feminismoak, zeina feministen belaunaldi berriek biziki gutxiesten baitute; bestetik, onartu nahi nuen feminismo hura ez zela gai izan emakumeen bizi-baldintza materialak nabarmen aldaraziko zituzten estrategiak diseinatzeko; azkenik, azaldu nahi nuen zer marko landu nuen nik *Caliban eta sorgina* lanean, gizarte kapitalistaren historian emakumeek bizi izan dituzten esplotazio-moldeen erroak aztertzeko.

Horrenbestez, nire aurkezpena iraganean ikasitako lezioak birpentsatzeko modu bat zen. Nolanahi ere, hitzaldien osteko eztabaidetan hasieran finkatutako esparrua gaingiditzen zuten galderak atera ziren,

eta horrek nire hitzaldien eta liburu honen ikuspegia zabaltzera eraman ninduen. Halandaze, lan honetan oinarritzko lau galdera nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, beharrezkoa ote da oraindik «emakume» kategoria erabiltzea politika feministetan, kontuan hartuta etiketa horrek barne hartzen dituen askotariko historiak eta bizipenak, ala baztertu egin behar genuke, Butler-ek eta beste teorialari postestrukturalista batzuek proposatu bezala? Are gehiago, identitate politiko oro baztertu behar ote genuke, fikziozkoak direlako ezinbestean, eta soilik aurkakotasunean oinarrituta eraikitako unitateen alde egin? Nola ebaluatu behar ditugu ugaltze-teknologia berriak, zeinek promesten baitigute gure osaera fisikoa berrantolatu eta gure gorputzak berregingo dituztela, gure nahietara hobeto egokitzeko? Teknologia horiek gure gorputzen gainean dugun kontrola areagotzeko balio dute, ala esperimentatzeko eta irabaziak lortzeko objektu bihurtzen dituzte, merkatu kapitalistaren eta medikuntza-lanbidetaren zerbitzurako?

Lehen zatia izan ezik, liburua galdera horien inguruan antolatuta dago, nahiz eta lehen zatia bera ere horien prestakuntza-lan bat den; izan ere, zati horren atzean dagoen asmoa da erakustea 1970eko hamarkadako mugimendu feminista aztertu behar dela nagusiki ez generoari buruzko ikuspegiari funtsatuta, baizik eta hautatu zituen estrategiak oinarri hartuta. Alde horretatik, oso desberdinak dira nik aldeztu dudana jarrera eta antzezpenaren teorialariena; 1970eko emakumeen askapenerako mugimenduaren kritika egitean, antzezpenaren teorialariek haren ustezko identitate-politikei begiratu diete, ez mugimenduak bere egin zituen estrategia politiko errealei.

Teoria postestrukturalistak 1990eko hamarkadan garatu ziren, feminismoa krisi larri batean zegoen garaian: batetik, botere-hartze instituzionalaren inpak-tua zegoen; bestetik, emakumeak gizonak nagusi ziren lanpostuetara iristen hasi ziren; eta, azkenik, berregitu-ratze ekonomikoak generoaren ikuspegitik malguagoa zen lan-indar bat eskatzen zuen. Testuinguru hartan, teoria haiek erabat erakargarriak ziren —eta izan dai-tezke oraindik, askorentzat—, proposatzen baitzuten gorputzak eta generoak praktika diskurtsiboen eta an-tzeppenaren produktuak zirela. Halere, argi izan behar dugu «emakume» kontzeptua kategoría analitiko edo politiko gisa baztertuz gero «feminismo» kontzeptua-rekin ere gauza bera egin behar genukeela, zaila baita irudikatzea oposiziozko mugimendu bat sortuko denik baldin eta ez badago injustizia eta abusua jasan izana-ren bizipen komun bat. Hain justu ere, enpresaburuek, baita auzitegiek ere, azkar baino azkarrago aprobetxa-tu dute aldarri feminista, alegia, emakumeen artean dibertsitate gaindiezin bat dagoela baieztatzen duena; hori baliatuz, enpresa jakin batzuetan (adibidez, Wal-mart-en) lan egiten duten eta genero-diskriminazioa salatu duten emakumeei ez diete utzi salaketa ko-lektibo bat aurkezten, eta beren kereilak indibidualki aurkeztera behartu dituzte.¹ Baina badira hori baino garrantzitsuagoak diren beste bi kontu. Alde batetik, zinez uler ditzakegu bizipen batzuk —hala nola amata-suna, umeen hazkuntza eta gizonetikiko mendekotasun soziala— emakumeen borroka-zelai komun gisa, nahiz eta agertoki horretan elkarren kontrako estrategiak

1 2013an, Auzitegi Gorenak atzera bota zuen Walmart saltokiko emakume langileek egindako salaketa kolektiboa, soldataren eta lan-baldintzen alorreko diskriminazioari buruzkoa. Auzitegiak argudiatu zuen emakumeak askotarikoak direla eta ez dutela osatzen kolektibo bat eta, beraz, Walmarteko langileek banan-banan aurkeztu behar zituztela salaketak.

gara daitezkeen? Identitate alternatiboak —gay, trans eta queer— ohikoak baino zatiezinagoak ote dira, klasea, arraza, jatorria eta adina kontuan hartuta?

Lerro hauek idatzi aurretik, Buenos Aireseko kaleetatik eta Argentinako beste toki batzuetatik iritsitako irudi txundigarriak ikusi ditut. Duela zenbait urtetatik gaur den egunera arte, ehunka mila emakume atera dira kalera, haien arteko desberdintasunak —eta sarri desadostasunak— alde batera utzita, borroka egitera emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, emakumeen zorpetzearen kontra eta abortatzeko eskubidearen alde, gizarte honetan emakume izateak duen esanahia eraldatzen duten erabaki kolektiboak hartuta. Zer izango ote lirateke borroka haiek «emakume» kategoria subjektu politiko gisa onartu izan ez balitz, hau da, argiro auzitan jartzen den baina halaber etengabe birdefinitzen den identitatea, nola-eta sortzen saiatzen ari garen munduaren irudipena erakitzeke garrantzitsuak diren moldeetan?

Hori da liburuaren bigarren zatian garatu dudana argudioa, non proposatzen baitut identifikazio sozial eta politiko ororen posibilitateari uko egitea porroterako bidea dela. Bizien arteko eta hilekiko elkartasunari uko egitea da, eta herriak ezelango historiarik gabe irudikatzea. Are gehiago, kontuan hartu behar dugu kontzeptu orokor guztiak desberdintasun handien aurrean eraikitzen direla. Ezin dugu maitasunaz, hezkuntzaz eta heriotzaz hitz egin emakumeez, gizonaz eta trans pertsonaz hitz egin dezakeguna baino ziurtasun handiagoarekin, baldin eta dibertsitatea elementu baztertzaitzat jotzen badugu. Badakigu, adibidez, antzinako Greziako eta Erromako maitasuna eta XX. mendeko Europakoa edo AEBkoa oso desberdinak direla, baita testuinguru poligamo bateko maitasun-bi-

zipena ere. Baina horrek ez digu galarazten kontzeptu hori erabiltzea, ezta antzera eraikitako beste hamaika ere; bestela, isil-isilik egon behar genuke.

Bigarren zatian aztertzen dut, halaber, gorputz-birmoldaketaren aldeko mugimendu gisa defini daitekeena, zeinetan bai berrikuntza teknologikoei bai medikuntzaren lanbideak rol garrantzitsua jokatzen baitute. Kasu honetan, jokoan dagoena azpimarratu nahi dut, eta arrisku inplizituez ohartarazi; hau da, nire asmoa ez da jardun horretan parte hartzen duten praktikak kritikatzeko. Gorputz-birmoldaketak askotarikoak izan daitezke, kirurgia plastikotik hasi eta subrogaziora edo genero-berresleipenera arte. Nolanahi ere, garrantzitsuena da, kasu guztietan, bizitzak aldatzeko promesen ondorioz medikuntzaren alorreko adituek erdietsi duten boterea eta prestigioa. Zinez kezkatu behar gintuzke kapitalarekin eta estatuarekin halako historia luzea duen erakunde batekiko mende-kotasunak. Testuinguru horretan, historia gidarizat hartu behar genuke.

Hirugarren zatian erantsi ditudan artikuluetan aztertzen dut zer rol betetzen duten medikuntzak eta psikologiak industria-sektoreko langileen antolamenduan eta diziplinan eta zer paper betetzen duten emakumeek lan erreproduktiboaren subjektu gisa. Horrezaz gain, Reagan-en garaian erne berriak ziren eztabaida batzuk ere ekarri ditut gogora, zeinek aztertzen baitute zer eratako lan-indarra behar den ingurune teknologiko berrietan eta lurraz harandiko tokietan. 2004ko «Mormoiak espazioan» artikuluan, kapitalak amets zuen langile aszetikoa islatu genuen; langile hori milioika urtetan eraikitako gorputz baten inertzia gainditzeko gai da, eta ondo funtzionatzen du, adibidez, espazioko kolonietan. Bada, amets hartatik

zerbait ikas dezakegu oraindik; izan ere, adimen artifizialaren garapen kapitalistak trebetasun berriak eta subjektibitateak birmoldatzea eskatzen du. Gaur egun, amets hura honela gauzatzen da: ordaintzeko aski diru dutenei mikrotxipak jartzen dizkiete garunean, haien gaitasunak areagotzeko eta pasaportea eta giltzak aldean eraman behar ez izateko. Baina beste hainbat eta hainbat ikuspen edo begitazio ere badira, erakusten dutenak etorkizuneko garai batean gizabanako jakin batzuek garun gisa soilik funtzionatuko dutela eta gai izango direla memoria-kantitate handiak gordetzeko eta abiadura handian pentsatzeko; adibidez, ordu erdian liburu bat irakurtzeko gai izango dira. Bitartean, gure gorputz-atalak erauzi eta beste era batean berrantolatzeko saiakera ere gero eta abiadura handiagoan garatzen ari da, eta horrek iradoki dezake mundu bat non klonazioa, gene-edizioa eta gene-transferentzia —jada animaliekin egiten direnak— kit mediko edo zientifikoko parte izango direla eta horrek seguru aski aukera emango duela etorkizuneko mundu kapitalistan giza bizimolde berriak ekoizteko, produktu bizigabeekin batera.

Testuinguru horretan, gure gorputzak aldarrikatzeko, gure gorputzaren errealitateari buruz erabakitzekeo dugun ahalmena aldarrikatzeko, guk ezagutzen dugun gorputzaren indarra eta jakinduria berretsi behar dugu. Gorputz hori denbora luzez eratu da, lurraren eraketarekin etengabeko elkarreraginean, orain gure ongizatea arrisku larrian jarriz manipulatu diren moldeetan. Liburua ixten duen «Gorputz dantzariaren laudorioa» artikulua Daria Fain koreografoak kontzientziaren eta hizkuntzaren sorrerari buruz ondutako dantza bat ikusi ondoren idatzi nuen, eta idazlan horretan kapitalismoak gaur egun suntsi-

tu nahi duen indar eta jakinduria hori goستن dut. Horretan, nire ikuspegia ez dator bat Bakhtin-ek gorputz pantagrueldarrari buruz zuen ikusmoldearekin, alegia, XVI. mendeko Frantzian Rebelais-ek irudikatu zuen gorputzari buruz zuen iritziarekin. Gorputz hori bere larruazalaren periferiatik haraindi hedatzen da, baina munduan jangarria den oro bereganatuz eta irentsiz egiten du, plazer sentsualeko orgia batean, muga guztiez libratuz. Nire ikuspegia ere hedapenezkoa da, baina beste era batekoa. Izan ere, larruazalaren periferiaz haraindi joatean aurkitzen duena ez da sukaldaritzaren paradisia, baizik eta lurreko gainerako organismo biziekiko jarraitutasun magiko bat: gizakien eta ez-gizakien gorputzak, zuhaitzak, ibaiak, itsasoa, izarrak. Kapitalismoak bereizi duena biltzen duen gorputz baten irudia da, gorputz bat ez dagoena eratua Leibniz-en monada gisa, leihorik gabe eta aterik gabe, baizik eta kosmosarekin batera mugitzen dena, mundu batean non dibertsitatea aberastasuna den guztiontzat eta komunagintzarako oinarria, ez bereizketen eta aurkakotasunaren iturri.

LEHENENGO ZATIA

BAT

LEHENENGO HITZALDIA GORPUTZA, KAPITALISMOA ETA LAN-INDARREN ERREPRODUKZIOA

Zalantzarik gabe, gaur egun gorputza diskurtso politikoaren, diziplinarioaren eta zientifikoaren erdigunean dago, eta esparru guztietatik ari dira birdefinitzen haren gaitasun eta posibilitateak. Aldaketa sozial eta indibidualerako bidean, gorputza da galdekatu beharreko esfingea, eta haren gainean eragin behar da. Halere, esparru intelektual eta politikoan gehien balioesten diren teoriak oinarri hartuta, ia ezinezkoa da gorputzari buruzko ikuspuntu koherente bat eraikitzea. Alde batetik, determinismo biologikoaren molderik muturrekoenak ditugu, zeinen aburuz DNA *deus absconditus* (ezkutuko jainkoa) baita eta ustez horren araberakoa baita, gure ezkutuan, gure bizitza fisiologiko eta psikologikoa. Bestetik, beste teoria (feminista, trans) batzuk ere baditugu, bultzatzen gaituztenak faktore «biologiko» oro baztertzera eta gorputzaren adierazpen performatibo edo testualak aldezttera, eta besarkatzera, gure izatearen baitakoa balitz bezala, makinaren munduarekiko asimilazio gero eta handiagoa.

Alabaina, bada joera komun bat: ez da existitzen gure gorputzei eragiten dioten indar sozialak identifi-

katzeko bidea ematen digun ikuspuntu bakar bat ere. Obsesio ia erlijioso batekin, biologoek molekulen mundu mikroskopiko batera zedarritzen dute aktibitate esanguratsuaren eremua, zeinaren osaera jatorrizko bekatua bezain misteriotsua baita. Biologoek ustez, gaixotasunek orbandurik gatoz mundura, haietarako joerarekin, haietara predestinatuta, edo haietatik libre; izan ere, den-dena dago jainko ezezagun baten esleitu digun DNA horretan idatzita. Gorputzaren teoria diskurtsibo/performatiboek dagokienez, berriz, ez dute ezer esaten gorputzari eta gorputz-praktikei buruzko ideien sorlekua den esparru sozialari buruz. Beharbada beldur gara, kausa bateratu baten bilaketak ez ote digun eragotziko ikustea gure gorputzek era askotara egituratzen dituztela gure identitateak eta boterearekiko harremanak. Gainera, bada beste joera bat ere, Foucault-engandik berreskuratu duguna: gure gorputzetan eragiten ari diren indarren jatorriak ikeritu beharrean, haien «ondorioak» ikertzea. Alabaina, gure gorputzen mugimendu-esparruko indar-eremua berreraiki gabe, gorputzek ulertezinak izaten jarraituko dute, edo beren funtzionamenduari buruzko uste nahasgarriak zabalduko dira. Esate batera, nola joango gara «bitartasunaz haraindi», horrek esplotazio-sistema jakin batzuei dakarkien onura ekonomiko, politiko eta soziala ulertu gabe, eta ulertu gabe, bestalde, genero-identitateak etengabe eraldatzea eragiten duten borrokak? Nola hitz egin generoaren, arrazaren eta adinaren «antzezpenez», esplotazio- eta zigor-molde jakin batzuek eragiten duten konpultsioa onartu gabe?

Aldaketa eragingo duten estrategiak diseinatu nahi baditugu, gure gorputzak eratzen dituzten politika antagonikoen eta botere-harremanen mundua identifikatu behar dugu, eta «arauaren» aurka egin diren borrokak birpentsatu.

Hain zuzen ere, hori da *Caliban eta sorginan* (2004) egin nuena: aztertu nuen nola aldatu zuen kapitalismorako trantsizioak «gorputzaren» kontzeptua eta tratamendua,² eta argudiatu nuen kapitalismoaren proiektu handienetako bat gure gorputzak lan-makina bihurtzea izan dela. Horrek esan nahi du gizarte kapitalistan gure gorputzak itxuratu dituen faktore nagusia zera izan dela, gizakiaren lan-indarraren esplotazioa maximizatzeko beharra —baita lan-molde bereziak sortuz eta estortsioaren bidez ere—. Ikuspegi hori nahita da Foucaultenari kontrajarria;³ haren arabera, gorputzak «aro modernoaren» hasieran jasan zituen diziplina-erregimenen erroak «botere» metafisiko baten funtzionamenduaren baitan daude, zeinak ez baititu asmoak eta xedek hobeto identifikatuta.⁴

Foucaultek ez bezala, argudiatu nuen ere ez dugula gorputzaren historia bakar bat, baizik eta hainbat; hau da, gorputzaren mekanizazioa nola eratu zen azaltzen duten hainbat historia ditugula. Izan ere, arrazan,

2 Komatxo artean jarri dut «gorputza», fikziozko kontzeptu bat dela adierazteko, hau da, historia sozial eta errealtate desberdin eta bakanen abstrakzio gisa ulertzeko.

3 Ikus Foucaulten *Discipline and Punish: The Birth of the Prison* (1979).

4 Merezi du aipatzea Foucaulten «gorputzaren ekonomia politikoaren» analisiari Dario Melossi-k egin zion kritika *The Prison and the Factory* (1981), 44-45. Honela idatzi zuen: *Eskolako*, kuarteleko, kartzelako eta familiako gorputzaren *eraikuntza* burges hori erabat ulertezina da oraindik... non-eta ez garen abiatzen lan-prozesuaren kudeaketa kapitalistatik (eta kapitalismoaren historiaren *une honetan*). Horretarako, gorputza osotasunean hartutako makina produktiboaren barneko makina baten gisa egituratzeko zeregina planteatu behar izan zen, hau da, ulertu behar dugu lanaren antolamenduak ez duela ulertzen gorputza zerbait arrotz gisa; gorputza *zeharkatu* eta giharretaranzko eta bururanzko bidea egiten du, eta, aldi berean, prozesu produktiboarekin batera berrantolatzen du gorputzaren lan-indarrak osatutako bere funtsezko zatia. Laburbilduz, aro honetan makina asmakizun konposatu/konplexu bat da, non datzan elementu finko, inorganiko, hil bat eta elementu organiko aldakor bizidun *bat*. (letra italikoak jatorrizko testukoak dira).

sexuan eta belaunaldian oinarrituta kapitalismoak sorreratik eraiki dituen hierarkiek ezinezkoa egiten dute ikusmolde unibertsal baten posibilitatea. Horregatik, «gorputzaren» historia kontatzeko ezinbestean harilkatu behar dira hainbat historia, alegia, esklabo bihurtutakoenak, kolonizatuenak, soldatapeko langile edo ordainik gabeko etxeoandre bihurtutakoenak, baita haurren historiak ere, betiere gogoan izanda sailkapen horiek ez direla elkarren baztergarriak eta «elkarri lotutako zapalkuntza-sistemen» mende egoteak errealitate berri bat sorrarazten duela beti.⁵ Gainera, esango nuke kapitalismoaren beste historia bat ere behar dugula, idatzita dagoena animalien erreinuaren ikuspuntutik eta baita, noski, lurren, itsasoen eta oihanen ikuspegitik ere.

Ikuspegi horietatik guztietatik begiratu behar diogu «gorputzari», kapitalismoak gizakiaren eta «naturaren» aurka egin duen borrokaren sakontasuna ulertzeko eta hondamen horri amaiera emateko gai izango diren estrategiak diseinatzeko. Gerrari buruz berba egitea ez da jatorrizko osotasuna onartzea edo «naturaren» ikuspegi idealizatu bat proposatzea. Gaur egun bizi dugun larrialdi-egoera nabarmentzea da, eta zalantzan jartzea zer onura eskura dezakegun orain, gure gorputzak berregitea ahalduntze sozialerako eta autodeterminaziorako bide gisa sustatzen den aro honetan, behetik kontrolatzen ez diren politiken eta teknologien bidez. Izan ere, *cyborg* bihurtzen ari garela ospatu aurretik, jada bizi izan dugun mekanizazio-prozesuaren ondorio sozialen inguruan hausnartu behar genuke.⁶ Hain zuzen ere, inozoa da pentsatzea maki-

5 bell hooks-i hartu diot elkarri lotutako zapalkuntza-sistemen kontzeptua, zeina ezinbestekoa baita interseksionalitatearen teorian. bell hooks (1990), 59. Baita ere hooks (1989), 175.

6 Kasu honetan, Donna Haraway-en *Cyborg Manifesto* (1991) liburuari

nekiko gure sinbiosiaren emaitzak ezinbestean izan behar duela gure botereen eta gaitasunen hedatze bat, eta inozoa da ere ezikusia egitea teknologiek gure bizitzetzi eragiten dizkieten mugei, kontrol soziala helburu haien erabilera gero eta ohikoagoari eta haien ekoizpenak eragiten duen kostu ekologikoari.⁷

Kapitalismoak lanerako makina gisa erabili ditu gure gorputzak; izan ere, kapitalismoa da giza lanaren esentzia modu sistematikoenean aberastatsun-metaketa bihurtu duen gizarte-sistema, baita giza lan horren esplotazioa maximizatzeko behar handiena izan duena ere. Hori lortzeko, zenbait bide erabili ditu: lan-molde biziagoak eta uniformeagoak inposatu ditu, baita askotariko diziplina-erregimen eta -instituzioak ere; beldurra ere inposatu du, eta pertsonak behetitzea helburu duten eginkizunak. Adibide gisa, XVII. mendean Herbehereetan munta txikiko delitugileen espetxeetako presoek inposatutako zereginak aipa ditzakegu; zirenik eta metodorik atzeratu eta akigarrienez egur-blokeak hausten behartzen zituzten, ez gero zerbaitetan erabiltzeko, baizik eta kanpo-aginduek betetzen ikasteko eta ezintasuna eta mendekotasuna gorputzeko zuntz orotan sentitzeko.⁸

Jendearen erresistentziarako grina ezerezteko erabiltzen ziren erritual beheeratzailen beste adibide bat da XX. mendearen hasieraz geroztik Hego Afrikako medikuek urre-meategietan lan egitera behartutako afrikarrei inposatzen zieten (Butchart 1998, 92-110). «Beroarekiko tolerantziaren probak» edo «hautaketa-prozedurak» zirelakoan, langile afrikarrek biluzi, ilaran

egiten diot erreferentzia, zeinari zalantzazkoa baiteritzot bai teorikoki bai politikoki.

7 Kartzelaren eta zaintzaren esparruko teknologiaren erabilerari buruz gehiago jakiteko, ikus R. Benjamin ed., *Captivating Technologies* (2019).

8 Ikus Melossi eta Pavarini (1981).

jarri eta arrokak palaz haizatu behar izaten zituzten, eta gero erradiografia-azterketak egiten zizkieten edo zinta metrikoarekin eta baskularekin neurtu; hori guztia mediku aztertzaileren begiradapean egin behar izaten zuten, zeinak maiz ikusezinak baitziren aztertuen begietan (94, 97, 100). Ariketa haren ustezko helburua zen etorkizuneko langileei erakustea meatzaritza-industriaren oroz gaineko boterea eta, horrekin batera, afrikarrak «giza duintasunik gabeko» bizitza batean abiaraztea.

Aldi berean, hala European nola AEBn, taylorismoak denboraren eta mugimenduaren inguruan bultzatutako ikerketek —geroago muntaketa-katearen eraikuntzan txertatuko zirenak— proiektu zientifiko bilakatu zuten langileen gorputzen mekanizazioa: atazak zatikatu eta atal txiki-txikitan banatu zituzten, elementu erabakigarri guztiak lan-prozesutik ezabatu zituzten eta, batez ere, lana ezagutza eta faktore motibatzaile oroz gabetu zuten.⁹ Nolanahi ere, automatismoa ere errepikapen infinituko lan-bizitza baten produktua izan da, «irteerarik gabeko» bizitza bat;¹⁰ adibidez, bederatzietatik bostetara fabrian edo bulegoan jardutea, non oporregatik etenaldiak ere mekanizatuak eta errutinazkoak bihurtzen baitira, denbora jakin bat irauten dutelako eta aurreangarriak direlako.

Halarik ere, Foucault zuzen zebilen: «errepresioaren hipotesia» ez da nahikoa gorputzak kapitalismoan

9 Honi buruz gehiago jakiteko, ikus H. Braverman (1974), batez ere 4. atala, «Scientific Management», eta 5.a, «The Scientific-Technical Revolution and the Worker».

10 Erreferentzia 1944koa da, Jean-Paul Sartreren antzezlan batekoa, non infernua honela deskribatzen baita: gure iraganeko ekintzek gure bizitzari ezarritako mugetatik askatzerik ez dugunean gure kondena bilakatzen den autokartzela.

izan duen historia azaltzeko.¹¹ Erreprimutako guztia bezain garrantzitsuak izan dira garatutako «trebetasunak». *Principles of Economics* liburuan, Alfred Marshall ekonomialari britainiarrek diziplina kapitalistak lan-indar industrialean sorrarazi dituen trebetasunak laudatu zituen, eta adierazi zuen munduko herri gutxitan zirela gai langile europarrek une hartan egin zezaketena lortzeko. Gainera, industria-langileek etengabe lanean jarduteko zuten «trebetasun orokorra» goraiatu zuen, hainbat orduz zeregin berean jarduteko zuten ahalmena, baita dena gogoratzeko zuten gaitasuna ere —adibidez: zeregin bat egiten zuten bitartean, ondoren zein zetorren gogoratzekoa—; erremintekin lan egiteko trebetasuna, haiek apurtu gabe, denbora alferrik galdu gabe; makineria garestia kontuz manipulatzeko trebetasuna eta irmo eustekoa, baita zereginik errepikakorrenak egiten zituzten bitartean ere. Horiek, zioenez, gaitasun apartak ziren, munduan gutxi batzuek baino ez zituztenak, eta horrek erakusten zuen, bere ustez, ez-espezializatua dirudien lana ere egiazki oso espezializatua dela (Marshall [1890] 1990, 172).

11 «Errepresioaren hipotesiaz» ari denean, Foucaultek adierazi nahi du historialariek errepresioarekin lotutako hitzekin azaltzen dutela beti kapitalismoak gizartean eta diziplinan duen eragina. Berak argudiatzen du, oster, sexualitatearen tratamendu kapitalistan egindako aurrerapauso handietako bat sexuari buruzko «benetako eztanda diskurtsiboa» izan dela; zehatzago esanda, sexua diskurso bihurtzea, zeinaren bidez «asko ugaritu ziren garrantzi txikiko perbertsioen aurkako legezko zigorrak». *The History of Sexuality*, 1. lib., 17, 36-37. Nire ustez, bikaina baina murriztailea da Foucaultek «diskurtoaren norabide-aldaketa» nabarmentzea —aldaketa horren bidez, sexua ondasun immaterial bilakatu zen—; aitzitik, bat nator berarekin behin eta berriro errepikatzen duenean diziplina sozialak —are errepresio sozialak— izaera produktiboa duela. Badirudi dinamismo fisikoa energiaren kontserbazio-legearen antzeko lege baten mende dagoela, zeinaren bidez portaera-molde zehatz batzuen debekuak ez baitu hutsa eragiten, baizik eta ordezko erantzun orekatzaileak, adibidez, desira erreprimutua «diskurto» bilakatzea.

Marshallek ez zuen azaldu nahi izan nola sor-
tu ziren makina lako behargin miragarri haiek. Ez
zuen esan jendea lurretik aldendu behar izan zute-
la eta tortura eta exekuzio eredugarriekin beldurtu.
Arloteei belarriak mozten zizkieten. Prostitutei «urpe-
koarena» egiten zieten, CIAk eta AEBko Indar Bereziek
«terrorismoaz» akusatuei egiten dieten bezala; hau
da, aulki batera lotuta, ustez jokabide desegokia izan
zuten emakumeak urmael eta ibaietan urperatzen
zituzten, ia itotzeraino. Esklaboak zartailuz jotzen zi-
tuzten, haragia hezurretatik bereizi arte, eta erre eta
mutilatu egiten zituzten, eta eguzki errearen azpian
uzten, gorpuak usteltzen zirenera arte.

Kapitalismoaren garapenarekin, eta *Caliban eta
sorginan* argudiatu nuena errepikatuz, zelai komuna-
lak «ixteaz» gainera gorputzak ere itxi zituzten. Baina
gorputzen ixte-prozesua desberdina izan zen gizonen-
tzat eta emakumeentzat, eta desberdina izan zen ere
esklabo izatera behartutakoentzat eta beste molde
batzuetako lan behartuak egin behar zituztenentzat,
ordainpeko lana barne.

Garapen kapitalistan, emakumeek mekaniza-
zio-prozesu bikoitza jasan dute. Plantazio, fabrika eta
etxeetako lan ordaindu eta ordainik gabekoaren dizi-
plinara behartzeaz gainera, beren gorputzez desjabetu
dituzte, eta objektu sexual eta ugaltze-makina bihurtu.

Metatze kapitalista (Marx-ek onartu bezala) lan-
gileen metaketa da.¹² Motibazio horrek bultzatu zituen
esklaboen salerosketa, plantazio-sistemaren garapena
eta —nik argudiatu izan dudanez— Europan eta «Mundu

12 Ikus, adibidez, *Kapitala*, 1. lib., 7. atala, 25. kap., 764. or.: «Lan-
indarraren erreprodukzioa, etengabe kapitalera itzuli behar den lan-
indarrarena, hari balioa emateko baliabide gisa... kapitalaren beraren
erreprodukzioaren faktore bat da. *Beraz, kapitala metatzea proletariotza
ugaritzea da*». (Letra etzana nirea da)

Berrian» gertatu ziren sorgin-ehizak.¹³ «Sorginen» jazarpenarekin, beren ugaltze-gaitasuna kontrolatu nahi zuten emakumeak haurren etsaitzat salatu zituzten, eta, zenbait moldetan, gaur arte iraun duen demonizazioa jasanarazi zieten. XIX. mendean, adibidez, «maitasun askearen» aldekoak —Victoria Woodhull kasu— satanikotzat jo zituzten Estatu Batuetako prentsan, eta deabruaren hegoekin irudikatzen ere iritsi ziren (Poole 2009). Gaur egun ere, AEBko estatu ugartan, abortatzera klinika batera doazen emakumeek «bizitzaren aldeko» jendetzaren artetik igaro behar izaten dute; «haurhiltzaile» oihuztatzen diete, eta klinikaren ateraino jarraitu, Auzitegi Gorenaren epai bati esker.¹⁴

Emakumeen gorputzak makina bihurtzeko saiakerarik sistematiko, basati eta normalizatuena esklabotzarekin egin izan da. Emakume esklaboek sexu-eraso etengabeak jasan behar izan zituzten, baita seme-alabak esklabo gisa saltzen ikusteak eragiten duen min zorrotza ere, baina ez hori bakarrik. 1807an, Ingalaterrak esklaboen salerosketa debekatu zuen, eta, horren ostean, AEBko emakume esklabo bihurtuak haurrak egitera behartu zituzten, egoitza nagusia Virginian zuen haur-haztegia elikatzeko.¹⁵«Lancashire-ko

13 Federici (2004), batez ere 4. kap.

14 2014ko ekainean, Auzitegi Gorenak Massachusetts-eko lege bat indargabetu zuen aho batez, zeinak debekatu egiten baitzien protestatzaileei ugaltze-zentroaren sarreratik 10,5 metrora egotea. Erabaki haren ondorioz, orain emakumeek lagunduta joan behar dute klinikara abortatzera, protestatzaileek sarrerako ateraino jarraitzeko eskubidea dutelako eta horrek tentsio eta arrisku handiko egoerak eragiten dituelako.

15 Ikus Sublette eta Sublette (2016) eta Beckles (1989), batez ere 5. kap., «Breeding Wenches and Labor Supply Policies». AEBn, hazkuntza-industriaren gune nagusia Virginian zegoen, eta Karibeko Irletan, berriz, Barbados-en; bada, Barbadoseko hura izan zen «1807rako Afrikatik esklaboak inportatzeko behar ekonomikoa ezabatu zuen azukre-plantazioen kolonia bakarra, berez zelako positiboa esklabozakinen hazkundera» (Beckles 1989, 91). Becklessek dio, halaber,

ehungailu mekanikoek hegoaldeak eman zezakeen kotoi guztia hurrupatzen zuten bitartean», idatzi zuten Ned eta Constance Sublette-k, «emakumeen sabelak ez ziren tokiko aberastasunaren iturri hutsak, sistema global baten hornitzaileak ere baziren, hau da, nekazaritzako sargaiek, esklabotzan oinarritutako sargai industrialek eta finantza-hedapenak osatutako mundu mailako sistemarenak» (Sublette eta Sublette 2016, 414). Thomas Jefferson-ek onartu egin zuen, ahalegin handi bat eginda, AEBko Kongresuak Afrikako esklaboen inportazioa murriztea, Virginiako plantazioetako emakumeek sortuko zituzten esklaboen prezioak babesteko. «Nire ustez», idatzi zuen, «bi urtean behin haur bat egiten duen emakumea etxaldeko gizonik onena baino errentagarriagoa da. Emakumeak sortzen duena kapitalari gehitzen zaio; gizonaren lana, berriz, kontsumitzen den une berean desagertzen da» (416).

AEBren historian, esklabotza alde batera utzita, emakume-talde bakar bat ere ez da zuzenean behartu haurrak izatera; alabaina, abortuaren kriminalizazioarekin, instituzionalizatu egin dira bai emakumeen borondatearen aurkako ugalketa bai emakumeen gorputzaren gainean estatuak duen kontrola. Pilula antikonzeptiboaren etorrerak ez zuen erabat aldatu egoera hori. Abortua legeztatu den herrialdeetan ere zenbait murrizketa ezarri dira, eta emakume askorentzat oso zaila abortatzeko aukera izatea.¹⁶ Izan ere,

XVIII. menderako esklaboen «hazkuntza» ospe oneko politika gisa ernatu zela, eta terminoa bera ere ohikoa bihurtu zela lan-indarraren alorreko administrazio-hizkuntzan (92).

16 Urte luzez, mugak ezarri dira AEBko zenbait estatutan, non abortua onartzeko denbora-tartea murriztu eta prozedura gurasoen onespeneraren mende jartzen baita. Gaur egun, abortua erabat debekatzeko kanpaina bat dago martxan. 2019ko maiatzaren 14an, abortua fase batean ez beste guztietan debekatzen duen neurri bat onartu zuten Alabamako Senatuan, eta hori adibide bat baino ez da.

ugaltzeak balio ekonomiko bat du, inolaz ere txikitzen ez dena kapitalak gero eta botere teknologiko handiagoa izanagatik. Hain zuzen, akatsa da pentsatzea klase kapitalistak gero eta interes gutxiago duela emakumeen ugaltze-gaitasuna kontrolatzeko, zergatik-eta langileak makinekin ordezkatu ditzakeelako. Egia bada ere metatze kapitalistak langileak kaleratzeko eta «populazio-soberakina» sortzeko joera duela, giza lanaren beharra du oraindik. Lanak soilik sortzen du balioa, makinek ez dute baliorik sortzen. Ekoizpen teknologikoaren hazkundera ere, Danna-k (2019, 208ff) berriki adierazi bezala, gizarte-desberdintasunei eta «Hirugarren Munduko» langileen esplotazio handiari zor zaie. Gaur egun desagertzen ari dena ez da lana bera, baizik eta iraganean lanaren truke ematen zen ordaina. Kapitalismoak langileak behar ditu, eta kontsumitzaileak eta soldaduak ere behar ditu. Halandaze, biztanleriaren benetako tamainak garrantzi politiko handia du oraindik. Horregatik jartzen zaizkio mugak abortuari, Jenny Brown-ek *Birth Strike* (2018) liburuan erakutsi bezala. Klase kapitalistarentzat oso garrantzitsua da emakumeen gorputzak kontrolatzea; horregatik, ikusi dugun bezala, are ere AEBn, non abortua 1970ean legalizatu baitzen, erabaki hura aldatzeko ahaleginean jarraitzen dute oraindik. Beste herrialde batzuetan —esaterako, Italian—, legearen hutsuneak «kontzientzia-objektore» bihurtzeko aukera ematen die medikuei, eta, ondorioz, emakume askorentzat ezinezkoa da etxetik gertuko klinikaren batean abortatzea.

Halere, emakumeen gorputzen kontrola ez da inoiz izan kontu kuantitatibo hutsa. Estatua eta kapi-

tala beti saiatu izan dira zehazten nork izan ditzakeen haurrak eta nork ez. Horregatik jartzen dizkiote mugak abortatzeko eskubideari, eta horregatik kriminalizatzen dute haurduntza,¹⁷ haur «asaldatzaileak» egitea espero den emakumeen kasuan. Adibidez, eta ez hala-beharrez, 1970eko eta 1990eko hamarkaden bitartean, afrikarren, indiarren eta beste subjektu deskolonizatu batzuen belaunaldi berriak adin politikora iristen —eta europarrek beren herrietatik lapurtua zuten aberastasuna itzultzeko eskatzen— hasi zirenean, garai bateko mundu kolonialean «populazioaren leherketa» gisa definitu zuten hari aurre egiteko kanpaina bat antolatu zuten (Hartmann 1995, 189-91), eta, besteak beste, antzutzea eta kontrazeptiboak erabiltzea sustatu zuten; adibidez, Depo Provera, Norplant eta DIUak, zeinak, behin jarriz gero, emakumeen kontroletik kanpo geratzen baitziren.¹⁸ Garai bateko mundu kolonialeko emakumeak antzututa, nazioarteko kapitala errepara-

17 Termino hori erabili zuten Lynn Paltrow-ek —Emakume Haurdunen Defendatzaile Nazionalen sortzailea eta zuzendaria— eta Jeanne Flavin-ek 2013ko ikerketa batean AEBn haurdunaldia arautzeko asmoz ezarritako politikak deskribatzeko, zeinek nagusiki emakume beltz behartsuei eragiten baitiete (Paltrow eta Flavin 2013, 299-343). Halakoa da gaur egungo egoera legala —idatzi zuten—, non haur bat izatea erabakitzen dutenean emakume beltz pobreek konstituzioaren mugetatik kanpora kokatzen baitute beren burua, eta beste egoera batean krimintzat joko ez ziren karguak jasotzeko arriskuan. Esate batera, emakumeak atxilotu eta espetxeratu dituzte haurdunaldian istripu bat izateagatik eta agian fetuari eragin diezaioketen droga legalak kontsumitzeagatik. Prozesu horretan mugarria izan zen 2003ko kasu bat: Hego Karolinako Auzitegi Gorenak homizidioa eta adingabeen abusua egotzi zion fetu hil batez erditu zen emakume bati, zeinak ustez drogak kontsumitu baitzituen haurdunaldian zehar. Erabaki haren ondoren, emakume ugari egotzi diete adingabeen abusua, haurdun zeuden bitartean droga ilegalak kontsumitzeagatik; izan ere, zenbait estatutan fetuak pertsona gisa definitu dira legalki. Horri buruz gehiago jakiteko, ikus baita Feminist Research on Violence/Plataforma Feminista sobre Violencias plataformaren webgunea, <https://feministresearchonviolence.org>.

18 Horri buruz gehiago jakiteko, ikus berriro Hartmann (1995), batez ere 3. kap., «Contraceptive Controversies», eta Connelly (2008).

zioa aldarrikatzen duen mundu mailako borroka bati eusten saiatu da; berebat gertatu da AEBn, non gobernu guztiak beltz jendeen askapen-borroka oztopatzen saiatu baitira, milioika gizon eta emakume beltz gazte kartzelatuz.

Beste edozein erreproduzio-moldek bezala, haurrak egiteak ere klase-izaera nabarmena du, eta arrazializatua dago. Mundu osoko emakume gutxik erabaki dezakete haurrak izan nahi dituztenetz eta, baiezkoan, zer baldintzatan. Dorothy Roberts-ek *Killing the Black Body* ([1997] 2017) liburuan argi eta garbi azaldu bezala, nahiz eta emakume zuri aberatsen kasuan haurrak edukitzeko desira baldintzarik gabeko eskubi-deen mailara goratu den, kosta ahala kosta bermatu beharrekoa, emakume beltzak —zeinentzat zailagoa baita ziurtasun ekonomiko bat izatea— baztertu eta zigortu egiten dira baldin eta ume bat izaten badute. Halarik ere, horrenbeste emakume beltz, migratu eta proletariok amatasunerako bidean aurkitzen duten diskriminazio horrek ez du esan nahi kapitalismoak jada ez duela hazkunde demografikorako interesik. Lehenago argudiatu dudan bezala, kapitalismoak ezinbestekoak ditu langileak. Langilerik gabeko fabrika iruzur ideologiko bat da, eta langileak beldurtzea eta menderatzea du helburu. Lan-indarra ekoizpen-prozesutik ezabatuz gero, kapitalismoak erreka joko luke ziurrenik. Biztanleriaren hedapena hazkunderako pizgarri bat da bere horretan; beraz, kapitalaren ezein sektorek ezin dio ezikusia egin emakumeek ugaltzearen inguruan hartzen dituzten erabakiei.

Puntu hori argi baino argiago azaltzen da jada aipatua dudan *Birth Strike* liburuan, non Jenny Brownek sakon aztertzen baitu haurrak egiteak bizitza ekonomiko eta sozialaren alderdi guztiekin duen harremana;

zalantzarako tarterik utzi gabe, erakusten du gaur egungo politikariak arduratuta daudela mundu mailan gertatzen ari den jaiotza-tasaren jaitsierarekin, zeina Brownek isileko greba gisa ulertzen baitu. Berak dioenez, emakumeek berariazko abantaila bat atera behar lukete kezka horretatik, bizi- eta lan-kondizio hobekak negoziatzeko. Beste hitzez esanda, Brownek iradokitzen du ugaltze-gaitasuna botere politikorako tresna gisa erabili behar genukeela. Proposamen tentagarria da, bai.¹⁹ Tentagarria da irudikatzea emakumeak jaiotza-greba ageriko bat egiten, aldarrikatuz, adibidez, «ez dugu ume bakar bat gehiago ekarriko mundu honetara harik eta zain dituzten kondizioak erabat aldatzen diren arte». «Ageriko» diot, martxan baitago jada, Brownek dokumentatu bezala, haurrak egiteari uko egiten dieten emakumeen mugimendu masibo —nahiz eta isileko— bat. Bigarren Mundu Gerraz geroztik, jaiotza-tasak goia jo du jada Italian, Alemanian eta beste herrialde batzuetan, eta jaiotza-tasaren jaitsiera hori ugaltze-grebaren seinale da. AEBn ere, jaiotza-tasa beherantz egiten ari da azkenaldian. Gaur egun, emakumeek lehen baino haur gutxiago izaten dituzte, horrek esan nahi duelako etxeko lan gutxiago egin behar izatea eta gizonetik eta lanarekiko mendekotasun txikiagoa izatea, edo ez dutelako amatasunak dakartzan zereginenez lepo bizi nahi, edo ez dutelako gogorik haurrak izateko, edo, batez ere AEBn, ezinezkoa zaielako kontrazeptiboak erabiltzea eta abortatzea.²⁰ Nolanahi ere, zaila da irudikatzea nola antolatu ahal izango litzatekeen ageriko greba bat.

19 Jenny Brown (2018), 153, eta, gai berari buruz gehiago jakiteko, ikus 11. kap.: «Controlling the Means of Reproduction» (143-60).

20 Jenny Brown (2018), 144. Brownek dio kontrazeptiboak lortzeko eta abortatzeko zailtasuna dela benetako arrazoia; izan ere, duela gutxira arte AEBko emakumeek ugalkortasun-tasa handiagoa zuten, eta, gainera, 2011n AEBko jaiotzen % 45 planifikatu gabeak ziren, hau da, ez-desiratuak edo une desegokian etorriak.

Jaiotzen diren haurretako asko ez dira planifikatuak edo desiratuak. Are gehiago: herrialde askotan, haur bat izatea etorkizunera begirako aseguru-poliza bat da emakume askorentzat. Gizarte-segurantzarik eta pentsiorik gabeko herrialdeetan, haur bat izatea da bizirauteko modu bakarra, eta emakumeek lur-zati bat edo aitortza soziala eskuratzeko duten modu bakarra. Haurrak poztasun-iturri ere izan daitezke, eta hori da, sarri askotan, emakumeak duen aberastasun bakarra. Beraz, gure zeregina ez da emakumeei esatea ez luke-tela haurrik eduki behar, baizik eta bermatzea haurrik eduki nahi duten erabakitzeke ahalmena dutela eta ziurtatzea emakumeok ez dugula amatasuna bizitzare-kin ordaindu beharko.

Ziurrenik, amatasunak emakumeei eman die-zaiekeen botere soziala dela-eta saiatzen ari dira medikuak umetokitik kanpora bizitza sortzen, nahiz eta erakutsi nahi duten antzutasunaren aurkako borro-kan ari direla, eta andreei aukera gehiago eman nahian. Ez da lan erraza. «Probeta-haurtxoei» buruz asko hitz egin bada ere, «ektogenesiak» utopia mediko bat iza-ten jarraitzen du. Alabaina, *in vitro* ernalketa (FIV), baheketa genetikoa eta ugalketarako beste teknologia batzuk umetoki artifizialak sortzeko bidea urratzen ari dira. Feminista batzuk ados egon daitezke horrekin. 1970eko hamarkadan, feminista batzuek, hala nola Shulamith Firestone-k, emakumeak ugaltzetik libratu-ko ziren eguna laudatu zuten; harentzat, ugalketa zen historian zeharreko zapalketaren arrazoia.²¹ Baina hori

21 *The Dialectic of Sex* (1970) lanean, Firestonek «bide guztiak erabiliz emakumeak beren biologia erreproduktiboaren tiraniatik askatzearen» alde egin zuen, iraultzaren ondorengo gizarte batean egitekoa izango zen proiektu gisa. (206) *Feminist Concerns about Ectogenesis* liburuari buruzko eztabaidarako, ikus Murphy (1995), 113-33. Murphyk argudiatzen du praktika mediko guztien artean ektogenesia dela emakumeen ugaltze-eskubidearentzako mehatxurik zuzenena, eta

jarrera arriskutsua da. Kapitalismoa gizarte-sistema bidegabe eta esplotatzailea bada, kezkarria da pentsatzea etorkizuneko planifikatzaile kapitalistek beren neurrira egindako gizakia sortu ahal izango dutela. Ez genuke arrisku hori gutxietsi behar. Gene-edizio-rik gabe ere, mutanteak gara dagoeneko; adibidez, gai gara gure egunerokoarekin jarraitzeko, jakinda ere gertaera katastrofikoak jazotzen ari direla gure inguruan, hala nola gure ingurumen ekologikoaren suntsiketa eta orain kalean bizitzen ari diren pertsona ugarien heriotza geldoa, zeinen aldamenetik igarotzen baikara egunero, haiengan askorik pentsatu gabe edo haienganako sentimendu handirik izan gabe. Aurrean dugun arriskua ez da soilik makinak gailentzen ari direla; gu geu ere makinak bezalakoak bilakatzen ari gara. Beraz, ez dugu behar oraingo honetan laborategi mediko batean kokatutako haztegi berri batean sortutako robot gisako indibiduo gehiagorik.

Nire belaunaldiko feministek gogor aldarrikatu duten gisan, amatasuna ez da halabeharrezkoa. Baina sistematikoki ere ez da saihestu behar, emakumeen miseriaren eta esplotazioaren jatorria izango balitz bezala. Erditzeko gaitasuna izatea, umetokia edo bularrak edukitzea, ez da madarikazio bat, zeinetatik medikuntzak libratu behar baikaituen (medikuntza horrek berak esterilizatu eta lobotomizatu gaitu, eta medikuntza horrek berak utzi gaitu barregarri haurgintza-minez negar egin dugunetan). Eta amatasuna ez da generoa antzetzeko egiten dugun zera bat. Aitzitik, erabaki politiko bat da, balioak aldarrikatzen dituen. Gizarte autonomo autogobernatu batean, era

hori da emakumeek erreprodukzioari egiten dioten ekarpena gehien debaluatzen duena. Esaten du ere beldur dela, ez oten duen umetoki artifizialen eraikuntzak «feminizidioa» ekarriko (125).

horretako erabakiak hartzeko garaian faktore hauek izango lirateke kontuan: ongizate kolektiboa, eskura dauden baliabideak eta natura-aberastasunaren babesa. Gaur egun ere, faktore horiek ezin dira utzi alde batera, baina beste modu batera ere ulertu behar da haurra edukitzeko erabakia; alegia, ez dugu onartzen planifikatzaileek erabakitzea nor bizi daitekeen eta nork hil behar duen edo nor ezin den ezta jaio ere egin.

BI

BIGARREN HITZALDIA «GORPUTZEN POLITIKA» IRAULTZA FEMINISTAN

Aurreko hitzaldian adierazi dut ezen kapitalismoak, giza lanaren esplotazioan oinarritutako sistema bat den heinean, emakumeak gorputz gisa definitu dituela, hau da, haien biologiak menderatutako izaki gisa; izan ere, gure ugaltze-gaitasunaz jabetu, eta lan-indarra ugaltzera eta lan-merkatua zerbitzatzera bideratu du. Horrek ez du esan nahi kapitalismoaren historian emakumeek ez dituztenik jasan beste esplotazio-molde batzuk. Ameriketako plantazioetan, esklabo bihurtutako emakumeek soroetan lan egiten zuten, kanaberak mozten eta kotoia biltzen. Jim Crow sistemaren pean, emakume beltzek errepi-deak eraiki zituzten, kate bidez elkarri lotuta zeudela. Britainia Handian, Frantzian eta AEBn, langile-klaseko emakumeek eta hurrek industria-iraultzaren bizkarrezurra osatu zuten, eta, fabriketatik baztertuak izan ondoren ere, lanaldi partzialen batekin osatzen zuten beti familiaren aurrekontua. Hori hala izan da, bereziki, emakume beltzen kasuan, ezin baitzuten inoiz espero gizonak soldata egonkor bat ekarriko zutenik etxera. Halere, hauxe da garrantzitsuena: beste lan batzuk egiten bagenituen ere, beti espero izan da emakumeok

haurrak ekartzea eta gizonak sexualki zerbitzatzea, eta horretara behartu gaituzte askotan. Nahiz eta legeak ama izateko eskubidea ukatzen zien esklabo bihurtutako emakume beltzei, beren jabeen seme-alabak hazten zituzten, beren jabeen sexu-erasoak jasaten zituzten, eta haurrak egin behar izaten zituzten esklabo-hazkuntzaren industriarentzat, zeina batez ere 1806tik aurrera garatu baitzen, esklaboen salerosketa abolitzearekin batera.

Emakumeok beti borrokatu izan gara beste inork gure gorputzak jabetzan hartzearen kontra, orobat jabetze horrek berarekin ekarri duen indarkeriaren aurka. Esklabo bihurtutako emakumeek belar kontrazeptiboek buruzko ezagutza erabiltzen zuten haurdun ez geratzeko; are gehiago, beren haur jaioberririak hiltzen zituzten, esklabo bihurtuko ez zituztela ziurtatzeko. Bizia arriskuan jarriz eta tortura latzak pairatuz, jabeen sexu-erasoei aurre egiten zieten. Dorothy Roberts-ek ([1997] 2017, 45) honela azaltzen du: «Plantazioetatik ihes egiten zuten, gaixo-itxurak egiten zituzten, zigor gogorak jasan... Esklabo izandakoek gogoratu ohi zuten nola emakumeek... jipoiak jasaten zituzten, jabeen intsinuazio sexuali aurre egiteagatik... Jakina, emakume esklaboei ere jabeak pozoitzen zituzten askotan, sexu-erasoen mendeku hartzeko».

Ezerk —ez bada espetxeratzeak— ezin du berdinu esklabotzaren indarkeria. Eta, halere, hitz hori bururatzen zaigu pentsatzen dugunean zer eratako etsipena sentituko zuten emakumeek jakiten zutenean beren borondatearen aurka haurdun zeudela, zeina askotan biziaz ordaintzen baitzuten. Emakumeek haurdunaldia eta sexu-harremanak saihesteko egiten duten borroka, bai ezkontzaren barruan bai ezkontzatik kanpo, munduko borrokarik ohikoenetako bat da,

eta ez zaio egin ezelango aitortzarik. Eta, halere, feministak 1970eko hamarkadan hasi ginen lehenengoz antolatzen, ageriki eta kopuru handitan, «gorputzen politika» lelotzat hartu eta gure sexualitatea kontrolatzearen eta gure ugaltze-eskubideen alde borrokatzeko. «Gorputzen politika» leloak adierazten zuen ohartu ginela gure bizipenik intimoenak —eta seguru asko baita «pribatuenak» ere— kontu erabat politikoak eta garrantzi handikoak direla nazio-estatuarentzat, gobernuak historian zehar hura arautzeko ezarritako lege ugariak erakusten duten gisan. «Gorputzen politika» leloak aitortzen zuen, halaber, bizitza berriak sortzeko dugun gaitasuna dela-eta emakumeek gizonen baino esplotazio-molde askoz ugari, inbaditzaile eta umiliagarriagoak eta jasaten zailagoak pairatu ditugula. Gizonek kolektiboki eta «lanean dihardutela» egin diote aurre esplotazio kapitalistari; emakumeek, berriz, banan-banan ematen diote aurpegia, gizonen harremanetan, etxean, ospitaleetan erditu bitartean eta kalean, baita komentario eta eraso laidogarrien jomuga gisa ere.

Halandaze, feminismoa emakumeok «gorputz» gisa definituak izatearen kontrako iraultza zen, auto-sakrifikatzeko eta besteak zerbitzatzeko omen dugun prestasunaren arabera baloratuak izatearen aurkakoa. Ez genuen onartzen bizitzan espero genezakeen onena zera izatea, gizonen neskame eta sexu-zerbitzariak izatea eta estatuarentzat langileak eta soldaduak ekoiztea. Borrokatu ginelarik abortatzeko eskubidearen alde eta gutako gehienok erditzean bizi behar izaten ditugun molde basatien aurka, familia barruko eta familiaz kanpoko bortxaketaren aurka, kosifikatuak izatearen aurka eta baginako orgasmoaren mitoaren aurka, or-

duan hasi ginen ulertzen nola moldatu dituen gure gorputzak lan-banaketa kapitalistak.²²

Mugimendu feministaren politikaren zati handi bat abortuaren aldeko borrokan ardaizu zen, baina emakumeei ezarritako arauaren aurkako iraultza hori baino sakonagoa izan zen. Zalantzan jartzen zen, baita ukatu ere bai, ez bakarrik ama izateko betebeharra, baita «feminitatearen» kontzeptua ere. Mugimendu feministak desnaturalizatu zuen feminitatea. Izan ere, emakumetasunaren eraikuntza normatiboaren aurkako kritika Judith Butlerrek generoa antzezpena edo «*performancea*» dela argudiatu baino askoz lehenago abiatu zen. Heteronormatibitateari, sexu-bitartasunari eta «emakumetasunari» —kontzeptu biologiko gisa ulertuta— egindako kritikak —eta, batez ere, «biologia patu gisa» arbuiatzea— *Genero nahasmendua* (1990) eta Butlerren ondorengo ekoizpen teorikoa baino urte batzuk lehenagokoak dira, baita queeren, intersexualen eta trans pertsonen eskubideen aldeko mugimenduak sortu aurretikoak ere. Feministek «emakumetasunaren» amaierari buruz idatzi zuten, baina ez hori bakarrik; lana ere egin zuten xede hori lortzeko. 1968ko urtarrilaren 15ean, Washington DCn, Kongresuaren irekieraren lehen egunean, Shulamith Firestonek gidatutako feminista erradikalek ekintza sinboliko bat egin zuten: zuzien argitara egindako hileta-prozesio bat antolatu zuten, eta «Emakumetasun Tradizionalaren Ehorzketa» deitu zioten, zeina «zendu» baitzen, panfletoan irakur zitekeenez, «3.000 urtez gerragileen egoa indartu eta gerrari lagundu ostean».²³

22 «Gorputzen politika»ren esanahiari eta garrantziari buruz gehiago jakiteko, ikus Robin Morgan, ed., *Sisterhood Is Powerful* (1970) eta Cherríe Moraga eta Gloria Anzaldúa, ed., *This Bridge Called My Back* (1981).

23 Ekitaldi hartako otoitza Kathie Amatniek-ek irakurri zuen. Horri buruz gehiago jakiteko, ikus Chicago Women's Liberation Union Herstory

Horrez gain, ezkontza-azoken aurka azaldu ziren, «eder» izateko obligazioa eta konpultsioa salatu zuten eta bere burua «sorgin» izendatu zuten.

Feministek arbuia egiten zuten sexu-askatasun gisa ageri zen sexualitate zapaltzailea. Era berean, «autolaguntzarako mugimendu bat sortu zuten; 1975. urterako, emakumeek kontrolatutako hogeita hamar klinika zabaldu zituzten Estatu Batuen luze-zabalean, emakumeei haien gorputzari buruzko informazioa emateko eta bai AEBn bai atzerrian osasuna politika feministen erdigunean jartzeko. Mugimendu horri esker, milaka emakume beren gorputzak 'autoaztertzen' hasi ziren».²⁴ Hala, emakumeen askapenerako mugimenduak lagundu zigun gure gorputzen inguruan beti sentitu izan genuen lotsa gainditzeko; batez ere, gure organo genitalen ingurukoa. Bestalde, ordura arte tabutzat jotako gaiei buruz berba egiten ere irakatsi zigun, esate batera, hilekoari eta menopausiari buruz. Mugimendu feministaren bidez, gerraosteko belaunaldiko emakume ugari «sexu-heziketa» jaso zuten, eta, hala, sexualitateak dimentsio guztietan dituen ondorio politikoak ulertzera iritsi ziren. Gizonekiko in-

Project, «Funeral Oration for the Burial of Traditional Womanhood», <https://www.cwluherstory.org/classic-feminist-writings-articles/funeral-oration-for-theburial-of-traditional-womanhood>. Ekitaldiaren kontakizun osatuagoa aurkituko duzu Women's Studies Resources-en Herstory Proiektuan, Duke Special Collections Library (<https://repository.duke.edu/dc/wlmpc>).

- 24 Aipu hori autolaguntzarako mugimenduaren sortzaile nagusietako bat den Carol Downer-ek 2015eko urtarrilean bidali zidan eskutitz batetik hartu dut. Nik abortuaren aldeko borrokaren inguruan mugimendu feministak egindako politika kritikatu, eta Downerrek kritika hura zuzendu zuen, gogorarazi baitzidan 1970eko hamarkadan feminismoa ez zela arazo bakar batean zentratzen zen mugimendu bat. Hori gero etorri zen, hamarkada haren amaieran, «hautatu ahal izatearen aldeko» estrategia garatzeak mugimenduaren ikuspegia mugatzea ekarri baitzuen, abortu-eskubidea defendatu ahal izateko. Horri buruz gehiago jakiteko, ikus baita Bost Women's Health Book Collective kolektiboaren, *Our Bodies, Ourselves: A Book by and for Women* (1976).

terakzioak ere aztertu genituen, eta agerian geratu zen haien indarkeria, baita gu infantilizatzeko eta behe-titzeko egiten zuten ahalegin etengabea ere; esate batera, ingelesez *baby*, *chick* eta *broad* deitzen ziguten,²⁵ eta sexuarekin lotutako *quid pro quo*-a espero zuten mesede ororen truke, adibidez, hitzordu batean gure afaria ordaintzeagatik.

Kontrazeptibo seguruak eskuratzeko eta nahi gabeko haurdunaldiei uko egiteko aukera izateko eskaerarekin, gizonetikiko eta estatu eta kapitalarekiko independentzia aldarrikatu genuen, zeinek mendetan zehar izututa eduki baikaituzte, lege eta praktika zigortzaileen bidez. Nolanahi ere, gure borrokak erakutsi du ezin dugula aldarrikatu gure gorputzen jabetza gure bizitzen baldintza materialak aldatu gabe. Abortuaren aldeko borrokak muga bat zuen: haren helburuen artean ez zegoen emakume guzti-guztiok aukeratu ahal izatea zenbat seme-alaba izan nahi ditugun. Akats politiko bat izan zen, Estatu Batuetan hainbat eta hainbat emakumeri ukatu baitzaie ama izateko eskubidea, lehenik eta behin legearen bidez, esklabotzaren garaian, baita gerora ere, baliabide faltaren eta esterilizazio behartuaren bidez. 1920 eta 1930eko hamarkadetan milaka emakume eta gizon beltz esterilizatu zituzten, baita ondorengo urte luzeetan ere, eugenesiaren aldeko kanpaina batean; «arraza ergelen» erreprodukzioa galaraztea zuten helburu, eta immigrante ugari ere kategoria hartan sartzen zituzten.

Langile-klaseko emakume zuriak ere antzutu zituzten Depresio Handian, «arraza ergeltzat» jotzen zirenean; horrela izendatzen zituzten gizarte-langileek eta medikuek promiskuotzat jotzen zituzten emaku-

25 Hitzez hitz: «lume», «txita» eta «emakumea» (azken hori modu gutxiesgarrian erabilia) [Itzle. oh.].

meak, baita ezkontzaz kanpo haurrak izango zituztela begitantzen zitzaienak ere (Le Sueur 1984). 1930eko hamarkadan, Estatu Batuetako hango eta hemengo agintariek gogo onez hartu zituzten naziak egiten ari ziren programa eugenikoak. AEBko gobernu-funtzionarioei iruditzen zitzaien Alemania nazia beren plan eugenikoak egikaritzen ari zela, haiek ere antzutzea goersten baitzuten gizarte hobeko bateranzko bide gisa. Zalantzarik gabe, AEBko agintariek programa haiek babesten jarraituko zuketena, baina Bigarren Mundu Gerran parte hartzen hasi ziren, eta nazismoak ospea galdu zuen (Nourse 2008, 127-33). 1947an, Gobernuak amaitutzat eman zuen pertsona «ez-egokiak» antzutzeko plana; alabaina, gerora ere emakumeak esterilizatzen jarraitu dute. 1960ko hamarkadan, baita 1970ekoan ere, gizarte-laguntza jasotzen ari ziren emakume askok antzutzea onartu behar izan zuten, dirulaguntzak jasotzen jarraitzearen ordainetan. No *Más Bebés* (Tajima-Pena 2015) dokumentalean, ehunka emakume immigranteren egoera larria jaso zuten; beren onespenez gabe antzutu zituzten, 1960ko hamarkadan eta 1970ekoaren hasieran, Los Angeles County-ko Hego Kaliforniako Unibertsitateko zentro mediko batean, eta haietako asko urte anitzen buruan ohartu ziren egin zietenaz, konturatu zirenean ezin zi-rela berriro haurdun geratu.

Garai hartan, mugimendu feministak akats bat egin zuen: ez zituen lotu abortuaren aldeko borroka eta emakumeen bizi-baldintza materialak aldatzeko borroka; adibidez, 1960ko hamarkadaren amaieran ez zen mobilizatu AEBko gobernuak Mendekotasuna duten Haurrak dituzten Familien Laguntzaren aurka egin zuen eraso politikoaren kontra. 1930etik aurrera, programa hark estatutik dirua jasotzeko aukera eman zien

lanik eta senarrik gabeko emakumeei. Bada, mugimendu feministak ez zuen parte hartu gizarte-laguntzen aldeko borrokan, eta hori bereziki problematikoa izan zen, diskurtso ofizialean gizarte-laguntza beti arrazializatua ageri baitzen, nahiz eta onuradun gehienak emakume zuriak ziren. Edonola ere, emakume beltzak ikusgarriagoak ziren, gehiago borrokatzen zirelako eta hobeto antolatuta zeudelako; izan ere, giza eskubideen aldeko mugimenduetatik eta Black Power mugimendutik jasotako indarra baliatzen zuten. Hain justu ere, emakume beltzak izan ziren gizarte-ongizateko programaren barruan eskainitako baliabideak areagotzeko eta hark jendartean zuen irudia aldatzeko borroka gidatu zutenak. Baina haien mezuak —«ama oro emakume langile bat da» eta haurrak haztea gizar-teari egindako zerbitzu bat da— emakume guztiengana iritsi behar zukeen.²⁶

Halaz ere, dirulaguntzak jasotzen zituzten amen borrokak ez zuen sekula izan estatuak programaren aurka eta baita emakumeen kontra ere abiatua zuen gerra latz hura eragozteko adinako babesik, eta horrek zorigaiztoko ondorioak izan zituen komunitate beltzarentzat. Dorothy Robertsek idatzi bezala ([1997] 2017, 202-22), gizarte-laguntzen aurkako gerrak sortu zuen ama beltz ezkongabearen irudia —gizarte-laguntzen mendeko «bizkarroia», crackzalea, familia disfuntzionalen sortzailea—, eta horrek kartzelatze masiboaren politika justifikatzeko balio izan zuen.

Mugimendu feminista ez zen gai izan ezein emakumeri bermatzeko ez zitzaiola ukatuko haurrak

26 Gizarte-laguntzen alde emakumeek egindako borrokari buruz eta haien aurka instituzioek eta komunikabideek egindako kanpainaren inguruan gehiago jakiteko, ikus Milwaukee County Welfare Rights Center, *Welfare Mothers Speak Out* (1972) eta Ellen Reese, *Backlash against Welfare Mothers* (2005).

izateko eskubidea bere bizi-baldintza materialetan oinarrituta; bestalde, mugimendu feministak «aukera» gisa irudikatu zuen abortua. Horrek emakume zurien eta beltzen arteko zatiketa eragin zuen, berriz errepikatu behar ez duguna. Eta horregatik, besteak beste, emakume beltz ugari feminismotik aldendu ziren, eta ugalketaren alorreko justiziaren aldeko mugimendu bat antolatu zuten; hain zuzen ere, azpimarratzen zuten ezinbestekoa zela bi borrokak lotzea, ugalketaren ingurukoa eta justizia ekonomikoaren aldekoa.²⁷

Dakusagunez, #metoo mugimenduan ere antzeko dinamika sortzen ari da; berriz ere, emakume ugari ez dira ohartzen sexu-indarkeria egiturazko arazo bat dela, ez gizon gaiztoen larderia. Egiturazko arazo bat dela adierazteak esan nahi du emakumeok sexu-abusuak jasateko konfiguratuta gaudela, gutako gehienok ezinbestean bizi dugun egoera ekonomikoaren ondorioz. Zalantzarik gabe, emakumeok soldata handiagoak izango bagenitu, zerbitzariak eskupekoen beharrik ez balute errenta ordaintzeko, zinema-zuzendari eta -ekoizleek ezingo balute erabaki haiengana lan eske doazen emakume gazteen etorkizuna, bertan behera utzi ahal izango bagenitu abusuzko harremanak eta lanak, non sexualki jazarriak baikara, orduan bai, aldaketa bat ikusiko genuke. Alabaina, hori ez da emakume gehienen errealitatea. Egia da, bestalde, ekonomikoki mendekoak ez diren emakumeek ere abusuzko egoeretan jarraitzen dutela; izan ere, geure burua balioesteko garaian kontuan hartzen duguna

27 SisterSong-en webgunean azaltzen den bezala (<https://www.sistersong.net/reproductive-justice>), ugalketaren esparruko justiziaren aldeko mugimendua 1994an sortu zen. Kairon izatekoa zen Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia prestatzen ari zirelarik, Chicagon elkartu zen emakume talde batek erabaki zuen emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak ezin zituela ordezkatu emakume beltzen eta beste jende marjinalizatu batzuen interesak.

zera da, gizonei ematen diegun atsegina; horretara ohituak gaude. Ez gaituzte entrenatu geure burua balioesteko gure ekintzetan oinarrituta, gure lorpenetan. Hori baldintzapen-prozesu luze baten parte da, oraindik ere guran eragina duena. Mugimendu feminista inflexio-puntu bat izan da. Aldatu eta balioetsi egin du emakume izateak esan nahi duena. Baina balioespen horrek ez du ekarri segurtasun ekonomikorik. Aitzitik, gure pobrezia hazi egin da gure autonomiarekin batera, eta horregatik ikusten ditugu gaur egun emakumeak bi edo hiru lan desberdinetan, baita ama subrogatu gisa beharrean ere.

Testuinguru horretan, feminista batzuek prostituzioa debekatzeko kanpaina bat abiatu dute, jarduera bereziki umiliagarri eta biolentoa delakoan, baina kanpaina horrek kontrako eragina du. Sexu-lana bereziki umiliagarritzat seinalatzeak lan horretan diharduten emakumeei balioa kentzen laguntzen du, baita haiei errua egotzen ere, eta ez die bestelako aukera errealki eskaintzen. Ezkutatu egiten du ezen, biziraupenerako baliabide egokien faltan, emakumeek beti saldu behar izan dituztela beren gorputzak, eta ez soilik burdeletan eta kalean. Ezkontzaren barruan ere saldu ditugu gure gorputzak. Lantokian ere saldu ditugu gure gorputzak, dela lanpostua mantentzeko, dela lan bat lortzeko, mailaz igotzeko edo ikuskatzaile batek jazarriak ez izateko. Geure burua saldu dugu unibertsitateetan eta beste kultura-erakunde batzuetan, eta geure burua saldu dugu, ikusi dugun bezala, zinemagintzan. Bestalde, emakumeek beren senarrei laguntzeko ere jardun dute prostituzioan. Mendebaldeko Virginian, adibidez, ikatz-meategiak zeuden eskualdeetan, urte luzez prostituzio-sistema informal bat egon zen, zeinean emakumeek beren gorputzekin ordaintzen baitzuten

beren senarrek enpresarekin zituzten arazoak; hala, ziurtatzen zuten ez zituztela gizonak kaleratuko, edo haurrei jaten eman ahal izango zietela senarra gaixotu eta ikatza atera ezinik zegoenean, edo kreditu bidez ordaintzen jarraitu ahal izango zutela enpresaren dandan, familiaren zorrak pilatzen zirenean. Kasu haietan guztietan, emakumea goiko solairura gonbidatzen zuten, zapatak probatzera, eta gora igo eta gela bat aurkitzen zuten, etzaleku batekin. Emakume zaharrenek berrienak ohartarazten zituzten goiko solairura ez joateko, baina beharizana beti nagusitzen zen.²⁸

Onartu behar dugu, halaber, badirela diru-sarrera bat lortzeko moduak, prostituzioa baino umiliagarriagoak direnak. Esate batera, gure burmuinak saltzea gure baginarako sarbidea saltzea baino arriskutsuagoa eta umiliagarriagoa izan daiteke. Prostituzioa kriminalizatzeko eskaerak, edo bezeroei zigor gogorragoak jartzekoak, are gehiago biktimizatzen ditu gure komunitateko pertsonarik zaugarrienak, eta immigranteak deportatzeko aitzakia bat ematen die immigrazioaren alorreko agintariei. Horrek ez du esan nahi ez gureekin borrokatu behar sexu-lanaren kondizioak hobetzeko eta, batez ere, eraikitzeko gizarte bat non ez baiten beharrezkoa izango gure gorputzak saltzea. Mundu zabalean, sexu-langileak horren alde borrokatzen ari dira.²⁹ Are gehiago, emakumeak gizartean

28 Ikus Michael Kline eta Carrie Kline, «Esau in the Coalfields: Owing Our Souls to the Company Store», eta Michael Kline, «Behind the Coal Curtain: Efforts to Publish the Esau Story in West Virginia» eta «The Rented Girl: A Closer Look at Women in the Coalfields», in Harris (2017, 5-25, 27-30, 38-45).

29 Horri buruz gehiago jakiteko, ikus Mac eta Smith (2018). Honela diote liburuaren hasieran: «Sexu-langileak nonahi daude. Zure auzokoak gara. Kanean goazela, zure ondotik pasatzen gara. Gure haurrak zuen haurren eskola berera doaz...». «Liburu hau», diote, «ez da sexu-lanarekin gozatzeari buruzkoa. Ez dugu argudiatuko sexu-lanean jarduteak 'ahalduntzea' dakarrenik... Gure asmoa ez da sexua erosten duten

botere gehiago eskuratzen doazen heinean, sexu-langileen bizipenak eta kondizioak ere aldatzen ari dira. Sexu-langileak ez dira gizonen jostailu hutsak, haien desira sadikoen biktimak, irabaziak ebasten dizkieten proxeneten mendekoak. Emakume askok haurren eskola ordaintzeko erabiltzen dute sexu-lanetik eskuratutako dirua; beste emakume batzuekin bizi eta antolatzen dira, kooperatibak eratzen dituzte, lan-baldintzak eta prezioak adosten dituzte, eta segurtasuna eta babeska eskaintzen diote elkarri. Sexu-lana soldatak osatzeko modu bat da, hezkuntza- eta osasun-gastuak ordaintzeko bide bat. Emakume askorentzat, lanaldi partzialeko lan bat da, etxeko lanen jarduna edo soldatapeko lana osatzen duena. Sexu interaktiboa, Internet web-kamera gisa erabilia egiten dena, etxeko lanen zirrikituetan txerta daiteke. Dena ondo lotuta uzteko, izan gaitezen abolizionistak, baina ez soilik sexu-lanaz den bezainbatean. Esplotazio-molde guztiak abolitu behar lirateke, ez soilik sexu-lana. Berrero ere, feminis- tak garen aldetik, gure zeregina ez da beste emakume batzuei esatea zer esplotazio-molde diren onargarriak, baizik eta gure aukerak zabaltzea, geure burua ezein modutan saldu behar ez izateko. Horretarako, erreproduktzioarako baliabideak aldarrikatzen ditugu, lurra, ura, ondasunen eta ezagutzaren ekoizpena, eta erabakiak hartzeko gaitasuna, hau da, erabakitzeko zer-nolako bizitzak nahi ditugun eta zer-nolako gizakiak izan nahi dugun.

Hori genero-identitatearen auziari ere bada- gokio. Gure existentziaren baldintza ekonomiko eta sozialak aldatzeko borrokatzen ez bagara, ezinez- koa zaigu gure gizarte-identitatea aldatzea. Izan ere,

gizonekin mugimendu bat sortzea». «Sexua saltzen duten pertsonen segurtasuna eta biziraupena, hori da gu kezkatzen gaituena» (2-3).

gizarte-identitateak ez dira esentzialak, finkoak, izoztuak, behin betikoz zehaztuak, ezta funtsik gabeko errealitateak ere, infinituki aldatzen direnak. Eta ez dira definitzen soil-soilik sistema kapitalistak guri inposatutako arauen bidez. Gizarte-identitateak—genero-identitateak barne—eraikitzeke orduan, zeresana dute klaseak, genero-harremanek eta gure jatorrizko komunitateetako borrokek. Adibidez, «emakume» izateak niretzat duen esanahia eta nire amarentzat zuena oso bestelakoak dira, gutako asko borrokatu garelako ezkontzarekin, lanarekin eta gizonekin dugun harremana aldatzeko.³⁰

Ezin dugu pentsatu sistema kapitalistak erabat definitzen duenik gure identitate soziala. Testuinguru horretan, mugimendu feministaren historia eredu-garria izan daiteke. Feminismoa emakumeoi ezarri zaizkigun ohituren, arauen eta jokabide-kodeen aurkako borroka luze bat izan da, eta, denboraren joanean, borroka horrek nabarmen aldatu du emakume izatearen esanahia. Lehenago ere azpimarratu dudanez, feministak izan ziren «feminitate» betiereko eta naturalaren mitoa iraultzen lehenak. Emakumeen askapena zera zen, emakumeentzat identitate ireki eta aldakorrago bat sortzeko engaiamendua, hau da, etengabe birdefinitzeko eta berreraikitzeke aukera emango zuen identitate bat. Beraz, trans mugimenduak 1970eko hamarkadatik eta are lehenagotik abian den prozesu bati jarraitzen dio. Butlerrek jendarteratu duena ez da berria. Marxismoak eta XX. mendeko filosofia gehienek

30 «Identitateari» eta identitate-politikari buruz gehiago jakiteko, ikus bell hooks: «The Politics of Radical Black Subjectivity» eta «Postmodern Blackness». In *Yearning* (1990) 15-32. «Erabateko alde dago», dio, «bi hauen artean: alde batetik, 'esentzia' beltz bat dagoela onartzen duen ideia gaitzestea; bestetik, nortasun beltza erbestealdiaren eta borrokaren bizipen espezifikoa bidez eratu dela onartzea» (29).

—batez ere existentzialismoak, Butlerrengan eragina izan duen doktrineta bat— subjektu finko eta esentzial baten ideia kritikatu dute. Klase-harremanek gure gorputzak moldatzen dituzte, baita faktore etnikoek eta bizitzan hartzen ditugun erabakiek ere.

Hortaz, guri esleitutako identitateak zalantzan jartzeko borroka ezin da bereizi gure bizi-baldintza sozial eta historikoak aldatzeko borrokatik eta, batez ere, hierarkia eta desberdintasun sozialak ahultzeko ahaleginetik. Espero dut transexualen eta intersexualen mugimenduek iraganeko irakaspen eta akatsetatik ikastea, ulertzeko ezin dugula nor bere burua definitzearen alde borrokatu baldin eta aurrez ez badugu aldatzen lan egiteko modua, guk sortutako aberastasuna erabiltzeko modua eta hura baliatzeko dugun aukera. Helburu horiek ezin dira lortu soilik gure izenak eta gure gorputz-itxura aldatuta. Horretarako, beste jende batzuekin elkartu behar dugu, gure botere kolektiboa berreskuratzeko, erabakitze nola bizi nahi dugun, zer-nolako osasuna eta hezkuntza izan behar dugun, zer-nolako gizartea eraiki nahi dugun.

Garrantzitsua da ere azpimarratzea jada transiziozko mundu batean bizi garela, non esanahiak eta definizioak etengabe aldatzen baitira eta anbiguoak eta polemikoak baitira. Inor ez da «emakumea» baino anbiguoagoa; identitate hori eraso anitzen erdigunean dago, zein bere preskripzio normatiboekin datorrena. Nahiz eta sexuaren araberako lan-banaketa desorekatua den oraindik, lehen gizonezkoenak izandako lanpostuetan emakumeak sartzeak eta lana etengabe gero eta teknologikoagoa izateak ezaugarri femeninoen azpigarapena ekarri dute, emakume-gorputzetik itzurtzea, nolabait esan, eta hori emakumeen estetika-eredu berrietan ere ikus daiteke, orain mutil-itxura nabarmentzen baita,

kurbaz beteriko gorputzaren kontrakoa, zeina gizonen desira gorena izan baitzen 1960ko hamarkadara arte.³¹ Honezkerok, lanbide askotan, genero-eredu «femenino» bat onesteak nork bere burua behehitzea esan nahi du —nola unibertsitatean hala arte-galerietan eta informatika-geletan—, kapitalismoak generorik gabeko lan-indarra behar duelako.³² Ez da arau unibertsal bat, noski, baina egia da ia ezein lan-eremutan ez dutela eskatzen (esate batera) 1950eko hamarkadan goraitzen zen emakume-eredua. Lanaren ikuspegitik, generoari dagokionez aldakorra den mundu batean bizi gara dagoeneko, non aldi berean femeninoak eta maskulinoak izatea eskatzen baitzaigu. Zalantzarik gabe, ezkontza, amatasuna eta etxeko lanak —garai batean identifikatzen gintuzten jarduerak— ez dira nahikoak, ezta kapitalaren ikuspuntutik ere. Emakumeok independenteak eta eraginkorrak izatea espero da, eta etxetik kanpora lan egitea. Gero eta gehiago, gizonak bezalakoak izatea espero da.

Aldi berean, emakumeak bizitza sozial eta politikoaren ia alderdi guztietan egoteak eragina du lanaren irudi publikoan eta erakundeen erabaketan. Lana erotitzeko balio du, eta egiten duguna baliagarria eta eraikitzailea den irudipena sortzen du. Bestelakoan oso suntsigarriak diren politikak humanizatzen ditu. Gerraren antolamenduak berak ere onberagoa dirudi buru militarra emakumezkoa denean, gaur egungo Alemanian bezala. Emakume gisa, oso zaurgarriak gara manipulazio horren aurrean, ez gaudelako ohitu-

31 Emakumeen edertasun-eredu berrien azterketa sakon baterako, ikus Bordo-ren *Unbearable Weight* (1993).

32 *Motherism* (2014, 142-43) liburuan, Lise Haller Baggesen artista daniarrak ama gisa «armairutik irtetea»-ri buruz dihardu, edo, berak dioen bezala, «amatasuna ate ondoan uztea»-ri uko egiteari buruz, zer eta artearen munduan, non ama *persona non grata* gisa ikusten baita.

ta balioetsiak izatera eta gure lana aitortua eta saritua ikustera. Labur esanda, langileen eta emakumeen identitateak aldaketa handi bat bizitzen ari dira subjektu sozial eta politikoak diren aldetik, eta aldaketa horiek kontuan hartu behar ditugu «identitate-politika» aztertzen dugunean. Gobernuaren eta beste erakunde batzuen eskuetan, «identitate-politika» arazo bat da, talde desberdinetan bereizten gaituelako, bakoitza eskubide-multzo batekin —emakumeen eskubideak, gayen eskubideak, indigenen eskubideak, transen eskubideak—, kontuan hartu gabe zer oztopok eragozten duen gu guztiok bidezketasunez tratatzea. Kritikoak izan behar dugu historikoak eta eraldatzaileak ez diren identitate-kontzeptuekin, ez baitigute uzten ikusten gu esplotatzeko erabiltzen dituzten molde komun eta desberdinak. Baina beste era batean heldu behar diegu esplotazio-molde zehatzetan errotuta dauden gizarte-identitateei, zeinak oraindik ere badirauren borroka-historia baten bidez birmoldatuak izan baitira; izan ere, gure identitatearen jatorria bilatzeko asmoz esplotazioaren eta borrokaren bidez osatutako historiara jotzen badugu, oinarri komun bat aurkituko dugu, eta, kolektiboki, etorkizunaren ikuspegi ekitatiboago bat eratu ahal izango dugu.

HIRU

HIRUGARREN HITZALDIA GORPUTZA GAUR EGUNGO KRISI ERREPRODUKTIBOAN

Gure gorputza aldatzea, gure sexualitatearen eta ugaltze-gaitasunaren kontrola berreskuratzea, gure bi-zi-baldintza materialak aldatzea da. Jakin nahi badugu zer neurritan gidatu behar dituen printzipio horrek gure jarduera indibidual eta kolektiboak, Estatu Batuetan bizitzen ari garen krisiari begiratu behar diogu; izan ere, nahiz eta azken mende erdian feminismoaren aldeko aktibismoa oso bizia izan den, une honetan krisi betean gaude. Krisi horrek hainbat alderdi ditu, hala nola sexuala, erreproduktiboa, ekologikoa, medikoa eta kognitiboa, guztiak ere garapen ekonomiko eta sozialetan errotuak; garapen horiek drastikoki murriztu dituzte eskura ditugun denbora eta baliabideak, eta areagotu egin dute etorkizunaren eta jasaten ari garen indarkeriaren aurrean dugun antsietatea. Gaur den egunean, Estatu Batuetan oso-osoan betetzen da kapitalismoaren amets zaharra: laneguna luzatzea, soldatak murriztea eta lan ordaingabe metatua maximizatzea. Izan ere, Marxek «kapital-metaketaren lege orokorra» deitu zuena —hau da, langileen pobretze erlatiboa, biztanle-multzo gaineratiko edo baztergarriaren sorrera etengabea, lanpostu eskuragarri gehien des-

profesionalizazioa, langabetu-kopurua handia izanik ere enplegua dutenek egiten duten gehiegizko lana, «lan gehiago ekartzera behartuak izanik» (Marx 1990, 793)—, horixe da bizitza ekonomiko eta soziala gobernatzen ari den joera, baita horrekin batera gertatzen ari diren beste arazo batzuk ere, hala nola pobrezia masiboa, etxegabetasuna eta desberdintasunen eta indarkeria instituzionalaren areagotzea.³³

Izan ere, bizitza, pertsona gehienentzat, eta batez ere emakumeentzat, naturaren egoeraren deskribapen hobbestarrera gerturatzen da gaur egun: desatsegina da, basatia eta laburra. Estatubatuar dirudunek laurogeita hamar urte ingurura iritsi ahal izango dute; gainerakoentzat, ordea, bizi-itxaropena gero eta txikiagoa da, eta suizidioak eta droga-gaindosiagatiko heriotzak ere markak hausten ari dira.³⁴ Gero eta suizidio gehiago daude biztanle-sektore guztietan, baita emakumeen artean ere. 2017an, Estatu Batuetan 47.000 suizidio erregistratu ziren, eta ez dugu sekula jakingo —zaharren artean— zenbatek utzi zuen bere burua hiltzen, horren erregistrorik utzi gabe, egunero-egunero pobrezia eta bazterketari aurre egiten ibili beharrak ez duelako batere zentzurik haientzat. Heriotza horiek gehitzen badizkiegu droga-gaindosiak, indarkeria armatuak, poliziak eta tratatu gabeko gaixotasunek eragindako beste milaka heriotzari, ikuspegi kezka-

33 Marx, *Kapitala*, 1. lib., 7. at., 25. kap.

34 Shehab Khan-ek *The Independent*-en azaldu bezala (2018ko azaroaren 29an), «Estatu Batuetan, suizidioek azken urteetako marka hautsi dute, eta horrek bizi-itxaropena murriztea eragin du». Gaindosiak eragindako heriotzak ere asko areagotu ziren; 2017an, adibidez, 70.000 lagun baino gehiago hil ziren. Gaixotasunak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Zentroaren arabera, AEBn 700.000 pertsona baino gehiago hil ziren 1999 eta 2017 bitartean droga-gaindosiagatik (opioa). Batez beste, 130 pertsona hiltzen dira egunero gaindosiagatik.

rri bat agertzen zaigu, gure lan politikoan alde batera utzi ezin duguna.

Testuinguru horretan, krisiaren alderdi batzuk azpimarratu nahi ditut, agenda feminista birpentsatzeko bereziki garrantzitsuak direnak. Lehenik eta behin, honako hauek: gehiegizko lana, zorrak, segurtasunik eza, etengabeko tentsioa eta nekea, beti hurrengo zereginen pentsatu beharra... Horrek guztiak osasun-arazoak eragiten ditu; depresioa ere eragiten du, eta, ikusi dugun bezala, baita suizidioen gorakada ere.

Nazio Batuek eta erakunde feminista liberalek begi onez ikusi eta gogo onez ospatzen dituzte emakumeek askapenerantz egin omen dituzten urrats handiak; alabaina, emakume gehienek egoera ezin beltzagoa bizi dute. Jakina, familiarekiko eta gizonenganako dugun lotura ez da inondik ere iraganekoa bezain estua. Familia tradizionala ez da jada araua: ezkontza-kopurua minimo historikoetara iritsi da, eta emakume gehienek soldatapeko lan bat dute, are bi ere, baita haur txikiak dituztenek ere. Baina lortutako autonomia erlatibo hori oso garesti ordaintzen ari gara. Lantokian ez da ezer aldatu. Jakina denez, lantoki gehienetan suposatzen dute langileek ez dutela familiarekin zerikusia duen konpromisorik edo, bestela, baten bat dutela etxean hango lanez arduratzeko. Nolanahi ere, emakumeen % 40 beren familien hornitzaile bakarrak dira, eta gainerakoek soldatapeko lanetan ari diren bikotekideak dituzte; beraz, etxe-ko lanak ez dira desagertzen etxetik kanpora lanean dihardugun bitartean. Lan horiek gauez egiten dira, asteburuetan, atsedentzeko eta beste jarduera batzuk egiteko erabili beharko litzatekeen denboran. Horrek esan nahi du emakume askorentzat lan-asteak batez beste hirurogei eta laurogeita hamar ordu bitartean

dituela, Industria Iraultzaren goren unean bezala, eta haien laneguna goizeko seietan hasi eta gaueko hamarretan bukatzen dela. Hango eta hemengo txostenetan, emakumeek behin eta berriro adierazten dute ez dute-la ia denborarik bere buruarentzat eta nerbio-krisi bat izateko zorian bizi direla, beti kezketan; etengabe sentitzen direla presaturik edo urduri edo errudun, batez ere ez dutelako seme-alabekin egoteko denbora nahikorik, eta estresari lotutako osasun-arazoak dituztela, depresioarekin hasten direnak. Halarik ere, emakume gehienek lehen egiten zirenak baino lan gutxiago egiten dituzte etxean, eta horrek esan nahi du oinarrizko zeregin batzuk egin gabe geratzen direla, ezein zerbitzuk ez duelako ordezkatu garai batean emakumeek egiten zuten lana. Bien bitartean, gobernuek eten egiten dituzte arazo horiek konpontzeko baliagarriak diren programak.

Espero genezake etxeko krisia emakumeek beren lanpostuetan lortzen duten gogobetetasunarekin konpentsatzea. Alabaina, emakume gehienentzat etxetik kanpora lan egiteak zera esan nahi du, gorputzak eta buruak suntsitzen dituzten lanpostuetan harrapatu-rik egotea. Izan ere, etengabe zutik egon behar izaten dute, denda, aireportu eta supermerkatuetan, askotan bakar-bakarrik, bezeroen zain, beren soldatekin erosi ezin dituzten produktuak saltzen; edo pantaila batera kateaturik egoten dira, kutxa antzeko eta leihorik gabeko bulegoetan. Etxetik kanpora lan egiteak esan nahi du hartzaindegia eta garraioa ordaintzea eta janari lasterraren mende egotea, hain justu noiz-eta horrekin adi ibili behar genukeen garaiotan, pestizidak eta produktu transgenikoak oso hedatuta daudelako eta gure inguruan obesitatea asko hazten ari delako, baita haurren artean ere. Horri gehitu behar zaio lanpostu

askotan ez dituztela ordaintzen gaixotasun- eta amatasun-bajak, eta haurtzaindegiak batez beste 10.000 dolar balio duela urtean.

Horrek ez du esan nahi etxetik kanpoko lanik hartu behar ez dugunik. Esan nahi duena da ohartu behar dugula «hautatzeko aukera» eta gure gorputzen gaineko kontrola ez ditugula erdietsiko soilik haurkopurua murriztuta edo umerik ez izateko eskubidea geureganatuta edo soldata baten truk lan eginda. Esan nahi du indarra bildu behar dugula eta estatua behartu behar dugula gure familiei eta komunitateei ezinbestekoak diren baliabideak ematera, bi lan egin behar ez izateko, etengabe diruaz arduratu behar ez izateko, edo gure haurrak subrogatu edo adopzioan eman behar ez izateko, ezin mantendu ditugulako. «Etxetik kanpora joatea» eta «berdintasunaren alde borrokatzea» ez da nahikoa. Baliabideak geureganatu behar ditugu berriro, lan gutxiago egin, gure bizitzen kontrola berreskuratu eta gure gain hartu gure familiaz harago doan munduaren ongizatearen erantzukizuna.

Bestalde, pobrezia ekonomikoari beste pobrezia-mota bat gehitu behar zaio, alegia, edonora begiratuta ere heriotzaren seinaleak erakusten dizkigun mundu batean bizitzearen pobrezia. Zeruak txoriz husten ari dira, ibaiak isurtegi kimiko bihurtzen, eta ez dugu astirik maitasunerako, adiskidetasunerako, ikasteko. Kapitalismoaren erruz, bizitzari magiarik aurkitu ezinik gabiltza. Topaketa batean, *doula* gisa lan egin duen emakume bat ezagutu nuen.³⁵ Praktika hori justizia erreproduktiboaren aldeko mugimendutik dator, eta atzean datzan ideia da inoiz medikuntzaren

35 *Doulek* erditu behar duten emakumeei laguntzen betetzen duten rolaen garrantziaz gehiago jakiteko, ikus Alana Apfel, *Birth Work as Care Work* (2016).

aldetik tratu txarren bat jasan duten emakumeek ez luketela bakarrik joan behar ospitalera erditzera, beti laguntzaile batekin joan behar luketela. Garai batean erditzeko unean presente egoten zen komunitatea berreraikitzekeo urrats bat da. Bada, emakume hari galdetu zioten: «Zer da magia?». Eta erantzun zuen: «Zoaz eta ikusi emakume bat erditzen. Ez dago ezer magikoagorik: amaren erritmoak nola bat egiten duen haurrenarekin, hori magia hutsa da». Gaur egun, ostera, muntaketa-katean erditzen gara. Erditze-uneko denbora subjektibo eta objektiboari buruz ari zelarik, Meg Fox-ek (1989, 125-29) zioen gaur egun «erditze-denbora ere kontuan hartzen dela». Erditzea «ekoizpen huts» bihurtu da. Errendimenduan jartzen da enfasia, denborari eta mugimenduari buruzko analisi batean bezala. Jaiotzak ez dira sentitzen. Haurrak sentipenik gabeko gorputzetatik erauzten dira. Gaur egun, haurra egitea prozesu mekaniko huts bat besterik ez da.

Natura ere magikoa da. Egun batean lurzorua gorria da, eta hurrengoan kolore orotako loreak ematen ditu. Ezein zientziak ez du azaldu oraindik nola sor daitezkeen kolore horiek guztiak edo loreen forma horiek guztiak lurzoru beretik. Magia zera da, mundua sormen eta mugimendu betean. Inguruan dugun arren, ez gara ohartzen. Magia horrekin harremana izateko ahalmena galdu dugu. Pertsonen arteko erakarpena ere magikoa da. Errenazimenduko jakintsuek «esferen armonia» aipatzen zuten. Uste zuten maitasun-indar batek eusten ziola unibertsoari, zeinak grabitate-indarraren antzeko eragina baitzuen. Uste zuten «erakarpen»-indarrak leku egokian mantentzen zuela dena, eta hori hala zela bai pertsonen artean bai izarren artean. Unibertsoa bizirik dagoen zerbait gisa ikusteak, non den-dena elkarri lotuta baitago, gure

borroka indartzen du. Antidoto bat da ikuspegi zini-koa dutenen aurrean, zeinek esaten baitute alferriki dela mundua aldatzen saiatzea, «beranduegi» delako, «gauzak urrunegi joan direlako», eta hobe genukeela besteengana asko ez hurbiltzea, ezin garelako haiekin fida eta lehenik eta behin geuregan pentsatu behar dugulako.

Ez dira gutxi besteekiko eta naturarekiko harremana berreskuratzeko egiten ditugun ahaleginak. Emakumeak, batez ere komunitate indigenetakoak, hiri-ortuak eta hazi-bankuak erutzen ari dira, eta plazentak lurperatzen dituzte, lurrarekin duten lotura seme-alabei gogorarazteko. AEBko hiriguneetan ere ortuak eta denbora-bankuak hedatzen ari dira, baita komunagintzan jarduteko beste molde batzuk ere, lehen talde erradikalek soilik abiatzen zituztenak. Ohartzen ari gara lurrarekiko harremana galtzen dugunean baliabide ekonomiko bat baino askoz gehiago galtzen dugula. Estatu Batuetako natiboek beti jakin izan duten bezala, lurra galtzeak dakar gure ezagutza galtzea, gure historia, gure kultura. Marxek (1988, 75-76) onartu bezala, natura gure gorputz inorganikoa da, geure buruaren hedapen bat. Hortaz, lurraren heriotza gure heriotza ere bada. Baso bat mozten denean, itsasoak kutsatu eta milaka balea itsasertzera gerturatzen direnean, gu ere hiltzen gara. Horregatik, emakume-elkarte ugari belarrei eta landareei buruzko ezagutza-molde zaharrak berreskuratzeko lanean ari dira.

Halaber, gero eta hedatuago dago industriaren ia adar guztietan animaliei eragiten zaien sufrimendu basatiaren kontzientzia. Animaliak ere makina bihurtzen ari dira. Estatu Batuetako ukuiluetan —zeinek industria-instalazioen antza baitute, edo, hobe esanda,

animalien kontzentrazio-esparruena—, argia piztuta izaten dute nola egunez hala gauez, oiloek arrautza gehiago ekoitz ditzaten. Gauza bera gertatzen da urdangekin. Milioika animalia hazten dira gure elikagai izateko helburu bakarrarekin. Ez dira ikusten izaki bizidun gisa, baizik eta okela ekoizteko makina gisa; eta halako moldez daude diseinatuta, non batzuk ez baitira inoiz zutik jartzen hiltegia garraiatuak izan aurretik, hankek ezin diotelako eutsi gorputzeko okelaren pisuari.³⁶ Ez da harrizkoa hainbeste minbizi izatea gure artean. Lur pozoitu batean bizi gara eta jaiotzatik izugarriki torturatuak izan diren animaliak elikatzen ditugu, eta gero geure gorputzetan sartzen dugu haien agoniak sortutako pozoi guztia.

Arestian esan dudan bezala, gure desirak asetzearren milioika izaki biziduni eragiten zaien krudelkeria naziaren aurkako higuina sentitzen hasi gara. Animalien askapenerako elkarteak sortu izanak ekarpen garrantzitsua egin dio politika iraultzaileari, eta berebat gertatzen ari da mundu zabaleko gazte askoren artean hedatzen ari den isilpeko iraultzarekin, zeinak begetarianoak edo beganoak bihurtzen ari baitira, batzuk beharbada beren ongizateagatik, baina asko, berriz, gure haragi-gurariak eragiten duen sufrimenduak nazkatu.

Edozelan ere, asko dago egiteko. Gizarte-mugimenduak, borroka sozialak eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenak gorabehera, ezin izan diogu heldu gizarte estatubatuarraren hezurduraren oinarri den krisi nagusiarri, hots, mendeetako esklabotzak

36 Sunaura Taylor-ek zorrotz eta bortizki salatzen du *Beasts of Burden* (2017) liburuan hiltegia eraman aurretik landetxe industrialetan hazten dituzten milaka animalie eragiten zaizkien krudelkeriak; elikagai-industriaren oinarri den infernua aurkezteaz gainera, erakusten du nola animalien degradazioak «gizakien aurkako indarkeria deskribaezina ekarri» duen (107).

eta genozidioak utzi dituen ondorioak, zeinek kontinente honetan egiten den guztiari eragiten baitiote eta den-dena desitxuratzen, odolezko itsaso bat balitz bezala. Zer-nolako mugimendu feminista izango genuke, baldin eta agendaren lehen lerroan jarriko balu ez bakarrik arrazismoaren aurkako borroka, baita hura eragiten duten erakundeen aurkakoa ere, krimen sozial onartezina delako?

Arrazakeria-molde oro hain daude errotuak AEBko eta Europako gizarte zurian, ezen arrazakeria erauzteak prozesu iraultzaile luze bat eskatzen baitu. Baina mugimendu feminista bat arrazagatiko bazterkeria babesten duten politiken eta erakundeen aurka mobiliza daiteke, baita esklabotza-molde berriak laguntzen dituztenen aurka ere, zeina jasaten baitute ez bakarrik beltz jendeek, baita latinoamerikarrek eta komunitate immigranteek ere. Heriotza-zigorra ezeztatzearen alde borrokatuko den mugimendu bat ere behar dugu, baita gure bizitzaren alderdi guztiei eragiten dieten kartzela-sistema eta militarismoa deuseztatzearen aldekoa ere. Mugimendu feministak izan beharreko beste helburu bat da AEBn kartzelatutako milaka emakumeen askapena, ezein herrialdetako ehunekorik handiena emakumeen kasuan; batez ere «biziraupen-delituengatik» espetxeratzten dituzte, hala nola sexua saltzeagatik edo txekeak faltsutzeagatik, eta baita haurdunaldia gero eta gehiago kriminalizatzen ari direlako, diru-sarrera gutxiko emakumeen eta emakume beltzen kasuan.

Gure haurrekiko elkertasunean mobilizatuko den mugimendu feminista bat behar dugu, haien bizitzak ere egunero daudelako arriskuan. Adin guztietako haurren kontra gertatzen ari diren tiroketa zentzuga-beak direla eta, nolabaiteko ezinegona sumatzen da

eskoletan eta haurtzaindegietan; alabadere, ezinegon hori ez da armen kontrolari buruzko legeak aldarazteko adinakoa. Era berean, apaizek elizetan eta sakristietan hamarkada luzez egindako abusuak ere nolabaiteko arreta jasotzen ari dira. Haatik, feministak oraindik ez dira mobilizatu hurrek egunerokoan —eta maiz gurasoengandik babesteko aitzakiapean— estatu-erakundeetatik pairatzen duten indarkeriaren aurka, ezta etxean jasaten dutenaren aurka ere.

Gure kontrako indarkeria arbuiatzen badugu, arrazoi gehiagorekin arbuiatu behar dugu gure seme-alaben kontrakoa. Gure haurrak baloratu behar ditugu, gure kideztat harturik, ez gu baino beherago dauden izakitzat. Umeek oraindik ez dituzte barneratu heldu bilakatzen goazen heinean besteenganako gure harremanak itxuratzen dituzten porrot eta ohiturak, eta berehala ikusten dute zer den faltsua, artifiziala. Izan ere, baldintzapenezko urteen joanean baino ez dugu ikasten geure burua ezkututzen eta itxurak egiten. Beraz, asko ikas dezakegu haiengandik.

Premiazkoa da umeen aurkako indarkeria-molde oro ezabatzea. Haurtzarora larrialdi-egoeran dago Estatu Batuetan, eta ikastetxeak kartzela bihurtzen ari dira, sarreran metal-detekttagailuak eta zaintzaileak jarrita. Sormena lantzeko programak hezkuntza-curriculumetatik baztertzen ari dira, ikastetxe publikoetan bederen. Eta etxean gero eta denbora gutxiago dago seme-alabekin egoteko. Beraz, ez da harritzekoa umeak zorigaiztokoak eta bihurriak izatea. Alabaina, bihurrialdi hori buruko gaixotasuntzat jotzen da, eta botikekin tratatzen. Errazagoa eta errentagarriagoa da hori egitea haurren zorigaiztoaren arrazoiak onartzea baino. Zinez iraultzailea litzateke AEBko gobernuak sistema nuklearra berritzeko baliatutako bilioi bat do-

larrak hartzea eta gure ikastetxeek gure seme-alaben sormena akuilatzen dutela bermatzeko erabiltzea. Hori bai proiektu feminista, hori bai eskaera feminista!

BIGARREN ZATIA

LAU

GORPUTZAZ, GENEROAZ ETA ANTZEZPENAZ

Generoa «antzezenaren» edo *performancea*-ren ondorioztat har daiteke? Uste hori boladan dago orain AEBko feministen artean, eta erraz uler daiteke zergatik. «Emakume» bezalako genero-kategoria bat antzezenaren emaitzat jotzen badugu, uko egiten diegu berezko feminitate edo emetasun mitiko baten izenean mendeetan zehar ezarri zaizkigun mugei eta rolei. Simone de Beauvoir-en berbak gogora ekarrita (1986, 267), alegia, «emakume ez da jaiotzen, egin egiten da», badirudi antzezenaren teoriak 1970eko hamarkadan feministok behin eta berriro errepikatu genuenari jarraitzen diola: «feminitatea» sozialki eraikitzen da. Halere, badira azpimarratu beharreko zenbait desberdintasun, kontzeptu horren muga teorikoak iradokitzen dituztelako. Bai onartzen genuenean «feminitatearen» definizio normatiboa «patriarkatuaren» emaitza dela, bai uste izaten genuenean definizio horren erroak emakumeen lanaren esplotazio kapitalistan datzatelako, gure kritiketan beti ikertzen eta izendatzen genituen emakumeen zapalkuntzaren jatorriak, hain zuzen ere gure bizitzak eta baita gizarte osoarenak ere eraldatuko lituzketen estrategia politikoak bilatzen genituelako.

«Genero-eraikuntzaren» izaera konplexua erakusteko ere, garrantzitsua zen emakumeok onartu behar omen genituen «arauen» jatorria identifikatu, izendatu eta aztertzea. Garrantzitsua zen erakustea erakundeek agintzen zizkiguten arauak eta erregelak onartzea ez zela bakarrik «arauak» antzeztea, hori baino zerbait gehiago ere bazela. Gehienetan oharkabeko otzantasan bat izango zen, injustiziaren barne-sen batekin eta iraultzarako desirarekin batera, eta horrek asko lagundu zigun, ohartu ginenez, «emakume» hitzak guretzat zer esan nahi zuen ulertzen.

Antzezpena kontzeptu erabilgarria da. Baina aplikazio-esparru mugatua du, partziala. Kontzeptu horrek zera iradokitzen du, lege baten obedientzia pasiboa, arau baten promulgazioa, onarpenezko egintza bat. Horretan zetzan identifikazio soziala; izan ere, emakumea bere buruari eragindako zauri bilakatzen da ia ezinbestean. Ez du kontuan hartzen generoa diziplinatze-prozesu luze baten emaitza dela eta mantentzen dela ez bakarrik «arauak» inposatuz, baita beste faktore batzuen bidez ere: lanaren antolamendua, lan-banaketa, lan-merkatu bereizien ezarpena eta familiaren, sexualitatearen eta etxeko lanen antolamendua. Tes-tuinguru horietako bakoitzean, hobe litzateke maiz «antzeppen» esaten zaion horri hertsadura eta esplotazioa deitzea. Ez dugu generoa «antzezten» erizain gisa lan egiten dugunean, edo sexu-langile, zerbitzari, ama edo ordainpeko zaintzaile gisa. Lanbide horietan gauzatzen dugun emetasuna «antzeppen» gisa deskribatzeak izugarri murrizten du benetako dinamikei buruz dugun ikusmoldea, eta dinamika horietan parte hartzen duten konpulsio ekonomikoak ezkututzen ditu; ezkutatu egiten du, halaber, onarpen-itxuraren azpian erresistentzia- eta uko-praktikak daudela, zeinek

ahuldu egiten baitute antzezpen horrek finkatu behar omen zuena. Horrek ez du kentzen ezen lan horiek egitean hain senti gaitezkeela horiekin identifikatuak non gure izaera guztia horien bidez berrituratzen baita. Jean-Paul Sartre-k bere «fede gaiztoaren» analisisian egindako iruzkinak parafraseatuz, publikoak zera eskatzen die langileei, lan-molde zehatz horien bidez feminitatearen papera jokatzeko. Izan ere, neurri asko hartzen dira emakumea ustez izan behar duen zera horretan giltzapetzeko, «[emakumeak] handik alde egingo duen beldurrarekin biziko bagina bezala etengabe, ihes egin eta bat-batean bere kondizioari itzuri egingo ote dion beldurrarekin».³⁷

Eta, halere, ihes egiten dugu. Emakumeen askapenerako mugimenduaren gorakada ulertezina izango litzateke baldin eta «antzezpenaren» kontzeptua balitz gure jarraibide nagusia, horrek berarekin dakarren harrera pasiboarekin eta arau normatiboen errepikapenarekin. Emakumeen askapenaren aldeko mugimendua sortu zenean, genero-formakuntzari eta genero-diziplinari dagokienez AEBko historiaren hamarkadarik errepresiboenetako bat izan denaren azken hondarrak bizitzen ari ginen; alde horretatik, ulergaitza litzateke kontuan ez hartzea erosotasun-itxuraren

37 Jean-Paul Sartre, «Bad Faith» in *Being and Nothingness* (1956), 102. Kafetegi bateko zerbitzari baten, dendari baten edo merkatarri baten adibidea erabilita, guztiak ere gizonezkoak, Sartrek nabarmentzen du haien antzezpenak jolas bat ematen duela, zeremonia bat, baina oso serioa, publikoak antzezpen hori egiteko eskatzen dielako. Hala, «dendariaren dantza dago, jostunarena, enkantegilearena, zeinaren bidez saiaturen baitira bezeroari sinestarazten dendari, jostun, enkantegile... besterik ez direla. Izan ere, ardura handia jartzen dugu gizona bera den horretan giltzapetzeko, hortik alde egingo ote duen beldur etengabekoarekin biziko bagina bezala, itzuri egin eta bat-batean bere kondiziotik ihes egingo ote duen ikararekin» (102). Sartreren ustez, «fede txarra» azaltzen da ahazten dugunean ez garela «izan behar dugun pertsona». Egia esan, berak nahi duena zera da, nahitaez irudikatu behar ditugun identitateetatik harago joateko dugun gaitasun ontologikoaz kontura gaitzela.

azpian oinarri sendoko matxinada bat egosten ari zela eta —hau ere garrantzitsua da— matxinada hura ez zela izan generoaren beraren aurkakoa, baizik eta emakumetasunaren definizio zehatz eta beheragarrri baten aurkakoa, zeina emakumeen mugimenduak heriotzara eramane baitzuen, instituzioak behin eta berriro saiatu arren hura mantentzen.

Beraz, bi puntu azpimarratu nahi nituzke. Lehenik eta behin, antzeppenak «feminitatea» desnaturalizatzen laguntzen digu. Genero-identitateak eta genero-balioak sozialki eraikiak direlako ideian sakontzen laguntzen digu, baina ez digu uzten ohar-tzen ezen genero- edo gizarte-aldaketa bat gertatzeko ezinbestekoa dela eraldatzea ez bakarrik generoari buruzko gure ikuspegi indibidual eta kolektiboa, baita genero-harremanak iraunarazi dituzten instituzioak ere; hasteko, sexuaren araberako lan-banaketa eta lan erreproduktiboaren devaluazioan oinarrituta eraikitako hierarkia sozialak. Bigarrenik, antzeppenak apaldu egiten du ekintza sozialaren edukia, eta iradokitzen du bi alternatiba baino ez ditugula eskura: onartzea ala ez onartzea; bestalde, gutxietsi egiten du onarpen-ekintza askoren azpian egosten ari den iraultza, hau da, sistema onartzen dugulakoan isil-isilean eraikitzen ari garen askotariko sabotajeak, zeinak baldintza historiko zehatzetan mugimendu indartsu bilaka baitaitezke.

Hausnarketa horiek lotura zuzena dute gaur egungo politika erradikalean garrantzi handia duten beste bi konturekin. Lehenik eta behin, «identitatearen» eta «identitate-politikaren» auzia dago. Feministak kontu horrekin kezkatuta ibili dira hainbat urtez, eta jaso ere kritika ugari jaso dituzte horregatik, egia esanda beste xede batzuetara bideratu behar ziratekeenak. «Antzeppenaren» ideiarekin gertatzen den

bezala, «identitate» kontzeptuaren azpian ere bizileku dugun sistema kapitalistaren egiturazko elementuak ezkututzen dira, baita haiek higatzen dituen borroka-prozesu etengabea ere.

«Black» edo «beltza» aipatzen dugunean —hala nola Black Power, beltzen askapena, beltza ederra da—, argi dago «beltza» identitate bat dela; halere, benetan adierazten duena da esplotazio- eta borroka-historia bat. Jakina, «beltza» ez da pasaportearen ageri den nortasuna, edo erregistrokoa, edo argazki batean izoztu eta txintxeta batekin hormara lotzen gaituena. Ez da John Locke-k ([1689] 1959, 1:458-59) bere lanean pertsonaren osagai gisa aipatu zuen identitatea, zeinak, Lockek zioenez, ni-aren berdintasuna postulatu baitu, eta zigorraren posibilitaterako oinarria ezarri. Identitate kolektibo bat da, borroka-prozesu baten bidez eskuratu. Horrek esan nahi du identitate sozialak ez direla soilik kartzelak, non sistema hegemoniko batek giltzapetzen baikaituen, eta ez direla ere urratu, alde-rantzira jantzi edo zokoratu ezin ditzakegun janzkiak. Pentsatzen badugu identitate sozialak alde bakarretik eraikiak direla, eta alde batera uzten badugu gure identitate soziala aldatzeko dugun gaitasuna eta gu iraintzeko asmoz sortutako etiketak harrotasun-ikur bihurtzeko ahalmena, orduan porrotaren ziurtasuna onartzen ariko gara, boterea soilik ugazabaren aldean ikusten.

Gauza bera aplika dakieke «emakumei», gizarte-identitate gisa ulertuta.

«Emakumeak» ez bada kontzeptu biologiko bat, eraikuntza sozial bat bada, galdera hau egin behar dugu: zer adierazten du, eta zein dira haren eraketan parte hartzen duten aktoreak? Noren esku dago «emakumeak» terminoaren esanahia zehazteko ahalmena?

Eta nola egiten diote aurre esanahi normatiboari emakumeak egiten ari diren borrokek?

Umetokiarekin eta haurrak izateko gaitasunarekin jaiotzeagatik nahitaez inoren mendeko izatera kondenatuta geundela onartu ez genuenontzat, aurrera egiteko aukera bakarra zen giza lanaren esplotazioaren iraganeko eta gaur egungo historiari begiratzea eta erantzun bat bilatzea. Beraz, «emakume» terminoak guretzat toki zehatz bat esan nahi zuen beste ezeren gainetik, funtzio zehatz bat lan-banaketa kapitalistan; era berean, borrokarako deiar bat ere bazen, definizioaren aurka borrokatzeak edukia ere aldarazi zuelako.

Beste hitzez, «emakumea» ez da hitz estatiko eta monolitiko bat; esanahi desberdinak ditu aldi berean, are kontrakoak eta etengabe aldakorak. Ez da antzeppen huts bat, arau instituzionalen haragitzea; orobat da eremu eztabaidatu bat, etengabe borrokatua eta birdefinitua.

Azkenik, antzeppenaren teoriak ekarri du pentsatzea gure osaera fisiologikoak ez duela ia garrantzirik gure esperientzia sozialean. Ukaezina da gure biologia iragazki kulturalen bidez gureganatzen dugula, eta ukaezina da, halaber, «biologia» bera faktore soziokulturalen mende dagoela zuzen-zuzenean; hortik ondorioztatzen da, gehiegitan, hobe dela gure gorputzen osaera materialari buruz barbarik ez egitea. Horrekin, erreferentzia egiten diot ez hainbeste antzeppenaren teoriari —besteak beste Judith Butlerrek garatua, bere azken lanean bederen—, baizik eta feministen artean arras hedatua den bertsio ezagunari. Kasu honetan ere, ezer baino lehen balizko txarto-uler-tuak uxatu nahi ditut. Bat nator Donna Harawayekin: «biologia politika da». Halere, nik beste esanahi batekin ulertzen dut adierazpen hori. Uste dut biologia

politika dela zeren eta halako setakeriaz eta halako ezezkotasunez erabili da gure aurka, ezen ia ezinezkoa baita «biologiaz» modu neutral batean hitz egitea, hortik zehar dabiltzan aurreiritziak sendotzeko beldurrik gabe. Eta beste arrazoi bat ere badago biologia politika dela baieztatzeko: gure osaera fisikoaren erakuntzan eta garapenean garrantzitsuen diren faktoreei dagozkien erabakiak gure kontroletik kanpo dauden testuinguru instituzionaletan egin dira (unibertsitateetan, laborategi medikoetan eta abarretan), interes ekonomiko eta politikoei bultzatuta; nahiz eta gure gorputzak eboluzio-prozesu luze baten produktuak diren, badakigu politika-oldeak jasan dituztela etengabe, are DNAn ere aldaketak eragin dizkietenak. Beste era batera esanda, «gorputzek» eta «naturak» historia bat dute; ez dira zutarrari landugabe bat, zeinari esanahi kulturalak erantsi baitakizkioke.

Ingurumenaren eta elikagaien alorreko politikak gure gorputzetan gertatu diren hainbat mutazioen erantzuleak dira; adibidez, seguru asko une honetan jasaten ari garenak, gero eta erradiazio handiagoaren eraginpean gaudelako. Izan ere, gure gorputzei eta gure ekintzei ez darie ezelango natura aratz eta aldaezinik. Era berean, zentzunbakoa litzateke gure haragitzearen alderdi garrantzitsu batzuk baztertzea, sozialki esanguratsuak ez direlakoan, zer-eta praktika sozial, historiko eta kulturalak «kutsatuta» daudelako, ez besterik. Nahiz eta ezin dugun mundua geureganatu —zeinari natura, biologia edo gorputza deitzen baitiogu desegokiro—, ez bada balio sozialez, interesez eta gogoeta politikoz osatutako pantaila baten bidez, eta nahiz eta «naturak» eta «fisiologiak» historia bat duten, horrek ez du esan nahi diskurtsotik kanpora utzi behar ditugunik eta kulturalki sortutako errealitatez soilik

hitz egin dezakegunik, hau da, guk geuk eraiki eta deseraiki ditzakegun errealitateez.

Baliteke etorkizunean heriotza giza kondiziotik ezabatu ahal izatea, eta, zuhaitzak bezala, gu geu ere gure egitura fisikoa hausten denera arte bizitzea. Nolanahi ere, heriotza lagun dugu oraindik ezinbestean, eta, kulturak kultura, gertaera esanguratsua da gure bizitzetan. Berebat gertatzen da erditzearekin eta amatasunarekin, zeinak, nahitaezkotasunetik eta ospakizun hipokritetatik libratu ondoren, bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak baitira munduko biztanle ugarentzat, batez ere emakumeentzat. Gaineratu behar dut oso ondo ulertzen ditudala gai honi aurre egiteko batere gogorik ez duten emakumeak; oraindik ere, tranpa lehegarriz jositako eremu bat da. Baina amatasuna ezkutatzek, hari buruzkorik aipatu gabe, bizitzeko eskubidearen aldekoen boterea hauspotzeko beldurrez edo feminitatea naturalizatzen duten ikuskerak indartzeko ikaraz, esperientzia horietatik eratorritako sortze-ahalmena berreskuratzeko balio dezakeen prozesua baztertzea dakar.

Paradoxikoki, gure osaera fisikoa dela-eta bizi ditugun esperientzia desberdinen garrantziari buruzko lekukotasuna trans mugimenduaren sektore handi batetik dator, zeina oso engaiatuta baitago genero-identitatearen ikuspegi eraikitzaile batekin, askok ebakuntza eta tratamendu mediko garesti eta arriskutsuak jasaten dituztelako beste genero batera transitatzeko.

Bestalde, erabakitzen dugunean ez uztea alde batera gure gorputzen alderdi material edo fisiologikoa, orduan egin ahal izango diogu aurre gaur egun nagusi den generoaren ikuspegi murriztaileari, eta orduan ikusi ahal izango ditugu «naturak» eskaintzen dituen

aukera ugariak. Horri dagokionez, intersexualen mugimenduak erakutsi du jada pertsona intersexualak ez direla figura literario huts bat edo fenomeno arraro bat; izan ere, sexu-ezaugarri definitu gabeak dituzten haur asko eta asko jaiotzen dira.³⁸ Horrek esan nahi du jada hirugarren generoa edo genero gehiago onartzeko bidean garela; izan ere, orain arte jaiotza-gelako sekretua zena, dimorfismo sexualarekin engaiatutako medikuek bizkor eta ankerki zuzentzen zutena, erabat ikusgarri bilakatzen ari da, hainbat gizarte eta kulturatan lehenago ere gertatu izan den bezala. Baina, kasu honetan ere, eragozteko medikuek gorputz intersexualak labanaren bidez erregulatzea, horrek hasiera baino ezin du izan; generoa diziplinatzekeo tresna gisa eta esplotazio-tresna gisa ez erabiltzea lortzeko, gure bizitzen eta gure erreproduzioaren gaineko kontrola berreskuratu beharko dugu. Horrek esan nahi du gorputzaz haraindi joatea, nahiz eta gorputza den oraindik —Latinoamerikako emakumeek behin eta berri esan bezala— munduarekin topo egiteko lurralde nagusia eta gure defentsaren xede nagusia.

38 Honi buruz gehiago jakiteko, ikus Anne Fausto-Sterling-en obra klasikoa, *Sexing the Body* (2000).

BOST

GORPUTZAK BERRERAIKIZ, MUNDUA BERRERAIKI?

Gure gorputzak berreraikitzearen ideia oso zaharra da, baita haren mugak gainditzeko desira ere, adibidez, animalien ahalmenak eskuratuz, hala nola hegaz egiteko gaitasuna. Hala, historian zehar gizakiek beren gorputzak eta beste batzuenak berreraiki dituzte, aurpegiko marken bidez, garezurra aldatuz, giharrak landuz eta tatuatuz. Hori talde-identifikazioagatik egiten da, botere pertsonal edo kolektiboa erakusteko, nork bere burua edertzeko.³⁹ Izan ere, gorputzak testuak ere badira, non botere-erregimenek beren preskripzioak idatzi baitituzte. Mundu gizatiarraren eta mundu ez-gizatiarraren topagune gisa, gorputza autoadierazpenerako baliabiderik indartsuena izan da, baita abusuarekiko zaurgarriena ere. Beraz, gure gorputzak bizi izan ditugun minen eta pozen frogak dira, baita gure borrokenak ere. Haien bidez, zapalkuntzei eta matxinadei buruzko istorioak irakur daitezke.

Alabaina, orain arteko historian gure gorputzak aldatzeko posibilitatea sekula ez da egon gauzatzetik hain gertu, eta posibilitate horrek sekula ez du eragin halako desira bizirik. Goizean parkean korrika egiten

39 Honi buruz gehiago jakiteko, ikus Polhemus (1978).

ari garela, edo gauez gimnasiaorantz goazela, badirudi masa-mugimendu bat dagoela, iraganean bilera politikoetan soilik lortzen zen irrika bera eragiten duena. Goizero-goizero, jende saldoak pilatzen dira parkeetan; korrika doaz taldean, edo binaka edo bakarka, baita bizikletaz edo oinez ere. Bitartean, gimnasioek hiri-paisaia aldatzen laguntzen dute; erakusleho ikaragarriek instrumentu metalikoak eta gorputz saiatuak ageri dituzte, gorputz gero eta gehiagotan tatuajez estaliak, batzuetan oso-osorik, azal berri baten antza hartuta. Eta hori berreraikitzearen parte bat baino ez da, behe-mailako teknologiari dagokiona. Goi-mailako teknologiari dagokionez, are nabarmenagoa da garai berri batean sartzen ari garen sentipena. Ugalketarekin lotutako teknologia berriei esker, emakumeek beren garai ugalkorra luzatu eta menopausiaren ondoren ere haurrak izan ditzakete, edo beste emakume baten esku uzten ahal dute «beren umea» sortzeko lana. Gene-edizioaren bidez —zeina fase esperimentalean baitago oraindik—, medikuek diote jaiotzan bertan ezaba ditzaketela haurren gorputzean nolabait idatzita dauden gaixotasun-joera guztiak. Mikrotxipen ezarpenarekin, berriz, supergizonez eta superemakumez osatutako mundu berri bat sortzen ari da; autoa zabaldu edo erai-kin batean sartu nahi badute, aski dute eskuei eragitea, eta beren funtsezko datuak gorputzetan kodeturik daramatzate. Garai batean mitologia-kontuak ziren ahalmenekin,⁴⁰ zirujauak generoa berreraikitzean ari dira, eta are ausartagoak diren zientzialariek uste dute

40 Platonen *Symposiumen* kontatzen den kondairaz ari naiz, non azaltzen baita Apolo Jainkoari axut egiten dioten izaki primitiboak zatitzen, haiak bitan mozten, eta gero, zirujau modernoak bezala, haien genitalak biratzen eta han-hemenka josten, eta guk ezagutzen ditugun bezalako gizakiak egiten, osagabeak, ebakitako zatia faltan dutenak, etengabe beste erdiaren bila ari direnak.

berreraikitze horien bidez egunen batean gorputza atzean utzi ahal izango dugula, hura transzenditu, hura baztertu, eta gure burua, gure gogoa, hain galkorrak ez diren zirkuitu elektronikoetara lekualdatu.⁴¹ Bitartean, kirurgia plastikoa eta kirurgia kosmetikoa goren unean daude, eta batez ere emakumeek erabiltzen dituzte. Milioika lagun sudurra, ezpainak, bularrak eta are baginako ezpainak ere birmoldatzen ari dira, kopeta zahartuetako zimurrak leuntzen, eta gero eta gehiago dira hori egiten ari direnak.⁴²

Zer esan nahi du gorputz-berreraikuntzak gaur egun duen ospeak?

Zer esaten digu horrek guztiak gure gorputzez dugun ikuskera aldakorrari buruz? Eta zein da fenomeno horren «gorputzen politika»?

Zalantzarik gabe, gorputzaren berreraikuntzak pertsona askoren beharrak eta gurariak asetzen ditu. Mundu honetan, non urrats bat ematen dugunero lehiari eta gutxiespenari aurre egin behar baitiogu,

41 Ikus Finn Bowring, *Science, Seeds and Cyborgs* (2003), batez ere 11. atala: «The Cyborg Solution».

42 Aurpegiko kirurgia kosmetikoa askoz arruntagoa da orain 1990eko hamarkadan baino, eta ez bakarrik adinaren aurkako erremedio gisa. Hau idatzi zuen Chiara Townley-k *Medical News* agerkarian (2019ko martxoaren 17a): «Azken datuen arabera, kirurgia kosmetikoa hazten ari da». Kirurgia kosmetikoa bilatzen duten gehienak emakumeak badira ere, horretaz baliatzen diren gizonen kopurua ere «garrantzitsutzat» jotzen da. <https://www.medicalnewstoday.com/articles/324693.php>. Ikus baita Brandon Baker, «Is Facial Plastic Surgery Still Popular?», *Philly Voice*, 2018ko uztailaren 12a, <https://www.phillyvoice.com/plasticsurgery-still-popular-beauty-facelift/>. Zirujau Plastikoen AEBko Elkartearen arabera, hazten ari da gorputza moldatzeko eskaera. Estatu Batuetan soilik, 2018an 17,5 milioi lagunek egin zituzten maila batean edo bestean gorputza inbaditzea eskatzen duten ebaketa plastiko eta kosmetikoak, zeinek orotara 16,5 mila milioi dolarreko gastua izan baitzuten. «New Statistics Reveal the Shape of Plastic Surgery», 2018ko martxoaren 1a, <https://www.plasticsurgery.org/news/press-releases/new-statistics-reveal-the-shape-of-plastic-surgery>.

gorputz-berreraikuntzak garrantzitsuak dira autoestimurako tresna gisa. Gure gorputzak «berreraikitzea» beharizan bat ere bada; izan ere, gero eta gutxiagotan jo dezakegu familiarengana edo osasun-sistemara gure gorputzak direla-eta izaten ditugun krisialdietan. Gaixotasunek eragiten duten kostu sozial eta ekonomikoaren jakitun, eta kontuan hartuta jada ez dagoela inor gutaz arduratzeko —gurasoak, maitaleak eta lagunak zamatuegi daudelako eta beren ahalmenaren mugetan bizi direlako—, dieta egiten dugu, korrika eta bizikletaz ibiltzen gara, *fitness*-topaketetan pilatzen gara, meditazioa egiten dugu. Gaixotzen bagara, gure erantzukizuna dela esaten digute. Medikuek ez digute galdetzen produktu kimikoen hondakindegri baten aldamenean bizi garen edo arazo ekonomikoak ditugun; galdetzen digute zenbat trago hartzen ditugun, zenbat zigarro erretzen ditugun, zenbat kilometroz jarduten dugun korrika. Eta presio soziala ere kontuan hartu behar da. Ezein lan-kontratutan halakorik esaten ez bada ere, gaur egun osasuntsu egotea eta itxura ona izatea inon sinatzen ez dugun laneko betebeharrak bat da, eta aldeko puntu bat ematen digu lan-elkarrizketetan edo harreman pertsonaletan.

Beharizana, ordea, gorputza berreraikitze modaren alde bat baino ez da. Desira askoz inportanteagoa da.

Zailak eta garestiak izanagatik ere, kirurgia kosmetikoak, terapia farmakologikoez eta gorputza berreraikitze beste molde batzuek irtenbide esperantzagarriagoa eskain diezaiekete —horretarako diru dutenei— itxurak axolako ez duen berdintasunezko gizarte bat iristeko zain egoteak baino. Beste alde batetik, gorputz-berreraikuntzaren politika problematikoa da hainbat aldetatik. Espekulazio eta zabarkeria medikoaz

gain, beste kezka bat ere badago: gorputz-berreraikuntzak irtenbide indibidualak dira, eta estratifikazio eta bazterketa soziala areagotzen dute; izan ere, gehienek eskura dutena baino diru eta denbora gehiago behar da «gorputza zaintzeko», eta gehienek eskura dituztenak baino zerbitzu eta baliabide gehiago, batez ere kirurgia tarteko denean. Irudiak izugarriak dira honezkerok. Batzuen gorputzak aproposagoak bilakatzen ari dira, perfektuagoak; alabaina, gero eta gehiago dira ia mugitu ere ezin direnak, gehiegizko pisuagatik, gaixotasunen bategatik eta elikadura eskasagatik. Gorputzak eta munduak elkarrengandik urruntzen ari dira.

Eta hor dator «gorputzen politika» berri baten beharra, politika bat lagunduko diguna pentsatzen nola txerta ditzakegun gure gorputzen kudeaketa eta gure gorputzen berreraikuntzak emantzipazio sozialeko prozesu zabalago batean. Izan ere, gure biziraupen-estrategiek ez diete botere gehiago eman behar gutako asko heriotzara bultzatzen ari diren indar sozialei, eta ez dute bultzatu behar ongizate bat zeinaren prezioak eta edukiak beste jende batzuegandik aldentzeko baikaitu.

Emakumeentzat beste arrisku erantsi bat ere bada, alegia, 1970eko hamarkadan errefusatzeko genuen diziplina estetiko bat onartzea. Mugimendu feministan uko egin genion ederren eta itsusien arteko bereizketari eta guri inposatutako azken edertasun-eredura egokitzeari, askotan dieta kaltegarrien bidez eta gure osasunaren lepotik lortu nahi izaten genuena.⁴³ Are gehiago: feminismoaren gorakadarekin, Black Power-en gorakadarekin gertatu bezala, edertasuna ere birdefinitu zen. Eder ikusten genuen elkar, ausartak gi-

43 Honi buruz gehiago jakiteko, ikus Susan Bordo-ren *Unbearable Weight* (1993) bikaina.

nelako, geure burua gizarte misogino baten arauetatik askatu ondoren izateko molde berriak esploratu genituelako; molde berriak barre egiteko, besarkatzeko, orrazteko, hankak gurutzatzeko, elkarrekin egoteko, maitasuna egiteko.

Guk medikuntzarekiko berezko mesfidantza ere baguen. Gaur egun, ordea, medikuntzak birsortze baten itxaropena esan nahi du askorentzat,⁴⁴ eta estatu-erakunde gisa ulertutako medikuntzarekiko beldurra lehen baino txikiagoa da, ziurrenik mediku asko emakumezkoak direlako. Bioteknologiaren garapenarekin, gaur egungo medikuak asmo oneko azti gisa ageri dira, eta, gure ongizaterako giltza edukitzeaz gain, gure bizitzak goitik behera aldatuko dituzten metamorfosietarakoak ere badauzkate. Alabaina, asmo oneko mediku arduratsu asko baditugu ere, instituzio gisa medikuntza boterearen eta merkatuaren zerbitzura dago oraindik, eta ez zaigu komeni ahaztea zer paper jokatu duen kapitalaren tresna gisa, nola saiatu den gure humanitatea eraberritzen eta guk esplotazioaren aurrean erakusten dugun erresistentzia menderatzen. Izan ere, medikuntzaren funtzio diziplinatzailean oinarritutako historia oso bat idatz liteke. Eugenesiaren zerbitzura ezarritako antzutze-programa masiboak egitetik hasi eta lobotomiak, elektroshockak eta droga psikoaktiboak asmatzeraino, medikuntzaren historiari kontrol sozialerako nahia agertu du beti, baita gure

44 Duela gutxi mesfidantza haren bizitasuna eta ahalmena gogoratu nuen, Barbara Ehrenreich eta Deirdre English-en *Sorginak, emaginak eta erizainak* (2010) berrirakurtzen ari nintzela. Liburu horretan argi eta garbi erakusten da medikuntzaren lanbideak emakumeen sendatze-jardueren zapalkuntzaren bidez egin zuela aurrera urrats guztietan. Horretarako, sendatzaileak sorgintzat jazarri eta emaginak alboratu zituzten. Medikuntzaren lanbidea emakumeak sozialki diziplinatzeko baliabide bat ere bazen.

gorputz matxinoak birprogramatzeko irmotasuna ere, otzanagoak eta produktiboagoak bilaka gaitzen.

Esate batera, intersexualen, lesbianen eta gayen aurka borrokatzeaz gain, etxeko lanen diziplina errefusatzen zuten emakumeen aurka ere borrokatu izan dira medikuak. 1950eko hamarkadan, esperimentu lazgarriak egin zituzten adin orotako emakume beltzeekin eta atzeratu gisa sailkatutako hurrekin; besteak beste, behin eta berriro material erradioaktiboa injektatu zieten ezeren susmo txarrrik hartu ez zuten heldu eta haur beltzei.⁴⁵ Azpimarratu behar da esperimentu haiek egin zituzten medikuek ez zutela jasan ezelango gaitzespenik, ezta beren jokabidearen ondorio penalik ere, nahiz eta Nuremberg-eko zientzialari naziak heriotzara kondenatu zituzten antzeko krimenengatik. Aitzitik, batzuek ibilbide aparta eraiki zuten programa haien bidez (Hornblum et al. 2013, 155, 176).

Onenean ere, medikuntza eta praktika medikoak arrisku handikoak dira; arreta handiagoa jartzen diete aseguru-etxeei, finantza-iturriei eta garapen profesionalari gure ongizateari baino, eta gure kalterakoak bihurtzen diren irtenbideak promesten dituzte askotan. Esate batera, har dezagun oraindik ere martxan dagoen izu-kanpaina bat, gure DNAREN gene akastunez ohartarazten diguna,⁴⁶ zeinak gure gainera jauzi egin

45 Horri buruz gehiago jakiteko, ikus James H. Jones *Bad Blood* (1993); horrez gain, ikus baita A.M. Hornblum, Judith L. Newman, eta Gregory J. Dober, *Against their Will: The Secret History of Medical Experimentation on Children in Cold War America* (2013); eta Eileen Welsome, *The Plutonium Experiment* (1993).

46 Beste behin ere, 2019ko abuztuan AEBko Minbiziaren Institutu Nazionalak BRCA probak egiteko jarraibideak eman zizkien bularreko minbizia izana zuten emakumeei, ikusteko zer arrisku-maila zuten bularreko edo obulutegiko minbizia izateko, nahiz eta ebidentzia ugariak dioten bularreko minbizia ziurrenik ingurumen-faktoreek eragiten dutela, hala nola (hasteko) kontsumitzen ditugun elikagaietan eta uretan dauden pestizida-kantitate handiek.

eta gu hilobira eramateko prest baitaude. Kanpaina hori hain izan da beldurgarria, ezen emakumeak mastektomia erradikal prebentiboak egiteko konbentzitu baitituzte, hau da, ondorio ezezaguneko prozedura traumatiko bat, ziurrenik kalte handiagoa eragingo diena osasunean ustez kode genetikoan dauzkaten gene akastunek baino. Bitartean, gure urak, elikagaiak eta airea gero eta kutsatuago daude; gure estresa gero eta handiagoa da, zer esanik ez etsipena, lanez gainezka gaudelako, etorkizunera begirako itxaropenik ez dugulako eta egoera prekario batean bizi garelako. Aurreko belaunaldiek inoiz izan ez dituzten alergiak maila epidemikoetara iritsi dira, eta medikuntzaren lanbideak ez du ezer egiten gure morbiditatearen kausa ondo arteztuak salatzeko eta indarrez antolatu eta aldatetarako exijitzeko. Medikuek arduragabeki heldu diete emakumeon gorputzaren zaintzari, eta horrek bereziki eragin digu. Gogora datozkit bularra berreraikitze asmoz medikuek onartutako silikonazko inplantea jarri ondoren minbizia garatu duten emakume ugariak, eta gogora datorkit orobat kontrazeptiboen hedapen axolagabea, hala nola Depo Provera eta Norplant, frogatuta dagoenez emakumeen osasuna hondatzen dutenak eta gehiago balio dutenak kontrol sozialerako baliabide gisa nork bere hautua egiteko tresna gisa baino. Gogora datorkit ere nola areagotu diren beharrezkoak ez diren zesareak, eta horiek adibide gutxi batzuk baino ez dira.

Kapitalaren amets kartesiarra

Bestalde, Finn Bowring-ek Science, Seeds and Cyborgs (2003) liburuan ondo argudiatu duenez, fase berri batean sartzen ari gara: gizaki «materlagabea» sortzen ari gara, milaka milioi urtetan eraikitako egitu-

ra biologiko mugatuak ezarritako oztoporik ez duena. Labur esanda, orain argi eta garbi defendatzen da ideal sozial gisa humanitate gorpuzgabe baten sorrera. Beste batzuekin batera Bowringek ere esana duen bezala, asmo berri hori ez da hutsetik abiatu. 1980ko hamarkadatik aurrera, gorputza deszentratuak dauden mekanismoz osatuta dagoen eta gure nahi eta desiraren arabera berrantola daitekeen mosaiko baten gisa ulertzen duten ikuspegi mekanikoak ibili izan dira filosofiaren, soziologiaren eta are teoria feministaren alorretan zehar. Natura/kultura dikotomiaren bazterketa ezinbestekotik abiatuta, biologia berrantolatu edo berreraiki daitekeen zertzat jotzen duten ikuspegiak erne dira, eta horrek oztopatu egiten du gure gorpuztekin egindako esperimentazio medikoak dituen ondorioen interpretazioa. Beraz, Bowringen analisisa zuzena bada, klonazioa, gene-edizioa eta gene-transferentzia giza berreraikuntzaren agendan daude, aurretik jada landare- eta animalia-espezie berriak sortzeko erabiliak izan ondoren.⁴⁷ Ikerketa zientifikoaren helburuetako bat da biologiak gure ekintzei eta ulerkuntzei ezarritako mugetatik askatzeko bideak asmatzea; adibidez, garunaren ahalmena areagotzea protesi elektronikoen bidez, azkarrago pentsatu eta irakurtzeko, memoria-ahalmen handiagoa izateko eta gero eta mendekotasun txikiagoa izateko gure gorputz-egituraren ezaugarri fisikoekiko, hala nola jateko eta lo egiteko aldizkako beharra.

Zalantzarik gabe, biztanleriaren zati hautatu batek bakarrik izango luke hobekuntza horietarako eskubidea. Ekoizpenaren mundu mailako antolamen-

47 Espezie desberdineko animalien DNA transferituz eta injektatuz ezaugarri berriak dituzten animaliak sortzeari buruz gehiago jakiteko, ikus Bowring (2003), 117-22.

dua adierazgarria bada nolabait, kapital-metaketak gorputz epelak esplotatzeko beharra du oraindik, haurrenak barne, nahiz eta haiek atzeratuta dauden, kapitalak amets duen cyborg-munduaren ikuspegitik. Baina gure gorputz zahar/mugatuak teknologiaren bidez aldatu edo ordeztea premiazkoa bihurtzen ari da, planifikatzaile kapitalistek (baita zenbait ezkertiarrek ere) ekoizpenaren muga berri gisa begiratzen baitiote espazioari, eta programez hornitutako makinak egiten ari dira, azkar baino azkarrago gaintitzen dutenak guk haiek erabiltzeko dugun ahalmena. Laburbilduz, Frankenstein doktorearen ametsa mahai gainean dago berriro, ez bakarrik giza itxurako robot gisa, baita teknologikoki hobetutako gizaki gisa ere, gure gorputzean mikrotxipak ezarriz jada prestatzen ari diren bezalakoak.

Gorputzak berreraikitzen ala medikuntza berreraikitzen?

Aurreikusitako aldaketen neurria eta abiadura edozein dela ere, ziurtzat jo dezakegu medikuak izango direla prozesu horretako protagonistak. Beraz, ardurata egon behar genuke, badakigulako itxura batean beste xede batzuetara bideratutako ikerketa medikoa funtsezkoa izan daitekeela gure gorputz-errealitatearen eraketan jauzi ebolutibo autoinduzitu bat egiteko, zeinaren oinarria ez baita izango, ziurrenik, gure ongizatea hobetzeko nahia. Eugenesiaren historiak erakutsi bezala, baita beltz jendeekin eta are haurrekin egindako esperimentu izugarriek ere, zeinek goia jo baitzuten Gerra Hotzean eta ondoren, AEBko medikuntzak historia iluna du; horregatik, zuhurtziaz jokatu behar dugu agintzen dizkigun oparien aurrean eta gure onarpenerekin jasotzen duen boterearen aitzinean.

Halandaze, medikuntzaren lanbidea gure gorputzen kreaizaile jainkozkoa bihurtzea saihestu behar dugu; gure aktibismoaren bidez, harekin ditugun enkontruetan nolabaiteko kontrola eduki ahal izateko bideak asmatu behar ditugu. Horren adibide ugari daude. XIX. mendearen erdialdean, Ameriketako Estatu Batuetan Osasunaren aldeko Herri Mugimendua sortu zen; medikuntza ofizialari mesfidantzaz begiratzen zion, operazio elitista eta ez-demokratikoa zela irizten ziolako, eta ezagutza medikoa eskuratzera adoretu zituen herritarrak.⁴⁸ 1970eko hamarkadan, Chicagoko eta AEBko beste leku batzuetako feministek ezkutuko klinikak sortu zituzten abortuak egiteko, legez kanpokoa izaten jarraitzen bazuen nora jo izateko. Gero, 1980ko hamarkadako ACT UP (AIDS Coalition to Unleash Power [Boterea Askatzeko Hiesaren aldeko Koalizioa]) koalizioaren barruan, eta ikusita Reagan-en gobernuak ez ziola arretarik jartzen hiesaren krisiari, sare izugarri bat sortu zuten, non biltzen baitziren medikuak, ikertzaileak, gizarte-langileak eta sendabide berriak eskatzen zituzten aktibista gayak; nazioarteko konpainia farmakologikoak estutu zituzten bizitzak salbatzen zituzten botiken prezioak jaisteko, eta munduari erakutsi zieten beren neba gayak zaintzeko asmo sendoa eta gaitasuna zutela. Bai autolaguntzarako mugimendu feministak bai ACT UP koalizioak eragin nabarmena

48 Osasunaren aldeko Herri Mugimenduari buruzko azalpen zabalagoa eskuratzeko eta horrek aktibismo feministarekin izan zuen harremanari buruz gehiago jakiteko, ikus Ehrenreich eta English (2010), 69-74. Ehrenreich eta Englishek idatzi zuten mugimenduaren «bizkarrezurra emakumeek osatzen» zutela, eta haren jarduerak zaintza prebentiboa azpimarratzen zutela, ez terapia, baita ezagutza medikoaren demokratizazioa ere. Hala, «Andreen Elkarte Psikologikoak erne ziren bazter guztietan, eta «anatomia eta higie pertsonala» irakatsi zieten emakumei, nor bere buruaren medikua izan behar duelakoan (69). Ikus baita Paul Starr (1982).

izan zuten medikuntza ofizialean, eta, berriro ere, zain-tza zer izan daitekeen erakutsi zuten. Gure gorputzak berreraikitzeke egokiak diren teknologiak ugaritzen diren heinean, premiazkoa da ulertzea zer ondorio izango duten gure osasunean, zer abantaila eskainiko duten, zer neurritan behar ditugun benetan eta subjektu esperimental gisa erabiliak izaten ari ote garen. Gaur egun era horretako ekimen gutxi daude. ACT UPen esperientzia ez da berriro errepikatu. Alde batera utzita emakume beltzen osasun-proiektuen sare gero eta handiagoa, gorputzaren zaintzaren inguruko mobilizazioa goitik behera antolatzen da nagusiki. Gogoratu, adibidez, minbiziaren tratamenduaren, bularreko minbiziaren eta antzekoen alde antolatzen diren martxa eta maratoi ugariak; askotariko erakundeek dirua bidaltzeko mobilizatzen gaituzte, baina ez dute zabaltzen gaixotasuna prebenitzeko egin dezakegunari buruzko ezagutzarik.

Laburbilduz, gure gorputzak eraikitzeari eta deseraikitzeari dagokionez —dela gaixotasunen tratamenduan, birmoldatze kosmetikoetan edo berreraikuntza egiturazkoagoetan—, merkatuarekin eta gobernuarekin zerikusia duten printzipioak dituen erakunde baten mende gaude. Alabadere, aukera dugu auzo zein herrietan beste batzuekin elkartu eta ezagutza medikoa, kezkak eta beldurrak partekatzeke, eta aukera dugu, halaber, erakundeetan lan egiten duten eta laguntzeko prest dauden erizain eta medikuekin harremanetan jartzeko. Eta aukera horri heldu behar genioke, kolektibo gisa ulertu ahal izateko zer dakarten gure gorputzak jasaten ari diren eraldaketek eta kolektibo gisa eskuratzeko beharrezkoa dugun zaintza medikoa. Zalantzarik gabe, gure bizitzetara eragiten dieten erabakietan parte hartzeak eta erabaki

horiek faktore komertzialetatik edo gizakiekin egindako esperimentazioetatik defendatzeak gorputzaren ezein berreraikuntzak baino aldaketa sakonagoa ekarriko du gure bizitzetara.

SEI

AMATASUN SUBROGATUA: BIZITZAREN OPARIA ALA AMATASUN UKATUA?

1970eko hamarkadatik aurrera, literatura feministak behin eta berriro salatu du kapitalismoak emakumeen gorputzak lan-indarra ekoizteko makina bihurtu dituela. Halere, amatasun subrogatuaren agerpena inflexio-puntu bat da prozesu horretan, haurdunaldia prozesu mekaniko huts gisa irudikatzen duelako, lan alienatu gisa, non alokatutako emakumeak ezin baitu izan ezelango parte-hartze emozionalik. Subrogazioa inflexio-puntu garrantzitsua da orobat giza bizitza merkantilizatzearen ikuspegitik; izan ere, subrogazioak esan nahi du haurren merkaturatu antolatzea eta legitimatzea eta, horrekin batera, haurrak transferitu, erosi eta saldu egin daitezkeen jabetza gisa definitzea. Eta, izan ere, hori da «amatasun subrogatuaren» funtsa. Gaur egun, praktika hori hainbat herrialdetan zabalduta dago, lehenik eta behin Estatu Batuetan, eta, halere, laino nahasi batean bilduta jarraitzen du.

Daniela Danna soziologo feminista italiarrak *Contract Children* (2015) liburuan dioen bezala, «subrogazioaren» kontzeptua bera engainagarria da, iradokitzen baitu «erditzen den ama» ez dela erreala, «laguntza

bat edo laguntzaile bat» besterik ez dela, eta «benetako amaren» izenean diharduela, hau da, subrogatuak haur bihurtzen duen obulua jarri duen emakumearen izenean. Terminologia horren oinarria ugaltze-teknologia berrietan dago —*in vitro* ernalketa eta enbrioien transferentzia—, zeinek pentsarazten baitute ezarritako obuluaren jabeak haurrarekiko jabetza-eskubideak dituela, ama gestazionalak ez duelako harreman genetikorik harekin. Dannak dioen bezala, argudio hori falazia bat da, jabetzaren ikuspegi abstraktu baten bidez soilik arrazoitu daitekeena, hau da, kontuan hartu gabe «erditzen den ama» bera dela haurra materialki sortzen eta elikatzen duena. Sortze-prozesu horrek berekin dakar ez soilik bederatzi hilabeteko lana, baita material genetikoaren transferentzia ere, haurra zinez sortzen delako emakume haurdunaren hezur eta haragietatik (68).

Nahasmen horri esker, baita hori sustatu asmoz aseguru-konpainiek, medikuek eta abokatuek garatutako makineria komertzial eta instituzionalari esker ere, subrogazioa izugarri zabaldu da azken hiru hamarkadetan. Gaur egun milaka haur jaiotzen dira urtero modu horretan, eta herrialde batzuetan «haur-haztegiak» zabaldu dituzte, non «ama subrogatuak» intseminatzen baitituzte eta emakumeek haurdunaldia igarotzen baitute. Indian, adibidez, subrogazio transnazionala debekatu aurretik (2015ean galarazi zuten), halako hiru mila klinika zeuden (Vora 2019); ugaltze-industriarako azpiegitura eskaintzen zuten, eta azpiegitura hartan ia erabat betetzen zen emakumearen gorputza ugaltze-makina bihurtzeko prozesua.

Hala eta guztiz ere, arazoek hor diraute. Europar Batasuneko herrialde gehienetan, subrogazioa formalki debekatuta dago oraindik, edo mugatuta eta

araututa. Herbehereetan, adibidez, erditu ondoren aste batzuk ematen dizkiote ama subrogatuari, haurraren-gandik bereizi nahi duen erabakitzeko. Nolanahi ere, Dannak eta beste batzuek nabarmentzen duten gisan, gero eta murrizketa gutxiago daude, eta, praktika mugatzetik urrun, arautzea bera bilakatzen ari da legez onartua izateko biderik azkarrena.

Kasu gatazkatsuetan debekuak gainditzeko, edo subrogazioaren bidez atzerrian eskuratutako haurraren legezko aitortza errazteko, zenbait printzipio erabiltzen dira; adibidez, esaten da erabakia «haurraren hobe beharrea» oinarritu behar dela. Hori, baina, legerari itzuri egiteko eta praktika horren inplikazio klasista eta arrazistak legitimatzeko baliabide bat da, haurra esleitzerakoan beti bikote zuri aberatsen interesak lehenesten direlako.

Era berean, «kontratuen» izaera behartzailea ere baliatzen da ama subrogatuak erditu eta berehala haurra ematera behartzeko. Izan ere, subrogazioak argi erakusten du legeak erreforma neoliberalen alde jokatzen duela nabarmen eta ez duela kontuan hartzen zer baldintzatan sinatzen dituzten kontratuak ama subrogatuek. Alabaina, «Baby M» kasu ezagunak argi utzi zuen bezala,⁴⁹ kontratua sinatzerakoan emakumeentzat zaila da jakitea nola sentituko diren bederatzi hilabetez —eta egunez egun— bizitza berri bat beren sabelean hazi ondoren. Are gehiago, kontratuen xedapenetan ez da kontuan hartzen haurraren-gandik bereizteak emakumearentzat izan ditzakeen ondorioak. Aldiz,

49 «Baby M» izendatu zuten bai auzitegiak bai komunikabideek New Jerseyko Mary Beth Whitehead ama subrogatuaren haurra. Whitehead-ek neskatotxo bat izan zuen 1986ko martxoaren 27an; erditu ostean, erabaki zuen ez ziola haurra emango bikote eskatzaileari. Epaiketa-prozesu hura urte batez baino gehiagoz luzatu zen, eta, azkenean, bikoteari eman zioten haurraren zaintza. Garai hartan, AEBko ezein estatutan ez zegoen praktika horri buruzko araudirik, eta auziak eztabaida bizia piztu zuen.

kontratuak gero eta konplexuagoak eta mugatzaileagoak bihurtu dira ama subrogatuentzat. Alde batetik, eta ikusi dugunez, erditu ondoren haurrari uko egitera behartuta daude; bestetik, haurdunaldian zehar zorrotz-zorrotz kontrolatu behar dute beren egunerokoa: tratamendu medikoak, portaera sexuala, elikadura eta abar. Subrogazioa legitimatzeko argudioen eraikuntzan azkena ez bada ere, une honetan guraso izateko eskubidearen existentzia teorizatzen ari dira legearen ikuspegitik, eta, jakina, amatasun subrogatua baldintza ezinbestekoa da eskubide hori gauzatzeko. Argudio hori erabili egiten da jada, harrigarriki baita zirkulu erradikaletan ere, gizon homosexualaz osatutako bikoteen mesedetan, zeinek dirudienez ama subrogatu bat kontratatu behar baitute beren ustezko aitatasun-eskubide absolutuak gauzatzeko.

Labur esanda, badirudi subrogazioa izango dela etorkizuneko olatua. Nolanahi ere, amatasun subrogatua normalizatzen den heinean, ezinbestekoa da azpimarratzea haren oinarrian dauden premisa klasista eta arrazistak eta gisa horretan sortutako umeentzat eta emakumeentzat dituen ondorio suntsitzaileak. Kezkagarriak dira «bertan behera utzitako haurrak», hau da, arrazoi desberdinengatik legezko ziurtagiririk gabe geratu direnak «guraso izatekoak» zirenen herrialdeetan, eta kezkagarriak dira, halaber, desgaitasunen batekin jaio direlako bai ama subrogatuak bai bikote eskatzaileak baztertu dituzten haurrak. Gainera, Reuters-en ikerketa-txosten baten arabera, AEBko adopziozko gurasoek atzerrian adoptatutako haurrak eskuratu ditzakete Interneten bidez batere zailtasunik gabe; horretarako, «berretxeratze pribatu» izeneko praktika bat baliatzen dute, zeina erabat legez

kontrakoa baita.⁵⁰ Are kezkarriagoa da jakitea haur subrogatu batzuk organoen merkatura bideratzen ari direla; izan ere, transakzioa egin ondoren ezein erakundek ez du kontrolatzen zer gertatzen den era horretan merkaturatutako haurrarekin; kasu gehienetan beste lurralde batzuetara eramaten dituzte, jaioterritik milaka kilometrora.

Halaber, kontuan hartu behar da jaioberriek pairatzen duten trauma «erditu den amarengandik» bereizten dituztenean. Amatasun subrogatua abiatu zenetik ez da aski denbora igaro historia klinikoen kopuru esanguratsu bat izateko. Halere, badakigu amak eta haurrak jaiotza baino askoz lehenagotik ezagutzen dutela elkar, ernaldu eta hiru hilabetera fetua amaren ahotsa ezagutzeko gai dela eta haurra hain dela amaren gorputzaren parte ezen jaio eta berehala badakiela non bilatu jana eta zaintza (Merino 2017). Dirudenez, haur batzuk «ezin dira lasaitu erditu dituen amarengandik bereizita» badaude, eta batzuetan hainbat hilabetez jarduten dute negarrez (Danna 2015, 63, 65). Bestalde, jaioberria arrotzen esku uzten ikustek inpaktu traumatikoa izan dezake emakumearen gainerrako haurrengan, pentsa baitezakete berekin ere gauza bera egingo dutela.

Ama subrogatuek ere sufritzen dute prozesu horretan. Nahiz eta badirudien emakumeek gutxitan egiten diotela uko haurrengandik bereizteari, ama

50 Reuters-en txostenak hainbat hilabetetako ikerketa-lana laburbiltzen du (Twohey 2013). Horren arabera, Yahoo webguneko talde batean «berretxeratu» beharreko haur baten iragarkia jartzen zuten astean behin edo. Haurra tutoretza-transferentzia baten bidez eskuratu zitekeen, zeinetarako abokatu baten ahalordea eta saretik jaits zitekeen inprimaki bat besterik ez baitzen behar; hau da, aurrekari kriminalak zituztenek ere eskuratzen ahal zuten haurra. AEBko gobernuaren kalkuluen arabera, 1990eko hamarkadaren amaieratik aurrera baliteke adopziozko gurasoek 20.000 haur adoptatu baino gehiago abandonatu izana.

batzuk banaketa horren aurka agertu dira jendaurrean, eta gehiagok ere egingo lukete, subrogazioa antolatzen duten agentziek hori eragozteko hartzen duten lanarengatik izango ez balitz. Kontratuaren bidez, ama subrogatuak estutzen dira ez dezaten garatu sabelean duten harrarenganako sentimendurik, eta haien eta jaioberrien arteko kontaktua mugatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen dira. Nahiago izaten da erditzeak zesarea bidezkoak izatea; hala, haurra joana da ama esnatzen denerako. Ama subrogatuak bere burua garrantzizkotzat jotzea ere sustatzen da; haien ausardia eta eskuzabaltasuna laidotzen dira, eta haurrarendik bereiztea altruismoaren azken azterketa gisa irudikatzen da. Bestalde, etengabe gogorazten zaie ez dutela benetako harremanik haurrarekin eta beren haurdunaldia beste era batekoa dela, hau da, benetako agenteak medikuak eta ernaldutako obulua-
ren «emaileak» direla (Danna 2015, 135). Halere, ama subrogatu asko galera-sentipenak hartzen ditu. Batez ere, baldin eta prozesuari ekin aurretik ez badakite zer-nolako tratamendu mediko intentsiboa egin behar duten eta zer arrisku ekartzen ahal dien prozesu horrek beren osasunari. Berebat gertatzen zaie baldin eta kontratua onartzen badute pentsatuz haurraren etorkizuneko bizitzan rol bat izaten jarraituko dutela eta bikote dirudun bati haur bat emateak beren familiako beste kide batzuen onerako izango diren loturak ekarriko dituela (Vora 2019).

Beste faktore batzuek gizarte-harremanen ikuspegi kapitalistaren arketipo bihurtzen dute subrogazioa. Defendatzaileek keinu humanitario gisa irudikatzen dute; bizitzaren opari bat, haurrik eduki ezin duten bikoteei gurasotasunaz gozatzeko aukera ematen diena. Nolanahi ere, normalean munduko

eskualderik txiroenetako emakumeak dira lan hori egiten dutenak, eta, ordain ekonomikoagatik ez balitz, ez litzateke subrogaziorik izango. Beraz, Angela Davis-ek dio, oso modu egokian, *Surrogates and Outcast Mothers: Racism and Reproductive Politics in the Nineties* (1993) liburuan, subrogazioa Ameriketako esklaboen plantazioetako ugaltze-praktika behartuen jarraipen bat dela eta bi kasuetan emakume pobreek patu bera dutela, alegia, beren haur jaioberriak galtzea, aberatsen mesederako.

Dorothy Roberts-ek ere azpimarratzen du subrogazioari datzekion arrazismo sakona. *Killing the Black Body* ([1997] 2017, 250-52) klasikoan erakusten du nola ugaltze-teknologia berri guztiek «ugalketarako estandar arrazista bat sendotzen duten». Adibidez, azpimarratzen du familia zuriak direla zati handi-handi batean ama subrogatuak bilatzen dituztenak; herentzia genetikoarekin obsesiboki kezkatuta daude, eta prozesua ordaintzeko gai dira. Familia beltzek, berriz, ez dute izaten ugalketa subrogatua ordaintzeko baliabiderik, eta, gainera, ez dute beren arazoak medikutara joanda konpontzen saiatzeko ohiturarik, kontuan hartuta ospitaleen eta medikuen eskuetan jasan ahal izan dituzten abusuak. Bestalde, gurasotasunaren ikuspegia ere desberdina da beltz jendeen artean, esklabotza- eta zapalkuntza-historia luze baten ondorioz; komunitateko kide guztiek dute haurren ardura, eta denak dira neba-arrebak. Hala, subrogazioa praktika zuri bat da nagusiki, eta argi erakusten du geure burua erreproduzitzeko eskubidea zorrozki mugatuta dagoela; orobat erakusten du teknologiak, espezializazioa areagotzeaz gain, klase-pribilegioak eta -bereizketak ere areagotzen dituela. Medikuntzak zeru-lurrak astintzen ditu bikote dirudun ez-ugalkorrek haur bat izateko aukera izan de-

zaten. Aldi berean, haurrak izateko eskubidea ukatzen zaie ez bakarrik esklabotzara behartutako afrikarren ondorengoei, baita nazioarteko politika ekonomikoek pobretu dituzten emakume ugariei ere. Emakume horietako askok beren seme-alabak atzean utzi eta beste herrialde batzuetara migratu behar izaten dute, beste batzuen haurrak zaintzera; beste batzuek, berriz, nazioarteko agentzien eta haien tokiko ordezkarien jazarpena pairatzen dute, kontrolatu ezin dituzten kontrazeptiboak (Norplant, DIUak...) gorputzean ezartzeko eta ezin ugaltu ahal izateko. Amatasun subrogatuaren izaera klasista eta arrazista are gehiago nabarmentzen da gaur egun AEBko emakume beltzak jasaten ari diren «haurdunaldiaren kriminalizazioaren» alboan jarrita; haurdun geratu ondoren hainbeste salaketa jasotzeko arriskua dute, ezen, osasunaren alorreko Lynn Paltrow abokatuaren arabera (2013), ia-ia Konstituziotik kanpo geratzen baitira.

Etxeko lanekin gertatu bezala, subrogazioarekin ere sexuaren araberako lan-banaketa berri bat sortzen ari da: ugalketa, prozesu mekaniko huts bihurtua eta osagai afektibo guztiez gabetua, garai batean kolonizatuak izan ziren lurraldeetako emakumeei azpikontratatzeko zaie. Kontuan hartu behar da lurralde horietan austeritate-programa izugarriak pairatu dituztela 1970eko hamarkadaz geroztik: masa-pobrezia hedatu da, eta erreprodukziorako beharrezkoak diren oinarritzko baliabideak desjabetu dituzte. Beste behin ere, eta Maria Mies-ek (2014) sarri egiten duen ohar bat hona ekarrita, munduaren alde bat «garatzeko» ezinbestekoa da beste alde bat «azpigaratzeari». 1980ko hamarkadaren hasieran, orain beste batzuentzat haurrak ekartzeko erabiltzen ari diren emakume berberak mundua gainpopulatzeaz salatzen zituzten, eta kasik

antzutzea onartzera behartzen. Orain berenak direla esan ezin duten haurrak ekoiztera behartzen dituzte, eta berriz ere amatasuna ukatzen zaie; hau da, baliabide ekonomiko gehiago dituzten haien kasuan baldintzarik gabetzat eta legez defendagarritzat aldarrikatzen den amatasun-eskubidea. Bi erretorika daude, elkarren antzik batere ez dutenak. Alde bate-tik, dirudunek erabiltzen dutena ugalketarako duten eskubidea ezartzeko; erretorika hori zientzialariek, laborategiek eta medikuek ere badarabilte, dirudunen eskubidea gauzaten dela bermatzeko. Bestetik, ama subrogatuari zuzendutako erretorika: espero da hark kontratu huts baten bidez bere burua sentimenduz eta emozioz gabetzea eta alde batera uztea sabelean daraman haurrarenaganako elkartasuna, koskor fisiko huts bat izango balitz bezala, objektu bat, kontuan hartzea merezi ez duena.

Halere, amatasun subrogatuaren alderdirik gaitzesgarriena hau da: urrats bat gehiago da uste izateko bidean gizakiak beste edozein produktu bezala eros eta sal daitezkeela eta haurrak helburu zehatz horrekin sor daitezkeela. Ez da praktika berria, eta gogorazten digu zer esan zuen Marxek lan-prozesuan makinak sartzearen ondorioei buruz: aldaketa hark haurrak eta gazteak erostera bultzatu zituen kapitalistak. Horrek, Marxek zioenez, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ere aldatu zuen. «Oraintsu arte, gizon langileak bere lan-indarra saltzen zuen, agente aske gisa berezkoa zuena. Orain, emaztea eta haurra saltzen ditu. Esklaboen merkatari bilakatu da» (1:396).

Berebat esan daiteke subrogazio-kontratuak sinatzen dituzten emakumeei buruz: haurrak bizirau-penerako bide gisa ikusi izan dituen figura proletario luze baten azken haragitzea dira. Nolanahi ere, amata-

sun subrogatuak berezitasun bat du: haur bat saltzen denean, bizi osorako saltzen da. Hori da subrogazioa prostituziotik bereizten duena, zeinarekin maiz alderatzen baita. Izan ere, prostitutak zerbitzu bat eta bere gorputzaren aldi baterako erabilera saltzen die bestei; ama subrogatuak, berriz, haur baten bizitzaren gaineko erabateko kontrola ematen die beste batzuei, diru-truk.

Egitate hori azpimarratuta, nire helburua ez da, noski, ama subrogatu gisa jarduten duten emakumeen aurkako salaketa moralizatzaile bat piztea. Askotan, familiako kideek bultzatuta hartzen dute bide hori; edo hain eskasak dira haien jabetzako baliabideak, ezen, bizirauteko etengabe borrokan jardun beharrean, nahiago baitute beren sabelak alokatzea, beste batzuek giltzurrunak, ilea edo odola saltzea erabakitzen duten bezala. Hainbestekoa da ama subrogatu askok bizi duten pobrezia, ezen, elkarrizketatzen dituztenean, haurdunaldiko hilabeteak opor gisa deskribatzen baitituzte, bizitza osoan izandako lehenak. Edozelan ere, praktika horren inguruko erretorikaren hipokrisia izugarria bistaratu behar dugu, zeinak aditzera ematen baitu maitasunezko lan bat dela, altruismoaren adierazpen hutsa, «bizitzaren opari bat», eta ez du esaten munduko emakumerik pobreenetako batzuek egiten dutela eta onuradunak bikote dirudunak direla, zeinak, haurrak eskuratu ondoren, ez baitute inolako harremanik izan nahi subrogatuarekin.

Ama subrogatuen ustezko altruismoa hipokritakiki goretzi beharrean, aztertu behar genuke zer-nolako pobrezia-kondizio negargarritan bizi behar duen emakume batek onartzeko inoiz zainduko ez duen eta inoiz hazten ikusiko ez duen haur bat bederatzi hilabetez bere sabelean eramatea. Halaber, arduratuta

egon behar genuke, feminista asko dauden bezala, amatasun gestazional, sozial eta biologikoaren arteko bereizketak eta espezializazioak beheititu egiten due-lako haurdunaldiaren balioa, garai batean emakumeen ahalmentzat jotzen zena, eta emakumeen gorputzen eta emakumeen beren ikuspegi sexista, patriarkal eta erabat aristotelikoa berrezartzen; izan ere, subrogazioaren erretorikan, emakumeak beren ekarpenik batere —«materia gordina» ez bada— jasoko ez duen bizitza baten eramaile pasibo gisa irudikatzen dira.

Orduan zer, subrogazioa ez litzateke legeztatu behar? Gehiago eztabaidatu behar dugu gai honen inguruan, auzi horrek galdera bat jartzen baitu mahai gainean: zer mailatan berma dezake estatuak gure bizitzak ez direla bortxatuak? Batzuetan, zera argudiatzen da: legeztatzeak babeska eskaintzen die ama subrogatuei, eta praktika kriminalizatzeak, berriz, are arrisku handiagoan jarriko lituzke, ezkutuan bada ere haurrak subrogatzen jarraituko litzatekeelako. Halaber, arriskutsua da estatuari eskatzea araudi edo esku-hartze zigortzaile bat ezartzea, historiak erakusten baitu horrelako neurriak beti jada biktimizatuak direnen aurkakoak izaten direla. Beraz, nola babestu behar ditugu transakzio subrogatuen bidez jaiotako umeak? Zer egin behar dugu beste pertsona batzuen bizitzen salerosketa orokortzea saihesteko?

HIRUGARREN ZATIA

ZAZPI

FILOSOFIA, PSIKOLOGIA ETA BELDURRA BALIATZEA GORPUTZAK LAN-INDAR BILAKATZEKO

Sistema kapitalistaren barruan, lanaren produktibitatea handitzea helburu duten metodo guztiak langile indibidualaren kontura ezartzen dira; ekoizpena garatzeko baliabide guztiak ekoizleak menderatzeko eta esplotatzeko baliabide bilakatzen dira; langilea gizon zati soil bat bihurtzen dute, makinaren luzakin huts izatera behehitu, eta bere lana xarmaz hustu eta lan gorrotatu bihurtzen dute; lan-prozesuaren potentzialtasun intelektualak kentzen dizkiote, prozesu horretan zientzia indar independente gisa txertatzen den neurri berean; lan-baldintzak okertzen dizkiote, eta lan-prozesuan despotismorik gorrotagarri eta ankerrena jasanarazten diote; bere bizitza-denbora lan-denbora bihurtzen dute.

Karl Marx, *Kapitala*, 1. lib.,
«Das allgemeine Gesetz der kapitalistischen Akkumulation»

Bere burua behin eta berriro pseudotolerantetzat agertzen duen arren, sistema kapitalistak, bere forma guztietan... desira oro bere antolamendu totalitarioaren diktaduraren mende jartzen jarraitzen du, zeina esplotazioan, jabetzan... irabazietan, produktibitatean... oinarrituta baitago. Etenik gabe, lan zikinarekin aurrera jarraitzen du... gure gorputzak zapaltzen, torturatzen eta zaitzen, bere legeak gure haragian irartzeko.... Gure organismoaren sarbide oro baliatuta, gure erraietan barneratzen ditu bere herio-zuztarrak.

Félix Guattari, *Soft Subversions*, 1996

Kontrolari aurre egiteko dugun gaitasuna, edo harekiko ozantantuna, gure mugimendu bakoitzean ebaluatu behar da.

Gilles Deleuze, *Negotiations*, 1995

Sarrera. Zergatik gorputza?

Gorputzari buruzko literatura oso zabala bada ere, badira zenbait arrazoi haren gainean hitz egiten jarraitzeko.⁵¹ Lehenik eta behin, egia zaharra dugu: «hasieran gorputza dago». Hasieran gorputza dago, bere desirekin, bere gaitasunekin, esplotazioarekiko erresistentzia-molde askotarikoekin. Maiz esaten den bezala, ez dago ez aldaketa sozialik ez berrikuntza kultural edo politikorik gorputzaren bidez adierazten ez denik, eta ez dago jarduera ekonomikorik gorputzari eragiten ez dionik (Turner 1992). Bigarrenik, gorputza gure garaiko eztabaida filosofiko nagusien erdian dago, baina ez hor bakarrik; alderdi batzuei dagokienez, 1960 eta 1970eko hamarkadetako mugimenduek abiatutako proiektuari segida ematen dion iraultza kulturalaren erdian ere badago, eta mugimendu haiek lan politikoa-ren lehen lerroan jarri zuten askapen instintiboaren auzia. Nolanahi ere, gorputzari buruz hitz egiteko arrazoi nagusia hau da: birpentsatzen badugu nola bihurtu dituen kapitalismoak gure gorputzak lan-indar, errazago jarriko dugu testuinguruan gure gorputzak gaur egun bizitzen ari diren krisia. Era berean, hausnarketa horrek balio digu ulertzeko gure patologia kolektibo eta indibidualen atzean paradigma antropologiko berriak bilatzeko nahi bat dagoela.

Nik proposatu dudan azterketa-esparrua metodologia marxista ortodoxoaz bestelakoa da, baita teoria postestrukturalistak eta postmodernoak gorputzari eta diziplina-erregimenei buruz proposatutako azalpenez bestelakoa ere. «Proletalgoaren formakuntzari» buruzko azalpen marxista ortodoxoek ez bezala, nire azterketak ez die begiratzen soilik lan-prozesua-

51 Artikulu honen lehen bertsioa 2011ko ekainaren 28an aurkeztu nuen, Thessaloniki-n egindako Psikologia Teorikoari buruzko Konferentzian.

ren antolamenduak gorputzean eragindako aldaketei. Marx ohartu bezala, lan-indarrak ez du existentzia bereizi bat; «gizabanakoaren gaitasun gisa soilik existitzen da», gorputzaren gaitasun gisa (Marx 1976, 274). Beraz, ezin da espero jendeak mendeko lanaren diziplina onartuko duenik soil-soilik «ekoizleak beren biziraupen-baliabideez desjabetuta» edo zartailuaren, kartzelaren eta urka-bilurraren bidezko indarkeriarekin. Kapitalismoaren garapenaren hasierako fasetik gaur egunera arte, ordainduta zein ordaindu gabe jendea beste batzuen zerbitzura lan egitera behartzeko, kapitalismoak erreproduktio sozialaren prozesu osoa berregituratu behar izan du, eta birmoldatu behar izan du ez bakarrik lanarekin dugun harremana, baita identitateari, espazio/denborari eta gure bizitza sozial eta sexualari buruz dugun ikuspegia ere.

Hortaz, gorputz langileen eta «diziplina-erregimen» berrien ekoizpena ezin da ulertu soilik lan-antolamenduan egindako aldaketa gisa, edo «praktika diskurtsiboen» ondorio gisa, teoriarari postmodernoei proposatzen duten bezala. «Diskurtsoreen ekoizpena» ez da jarduera autoeratu bat, ezta bere burua iraurazten duen ekintza bat ere. Plangintza ekonomiko eta politikoaren zati integral bat da, eta hark eragiten dituen erresistentzia. Egia esan, diziplinen historia bat idatz genezake —haien paradigma-aldaketena eta berrikuntzena—, haien bilakaera eragin duten gatazken ikuspuntutik abiatuta.

Gure gorputzak batez ere diskurtsibotzat jotzen baditugu, alde batera uzten dugu, halaber, giza gorputzak gure ingurune naturalarekin batera eboluzionatu duten gaitasunak, beharrak eta desirak dituela, zeinak ezin baitira erraz ezereztu. Beste inon ere idatzi izan dudana bezala, behar eta desiren egitura metatu hori,

milaka urtetan gure erreprodukzio sozialaren aurrebal-dintza bat izan dena, lan-esplotaziorako muga ahaltsu bat izan da, eta horregatik saiatu da kapitalismoa, hasie-ra-hasierako garapen-fasetik, gure gorputza otzantzen, nola-eta materiala, gorpuzduna, mugatua eta «arrazoia-ren» aurkakoa den guztiaren adierazle bihurtarazita.

Gorputza kapitalismoan: gorputz magikotik gorputz-makinara

Caliban eta sorginan (2004) argudiatu nuen ka-pitalismoak gorputzaren kontra egin duen «gudu historikoa» ikuspegi politiko berri batetik sortu zela. Ikuspegi hark lana metatze-iturri nagusi izendatu zuen, eta, beraz, gorputza *lan-indarraren existentziaren baldintza gisa* ulertzen zuen, eta haren kostuaren aurkako elementu nagusi gisa. Handik «biopolitika» sortu zen, baina ez «bizitzaren kudeaketa» orokor gisa, bai-zik eta historikoki berrikuntza sozial eta teknologiko etengabeak behar izan dituen prozesu gisa, eta behar izan duena, halaber, lan-antolamendu kapitalistarekin bateragarriak ez diren bizitza-molde oro suntsitzea.

Testuinguru horretan, funtsezko bi elementu identifikatu ditut, balio dutenak azaltzeko gorputza-ren kontzeptu berri baten sorrera eta filosofiaren eta estatu-terrorearen arteko kolaborazio berri baten ager-pena: batetik, XVI. eta XVII. mendeetan magiak jasan zuen eraso; bestetik, filosofia mekanikoaren gora-kada, zeina garai bertsuan gertatu baitzen. Baliabide desberdinekin eta erregistro desberdinetan bada ere, biek lagundu zuten paradigma kontzeptual eta dizipli-nazko berri bat sortzen: batere autonomiarik gabeko gorputz bat irudikatu zuten, espazioan eta denboran finkatua, portaera uniforme, erregular eta kontrolaga-ria izan zezakeena.

XVI. menderako, diziplinatzeko makina bat jarri zuten martxan, zeinaren bidez zernahi kostarik ere lan abstraktua egiteko gai zen indibiduo bat sortu nahi baitzen. Nolanahi ere, makina hura behin eta berriro egokitu behar zen, kontuan hartuta lan-antolamenduan egiten ziren aldaketak, unean uneko teknologia-molde nagusiak eta langileek menderatuak izatearen aurrean erakusten zuten erresistentzia.

Arreta erresistentzia horretan jarrita, ikus dezakegu nola XVI. mendean kanpotik mugitzen zen makina batek inspiratzen zuen gorputzaren mekanizazioa, hala nola ponpa batek edo palanka batek. XVIII. mendean, berriz, gorputza jada beste modu batean tankeratuta zegoen, alegia, bere kabuz mugitzen zen eta organikoagoa zen makina baten gisa. Bitalismoaren gorakadarekin eta «instintuen» teoriarekin (Barnes eta Shapin 1979, 34), gorpuztasunaren ikusmolde berri bat dugu, zeinak bestelako diziplina-molde bat ahalbidetzen baitu, zartailuaren behar txikiagoa duena eta barne-dinamismoen lanketa handiagoa eskatzen duena, eta horrek adierazten du ziurrenik lan-indarrak gero eta barneratuago dituela lan-prozesuaren diziplina-eskakizunak, lan soldatapekoa finkatzetik abiatuta.

Dena den, gorputza lan-indar bihurtzeko behar ziren erreminta guztiak kontuan hartuta ere, hau izan zen ilustrazioaren garaiko filosofia politikoak egin zuen jauzirik garrantzitsuena: justifikazio zientifiko bat eman zion lan-diziplinari, baita gizabidearen arauak onartzen ez zituztenak ezabatzeari ere. Sorginkeriazko eta deabruaren gurtzazko salaketak atzean utzita, XVIII. mendean biologia eta fisiologia elkarrekin uztartu zituzten; horrekin, arrazaren eta generoaren araberrako hierarkiak justifikatu zituzten, baita diziplina-erregimen desberdinen sorrera ere, une hartan

garatzen ari zen lan-banaketa sexual eta internazionalarekin bat etorrita. Ilustrazioaren garaiko proiektu intelektualaren zati handi bat bilakaera hartan ardaztuta zegoen, bai arraza eta sexua asmatzeko garaian (Schiebinger 2004, 143-83; Bernasconi 2011, 11-36), bai teoria monetario berriak sortzerakoan ere, zeinek dirua lanerako pizgarri gisa ulertzen baitzuten, ez iraganeko aberastasunaren erregistro gisa (Caffentzis 2000; argitaratzekoa den Caffentzis). Izan ere, ezinezkoa da Ilustrazioko kultura eta politika ulertzea —hau da: monogenisten eta poligenisten arteko eztabaidak; gizon eta emakumeen fisiologiaren berreraikuntza, neurrigabeki desberdin gisa ulertuta (Laqueur 1990, 4-6); garezurraren azterketak, zeinek «zientifikoki frogatzen» baitzuten gizon zurien burmuinaren nagusitasuna (Stocking 1988)— baldin eta fenomeno horiek esplotazio-molde desberdinen naturalizazioarekin lotzen ez baditugu, batez ere soldata-harremanen parametrotik kanpora geratzen direnenarekin.

Testuinguru horretan, mekanismo organikoago baten sorrera ere —XVIII. mendean esparru filosofiko eta zientifiko osoan ikus zitekeena— lan-indarraren gero eta adarkatze handiagoari egozteko tentazioa izan dezakegu, baita proletariotza zuri maskulinoaren sorrerari ere, zeinak oraindik ez baitzuen bere burua kontrolatzen, baina, Peter Linebaugh-ek *The London Hanged* (1992) liburuan erakutsi bezala, gero eta gehiago onartzen zuen lan soldatapekoaren diziplina. Beste hitzez, tentagarria da irudikatzea biologiaren alorreko magnetismoaren teoriaren garapenak, filosofiaren eta ekonomia politikoaren alorreko instintuen teoriak (hau da, «salerosketaren instintua») eta fisikaren eta filosofia naturalaren alorrean elektrizitateak eta grabitateak izandako paperak —guztiak ere burmuinaren

antz handiagoa duen gorputz-eredu autopropultsatu bat auresuposatzen dutenak— lan-banaketa gero eta handiagoa islatzen dutela eta, beraz, baita gorputzak lan-ingar bihurtzeko moldeen arteko desberdintasun gero eta handiagoa ere. Hipotesi horrek azterketa sakonagoa behar du. Ziurtzat jo dezakeguna da ilustrazioaren garaian beste urrats bat egin zela gizakia eta makina berdintzeko bidean; giza biologiaren ikuspegi berreraikiak gizakiaren eta naturaren ikuspegi mekaniko berrietarako oinarria eskaintzen zuten.

Psikologia eta gorputzak lan-ingar bihurtzea Industrializazio Garaian

XIX. mendearen azken zatian, psikologiak arduratu behar zuen «gizamakinaren» eraikuntza hobetzeaz, eta, rol estrategiko hartan, alde batera utzi behar zuen filosofiak zuen zeregina. Lege psikofisikoekiko kezka agertzen zuenez eta erregulartasun kausaletan sinesten zuenez, psikologia taylorismoaren neskame bilakatu zen; sistemak langileen psikeari eragindako kaltea kontrolatzeaz arduratu behar zuen, eta konexio egokiak ezarri behar zituen gizakien eta makinaren artean. Lehen Mundu Gerraren ondoren, areagotu egin zen psikologiak bizitza industrialean zuen parte-hartzea; izan ere, gerra hark subjektu esperimental uniforme eta esanekoen masa bat eskaini zion ikerkuntza klinikoari, zeinak «jarrerak» eta kontrol-baliabide egokiak aztertzeko laborategi bikain bat eskaintzen baitzuen (J.A.C. Brown 1954; Rozzi 1975, 16-17). Hasiara batean, psikologiak lan muskularrak gorputzean zuen eragina aztertzeko jardun zuen; berehala, baina, langileen absentismoari eta industria-diziplinaren aurkako beste erresistentzia-molde batzuei aurre egin behar izan ziren, baita bere metodo

eta teknika propioekiko erresistentziari ere; halandaze, handik gutxira psikologia lan-indarrarekiko kontrolik zuzenena zuen diziplina bihurtu zen. Psikologoek are doktoreek eta soziologoek baino gehiagotan hartu dute parte langileen aukeraketan; milaka elkarrizketa egin dituzte, milaka test prestatu, «lanerako gizonik onena» hautatzeko, frustrazioak detektatzeko eta maila-igoe-rei lotutako erabakiak hartzeko (Rozzi 19).

Dela lan-antolaketa industrialak berezkoak di-tuen patologiak aurretik existitzen den errealitate instintibo bati (beharrak, irrikak, jarrerak) egozten, dela irabaziak lortzeko asmo hutsez ezarritako politi-kak zientifikotasun-geruza batekin estaltzen, 1930eko hamarkadatik aurrera psikologoak fabriketan egon izan dira, batzuetan langile iraunkor gisa, lana/kapitala gatazkan zuzenean parte-hartuz. Renato Rozzik *Psico-logi e Operai* (1975) lanean adierazi bezala, psikologoek borroka horretan izan duten parte-hartzea oso garran-tzitsua izan da psikologia diziplina gisa garatzeko. Izan ere, langileak kontrolatzeko beharrak bultzatuta, psi-kologoek haien «subjektibitatea» aintzat hartu behar izan dute, eta beren teoriak langileen erresistentziaren ondorioetara egokitu. Laneguna murrizteko borrokak, adibidez, giharretako nekeari buruzko ezin konta ahala azterketa mediko eragin zituen, eta, hala, giharretako nekea kontzeptu zientifiko bilakatu zen lehen aldiz (Rozzi 20n, 158).

Halere, industria-psikologiak langileak murriz-keta-sare batean sartzen jarraitu du —irriken, jarrerren, izaera instintiboen diskurtsoa—, zeina langileen «pa-tologien» jatorriaren mistifikazio sistematikoan eta lan alienatuaren normalizazioan oinarrituta baita-go. Izan ere, psikologoek egin behar izan duten lana izan da langileen eguneroko errealitatea ukatu, eta,

halako neurritan egin dute, ezen garai hartako azterketa psikologiko gehienek ez baitute inolako baliorik, ez bada ikuspuntu historiko edo genealogiko batetik, Rozzik dioen bezala. Adibidez, ezinezkoa da teoria batzuk —esate batera, «istripuetarako joerarena» (Brown 257-59)— begitartea aldatu gabe onartzea, nahiz eta 1950eko hamarkadan normaltasunez erabili ohi ziren Estatu Batuetako lantokietako istripuen maiztasuna azaltzeko eta erakusteko lan-ingurunearen hobekuntzek ez zutela ezertarako balio.

Psikologia funtsezkoa izan da, halaber, gizarte-erreproduzioa berrituratzeko, batez ere sexualitatearen arrazionalizazioaren bidez. Freuden ustez, femeninotasunaren eraikuntza biologian oinarrituta zegoen, eta horrek zerikusia zuen mendealdaketarekin batera erdi-mailako klaseko familian sortu zen krisiarekin (bere ustez, krisi haren erroek emakumeen zapalkuntza sexual gehiegizkoan zetzaten). Bada, halako arreta jarri zitzaion Freuden uste hari, ezen ezkutuan geratu baitzen psikologiak garai berean langile-klasearen —batez ere langile-klaseko emakumeen— sexualitatearen diziplinatzeari egingdako ekarpena. Esate batera, hortxe dugu Cesare Lombroso-ren teoria, esaten zuena prostituta «kriminal izateko jaioa» zela (Lombroso eta Ferrero [1893] 2004, 182-92); teoria horrek azterketa antropometriko andana bat ekarri zuen berekin, erakusten zutenak esleitutako rol femeninoari aurre egiten zion emakume oro eboluzio-maila apalago baterako atzerapauso bat zela. «Homosexualitatea», «inbertsioa» eta masturbazioa nahasmendu mental gisa eraikitzea (adibidez, Kraft-Ebbing-en *Psychopathia Sexualis* liburuan, 1886) eta Freudek 1905ean «aurkitutako» «orgasmo baginala» proiektu bereko kontuak dira. Joera hori fordismoaren

etorrerarekin bukatu zen; Ford-ek bost-dolar-eguneko soldataren kontzeptua ekarri zuen, zeinak epoka bat markatu baitzuen, eta emazte baten zerbitzuak bermatu zizkion langileari, sexu-gogobetetasunaren eskubidea zuzenean soldatarekin lotuta eta sexua etxe-koandreairen lan-kargaren funtsezko parte bilakatuta. Ez halaberrez, Depresio Handiaren garaian, gizarte-langileek langabezian zeuden emakume proletarioak bahitzen zituzten askotan, baldin eta «jokabide promiskuoa» izan zutela uste bazuten —adibidez, ezkontzeko asmorik gabe gizon batekin ibiltzen baziren—, eta osasun mentaleko ospitaleetako psikologoek esku uzten zituzten, zeinek emakumeak konbentzitu nahi izaten baitzituzten tronpak lotzeko, askatasuna berreskuratu nahi baldin bazuten. 1950eko hamarkadan, emakume errebeldeentzako zigorrak are gogorragoak ziren, lobotomia aurkitu baitzuten, zeina bereziki eraginkortzat jotzen baitzen etxeko lanak egiteko zaletasuna galdu zuten etxeokandre depresibo eta axolagabeentzat.⁵²

Psikologia hura kolonietara ere eraman zuten: nortasun afrikarraren existentzia teorizatu, eta afrikarrek langile europarrekiko zuten gutxiagotasuna justifikatu zuten. Horren bidez, soldata-desberdin-

52 Lobotomia ohikoa izan zen bi hamarkadaz baino gehiagoz. Lobotomia-ebaketa gehienak Estatu Batuetan egiten ziren; 1950eko hamarkadarako, berrogei mila lagun inguru lobotomizatu zituzten, lehena 1936an. Jarduera hark 1949an jo zuen goia: bost mila ebaketa baino gehiago egin ziren. Britainia Handian ere egiten zuten, baita hiru herrialde nordikotan ere, Finlandian, Norvegian eta Suedian. Eskandinaviako ospitaleetan AEBkoetan baino 2,5 lobotomia gehiago egiten zituzten biztanleko. Paziante gehien-gehienak emakumeak izaten ziren. Ikus Joel Braslow, «Therapeutic Effectiveness and Social Context: The Case of Lobotomy in a California State Hospital, 1947-1954», *Western Journal of Medicine* 170, 5. zk. (1999ko ekaina): 293-96. Berezkotasuna eta desira indibidualak galtzen bazituzten ere, bai sendagileek bai senarrek uste zuten emakumeak askoz hobeto zeudela ebakuntzaren ondoren, eta janaria prestatzeko, etxea garbitzeko eta etxeko lanak egiteko gaitasuna osabidearen partetzat jotzen zutela.

tasunak eta arrazagatiko segregazioa ere justifikatu zituzten. 1930eko hamarkadatik aurrera, psikologoak funtsezkoak izan ziren Hego Afrikako herritarrak behetitu asmoz egiten ziren errituak aplikatzeko; esate batera, «beroarekiko tolerantziaren probak» egiten zizkietelakoan, urre-meategietan lan egiteko prestatzen zituzten, eta, hala, eskubiderik gabe uzten zituen lan-egoera batera bultzatzen zituzten (Buchart 93-103).

Orainaldira itzuliz

Gaur egunera itzulita, zer ikas dezakegu historia konplexu horretatik? Uste dut hiru irakaspen garrantzitsu atera ditzakegula. Lehenik eta behin, ikasi dugu lan-diziplina kapitalistak nahitaezkoa duela gorputza mekanizatzea, haren autonomia eta sormena sunsitztea, eta gure bizitza psikologiko eta sozialaren ezein azalpenek ez luke alde batera utzi behar errealtate hori. Bigarrenik, psikologoak gorputzak lan-indar bihurtzeko eraldaketaren konplize izan ziren, eta beren jarduna zientziazat jotzeko beharrezkoak diren premisak hautsi zituzten, alde batera utzi baitzituzten ezinbestean aztertu beharreko errealtatearen alderdi esanguratsuak, hala nola industria-lanak gure gorputz eta gogoei inposatzen dien erregimentazioaren aurrean langileek erakutsitako aurkakotasuna.

Are garrantzitsuagoa dena, gorputza lan-indar bihurtzeko eraldaketaren historiak agerian uzten du kapitalismoa 1960ko hamarkadatik aurrera bizitzen ari den krisi sakona. Klase kapitalista lan-prozesuaren mundu mailako berrantolamenduaren bidez saiatu da krisiari aurre egiten, baina egin duen bakarra izan da are indar handiagoarekin bultzatu krisia eragin zuten kontraesanak. Izan ere, gero eta argiago dago balioa ekoizteko behar den diziplina bermatzen du-

ten mekanismoek jada ez dutela funtzionatzen. Horri dagokionez, 1960ko eta 1970eko mugimenduak inflexio-puntu bat ezarri zuten, industria-lanaren kontrako altxamendu bat adierazi baitzuten; izan ere, industria-lanak «fabrika sozialaren» adierazpen oro baliatzen zuten, muntaketa-katetik hasi eta etxeko lanetaraino, baita bi horientzat baliagarriak ziren genero-identitateak ere. Testuinguru horretan, hainbat ekimen aipa daitezke: langileen bluesa;⁵³ industriako langileen eskaera atsedendia izateko —eta ez lan gehiagoren truke diru gehiago eskuratzeko—; feministek lan erreproduktiboen naturalizazioaren aurrean erakutsitako aurkakotasuna; eta gay mugimenduaren gorakada, zeinari laster transexualen mugimendua gehituko baitzitzaion. Horiek guztiek norberaren jarduna lan abstraktu bihurtzearekiko ukoa adierazten dute, nork bere desirak betetzeari utzi behar izatearekiko ukoa, gure gorputzak makinekin identifikatzearekiko ukoa, eta adierazten dute, halaber, *gure gorputzak lan-indar gisa jarduteko dugun gaitasunaren mendekoak ez diren moldeetan definitzeko erabakitasuna*.

Uko edo arbuio horren indarra bere kontra erabiliko indar-multzoen bidez neur daiteke. Izan ere, munduko ekonomia guztia arbuio horri aurre egiteko berregituratu da. Lanaren prekarizaziotik eta malgutzetik hasi eta erreproduktzio sozialaren prozesuetan

53 «*Blue-collar blues*»: 1971n, General Motors konpainiak Lordstown-eko (Ohio) fabrika berrantolatu zuen; langile asko kaleratu eta lan-baldintzak asko gogortu zituzten, produkzioa areagotzeko. Langileak, batez beste 24 urtekoak, matxinatu egin ziren, eta istilu ugari izan ziren; astiroago lan egiten zuten, sabotajeak egiten zituzten, eta 22 eguneko lanuztea egin zuten. Hurrengo urteetan, fenomeno hari «Lordstown sindromea» edo «*blue-collar blues*» [langilearen bluesa] deitu zioten; alegia, esaten zen halako langile militante gazteek aurrerantzean ez zutela egingo lan errepikakorrik, ez zutela onartuko inor robot gisa tratatzerik. [Itzultzailearen oharra]

estatuak egindako desinbertsioetaraino, politika-multzotz bat erabili dute saiatzeko ez bakarrik borroka horiek garaitzen, baita ere harreman kapitalisten nonahikotasunean eta hegemonian oinarritutako diziplina berri bat sortzen.

Esate batera, prekarietatearen instituzionalizazioak biziraupenaren aurrean sentitzen dugun antsietatea areagotu du, baina, horrez gain, langile despertsonalizatuak sortu ditu, moldakorrak, edozein unetan lanbidea aldatzeko prest daudenak (Berardi 2009a; 2009b). Identitatearen galera eta ezintasuna are handiagoak dira, lanaren informatizazioak eta automatizazioak portaera-molde oso mekaniko, militar eta gizagabetzaileak sustatzen dituztelako, zeinetan pertsona sistema mekaniko zabalago baten osagai huts bilakatzen baita (Levidow eta Robins 1989). Gaur egun, lanaren abstrakzioa eta erregimentazioa goien gradura iritsi dira, baita gure alienazio- eta desozializazio-sentipenak ere. Egoera hori gure bizitzetan eragiten ari den estres-maila neurtzeko, aski da erreparatzea buruko gaixotasunen masifikazioari —izua, antsietatea, beldurra, arreta-gabezia— eta botiken gero eta kontsumo handiagoari, Prozac-etik hasi eta Viagraraino. Esan izan da, halaber, telebistako *reality show*en arrakasta gure bizitzekiko urruntze-sentimendu psikologiko horren ondorioa dela. Izan ere, beste batzuk nola bizi diren eta zer egiten duten ikusteko nahiak eta geure burua haiekin konparatzekoak —hori baita, Renata Salecl-ek (2004) erakutsi duenez, industriaren adar hori bultzatzen duena— erakusten du gure bizitza galtzen ari denaren sentimendu bat dugula, nahiz eta programa berberak birtualtasun handiagora bultzatzen gaituzten, eta ez errealtatera hobeto atxikitzera.

Biziraupenaren ziurgabetasunak eragindako beldurra eta antsietatea mundu mailako lan-makinaren aurkako iraultza itozteko estrategikoki erabiltzen den terrorearen alderdi bat baino ez da. Hori bezain garrantzitsua da eguneroko bizitzaren militarizazioa, gaur egun nazioartean boladan dagoena. Horren iturburua 1990eko hamarkadan AEBn abiatutako kartzelatze masiboaren politikan datza, zeina uler baitaiteke batez ere beltz gazteen aurkako gerra gisa eta, Europar Batasunean, immigranteen atxilotze-zentroen ugaritze gisa. Zigorrek ere gogortu dira: gutxieneko kartzelaldia, «hiru hutsegiteen» legeak,⁵⁴ deskarga elektrikoko pistolen erabilera, bakarkako konfinamendua eta emakume eta haur atxilotuen kopuruaren gorakada (Williams 2006, 205; Solinger et al. 2010; Donner 2000). Gaur egun, tortura ohikoa da, ez bakarrik «terrorearen aurkako gerran», baita AEBko kartzeletan ere. Kristian Williamsek dioen bezala (2006), ez dira ez anomaliak ez galbidean dagoen justizia baten nahigabezko ondorioak. Eguneroko bizitzaren militarizazioak protestak zigortzen ditu, berregituratze ekonomikoaren sareetatik ihes egindakoak kontrolatzen ditu eta arrazaren arabera ko lan-banaketa iraunarazten du, eta, hala, estatuak herritarren gorputza suntsitzeko duen eskubidea baieztatzen du (216). Izan ere, gaur egungo espetxe-sistemak ez ditu herritarrak zentzutzen, eta terrorea zabaltzeko eta klase-nagusitasuna sendotzeko instrumentu bat da inolako zalantzarik gabe.

Orain arte, indarraren gehiegizko hedapen horrek eutsi dio lanaren antolamendu kapitalistaren aurkako iraultzari. Baina gure beharrik funtsezkoenak asetzeko kapitalak duen ezintasuna gero eta ageri-

54 *Three-strikes law*: Estatu Batuetan, indarkeriazko hiru delitu eginez gero biziarteko kartzela-zigorra ezar daiteke.

koagoa bilakatzen ari den neurrian, gure gorputzak lan-indar bihurtzeko eraldaketa ere gero eta problematikoagoa da. Areago, terrorearen instrumentuak ere gainbeheratzen ari dira. Behatu adibidez gerrarekiko eta soldadutzarekiko arbuio gero eta handiagoa; AEBko armadan, zeina orain borondatezkoa baita, suizidio-kopurua oso handia izan da, eta, ondorioz, berreziketa masibo bat eta «egokitzapen»-programa bat abiatu behar izan dituzte. Bestalde, prekarietatearen instituzionalizazioa bi ahoko arma da. Mendeko lanaren desnaturalizazio erradikalerako baldintzak ezartzen ditu, eta ezartzen ditu, orobat, soziologoek urte luzez biztanleria industrialarentzat ezinbestekotzat jo izan dituzten gaitasunak galtzeko baldintzak. Chris Carlssonek *Nowtopia* (2008) lanean dokumentatu bezala, gero eta jende gehiago ari da bilatzen lanak eta merkatuek erregulatutako bizitza ordezkatzeko alternatibak; izan ere, lan-erregimen prekarizatu batean lana jada ezin daiteke izan nortasuna eraikitzeko bide bat, eta, bestalde, sortzaileagoak izateko nahia ere badute. Ildo beretik, gaur egungo langile-borrokak ez dira garai bateko grebak bezalakoak; izan ere, humanitate-molde berrien eta gizakien eta naturaren arteko harreman-molde berrien bilaketa islatzen dute. Hori erakusten digu, adibidez, «komunen» diskurtsoarekiko eta praktikarekiko interesak, zeina jada ekimen berri ugari eragiten ari baita, hala nola denbora-bankuak, truke-sistemak, hiri-ortuak eta komunitatean oinarritutako erantzukizun-egiturak. Hori erakusten digu, halaber, genero-identitatearen eredu androgenoen hobespenak, transexualen eta intersexualen mugimenduen gorakadak eta generoaren arbuio queerak, zeinen inplikazio guztiek adierazten baitute sexuaren araberako lan-banaketa zalantzan jartzen dela. Beste

kontu bat ere aipatu behar dut, alegia, tatuajeekiko eta gorputz-dekorazioaren artearekiko zaletasuna, mundu osoan zabaltzen ari dena eta sexu-, arraza- eta klase-mugak gainditzen dituzten komunitate berriak eta irudimenezkoak sortzen ari dena. Fenomeno horiek guztiek erakusten dute ez bakarrik diziplinazko mekanismoak hautsi direla; erakusten dute, halaber, gure humanitatea birmoldatu nahi dugula, nola-eta mendeetan iraun duen diziplina kapitalistak guri inposatutako molde desberdinetan; egia esan, aurkakoetan.

Non kokatuko dira psikologoak fenomeno horren aurrean? Gaur egun, ikusteko dago oraindik. Psikologiak erakutsi du gai dela bere burua eraldatzeko eta bere aztergaien subjektibitatea onartzeko. Baina ez du bildu Botereari aurre egiteko kemena. 1960ko hamarkadan, psikologo eta psikiatra disidenteek (adibidez, Félix Guattari eta Franco Basaglia) kritika erradikala egin zioten psikologiaren korrante nagusiari, baina, halere, psikologiak boterearen konplize izaten jarraitzen du. Gaur egun, AEBko psikologoek aktiboki parte hartzen dute tortura-tekniken eta galdeketa-metodoen hautaketan. AEBko Psikiatren Elkarteak ez bezala, AEBko Psikologoek Elkarteak uko egin dio orain arte bere kideek onartutako ebazpen bat gauzatzeari, zeinak debekatu egiten baitie galdeketetan parte hartzea baldin eta nazioarteko legea edo Genevako Konbentzioa hausten badira.

Psikologoak ekintzen errudunak dira, eta orobat dira omisioenak. Salbuespenak salbuespen, ez dute patogenotzat jo lanaren antolamendu eta diziplina kapitalista; aitzitik, lanaren salmenta bizitza sozialeko egintza normal gisa onartu dute, eta haren aurkako iraultza alde aurretik ezarritako joera finkoei buruzko diskurtsoaren bidez ito beharreko ezohiko

gertaeratzat ulertu dute. Omisio horren adibide sinple baina esanguratsu bat: ez da egin soldata-mailen garrantziari eta balioari buruzko ikerketa psikologikorik; bereziki, ez da egin soldata-igoerek eta -jaitsierek faktore (des)motibatzaile gisa jokatzan duten paperari buruzko azterketarik. «Errendimenduaren ebaluazioari buruzko literatura psikologiko asko badago ere, ikerketa horren zati txiki batek baino ez du aztertu zer ondorio dituen soldata eta lan-ingurunean ebaluatutako errendimendua lotzeak» (Rynes, Gerhart, eta Parks-Leduc 2005, 572-73). Era berean, ez da inon onartzen zenbait faktore ekonomikorik —hala nola langabeziak, osasun-asegururik ez izateak eta lanaren aurkako matxinadak— nahasmendu mentala eragin dezaketenik. Aitzitik, psikologoak ere ekonomialarien atzetik joan dira: «zoriontasunaren azterketak» egin dituzte, beste behin ere saiatzeko guri sinestarazten pentsamendu positiboa, baikortasuna eta, batez ere, «erresilientzia» direla arrakastarako gakoak —erresilientzia: eslogan berri bat diziplinatzea xede duten baliabide semantikoen zakuan—. Hemen aipatu behar da «zoriontasunaren ikerketen» dekanon Martin Seligman-ek hitzaldi bat eman zuela AEBko armadaren eta CIAren aurrean; «babesgabetasun ikasiaren» egoerari buruzkoa izan zen, zeina ustez tortura-prozesuen parte gisa garatzen baita, eta armadak 31 milioi dolarreko dirulaguntza eman zion soldaduei erakustegatik gerrak eragindako traumen aurrean «erresilienteagoak» izaten (Greenberg 2010, 34).

Bada garaia psikologoek gorputza lan-indar bihurtzeko diseinatutako teknikak salatzeke, zeinek filosofiatik terrorrea eta psikologiatik torturara eramaten baitute ezinbestean. Psikologiak jada ezin ditu kapitalismoak eragindako patologiak lekualdatu au-

rrez osatutako gizatasun batera, ezta gure gorputzak behartzea xede duten alkandora hertsagarriak egiten jarraitu ere, ez ikusia eginez gure gorputzaren osotasunak sistema ekonomiko eta politiko honen eskuetan egunero jasaten duen bortxaketari.

ZORTZI

SEXU-LANAREN JATORRIA ETA GARAPENA AEB-N ETA BRITAINIA HANDIAN

Gizarte kapitalistaren hastapenetik, eta ekoizpen eta lan-banaketa kapitalistaren testuinguruan, sexu-lanak funtsezko bi funtzio bete ditu. Alde batetik, langile berriak munduratzea bermatu du. Bestetik, giltzarria izan da langile horien eguneroko erreprodukzioan; alegia, sexu bidezko arindura izan da, gizonentzat bederen, lanegunean zehar pilatutako tentsioen segurtasun-balbula, are beharrezkoagoa kontuan hartzen badugu denbora luzez langileei onartutako plazer urrietako bat izan zela. «Proletarioak» kontzeptuak berak zera adierazten zuen, langile-klase ugalkor bat, eta ez bakarrik haur bat gehiago edukitzeak beste langile bat eta beste soldata bat ekartzen zituelako berekin; izan ere, sexua zen pobreen plazer bakarra.

Dena den, langile-klasearen sexu-jarduera garrantzitsua bazen ere, estatuak ez zuen askorik arautu industrializazioaren lehen fasean. Fase hura XIX. mendearen bigarren erdialdera arte luzatu zen, eta garai hartan klase kapitalista gehiago kezkatzen zuen sortu beharreko lan-indarraren kantitateak haren kalitateak baino. Langile ingelesak, nola gizonak hala emaku-

meak, hogeita hamabost urterekin hiltzen ziren batez beste, baina fabriken jabe britainiarrei bost axola hori; garrantzitsuena zen urte haiek guztiak fabrikari igarotzea, goizabarretik ilunabarrera arte, bizitzaren lehen urteetatik heriotzara arte, eta lan-indar asko ekartzea mundura, etenik gabe hiltzen zirenak ordezkatzeko.⁵⁵ Gauza bakarra espero zen gizonezko zein emakumezko langile ingelesengandik, seme-alaba ugari izatea, eta ez zitzaion arreta handirik jartzen haien «jokabide moralari». Aitzitik, horixe espero zen, promiskuitatea ohikoa izatea behe-auzoetako logeletan, han igarotzen baitzituzten fabrikatik kanpora ematen zituzten ordu gutxiak bai Glasgow-ko langileek bai New York-ekoek. Orobat espero zen Ingalaterrako eta AEBko emakume langileak fabrikako lanetan eta prostituzioan jardutea,aldi berean edo txandaka; industrializazio-prozesua abiatzearekin batera, prostituzioa izugarri areagotu zen bi herrialdeetan.⁵⁶

XIX. mendearen bigarren erdialdean, gauzak aldatzen hasi ziren. Langile-klasearen borroka estututa, klase kapitalistak ekoizpena berregituratu zuen. Ondorioz, beste molde bateko langilearen beharra sortu zen,

55 Adibidez, esanguratsua da ezen AEBn, XIX. mendean zehar, sexurako adostasun-adina 10 urte inguruan ezarri zela emakumeentzat.

56 Oro har, onartzen da batez ere emakumeen soldata apalengatik eta behe-auzoetako sexuen arteko gurutzaketa promiskuoagatik gertatu zela prostituzioaren «leherketa» Ingalaterran, industrializazio-prozesuaren lehen fasean. Hau idatzi zuen William Actonek prostituzioari buruzko bere liburu ezagunean: «Emakume ugari... prostituziora iristen dira beren posizioetatik tentazio horretatik gertu daudelako. Hori gertatzen zaie, batez ere, aktoreei, kapelagileei, dendariei, etxe-langileei eta fabriketan edo nekazaritzako lantaldeetan behar egiten duten emakumei... Lotsagarria da, baina egia, halere: sektore batzuetan emakume langileei ordaintzen zaizkien soldata apalak prostituzio-iturri dira» (Acton [1857] 1969, 129-30). Zerbaitengatik, denbora luzez, familia burgesetan, emakumeen jokabide promiskuo edo «immorala» desohore baten gisara zigortzen zen. «Emakume haiek bezala jokatzek» esan nahi zuen emakume proletarioek bezala jokatzeko, «behe-mailako klaseko» emakumeek bezala.

eta, beraz, haren erreprodukzio-prozesua ere aldatu behar zen. Industria arinetik industria astunera igarotzean, egitura mekanikotik lurrun-makinara, arropa ekoiztetik ikatza eta altzairua ekoiztera, langile indartsuagoak behar ziren, ez hain zargalduak, ez hain gaixoberak; industrializazioaren fase hartan, langileek industria astunak eskatzen zuen lan-erritmo biziari eusteko gai izan behar zuten. Testuinguru hartan, klase kapitalistak —eskuarki langileen heriotza-tasa handiaz batere kezkatzen ez zenak— erreprodukzio-estrategia berri bai heldu zion: gizonen soldata igo, emakume proletarioak etxera itzularazi eta,aldi berean, fabrikako lana gogortu zuen. Hala, soldatapeko langileek erreprodukzio-baldintza hobek izango zituzten eta, beraz, lan gogor hari aurre egiteko gai izango ziren.

Halandaze, taylorismoaren eta lan-prozesuaren diziplina berriaren bidez, XIX. mendearen bigarren erdialdean langile-klaseko familiaren erreforma gauzatu zen. Helbururik inportanteena zen funtzio domestiko berri bat sortzea emakumearentzat, lan-indar gaituagoaren ekoizpena berma zezan. Horrek esan nahi zuen emakumeak bultzatu behar zirela ez bakarrik lan-indarra osatuko zuten haurrak izatera, baita langileen eguneroko erreprodukzioa bermatzera ere, lanerako gaitasuna berreskuratzeko behar zituzten zerbitzu fisiko, emozional eta sexualak eskainiz.

Aipatu bezala, bi faktorek sustatu zuten Ingalaterran 1850 eta 1880 bitartean gertatu zen lanaren berrantolamendua. Alde batetik, lan-indar osasuntsuagoa, diziplinatuagoa eta produktiboagoa ziurtatzeko beharra zegoen. Bestetik, eta, hau zen garrantzitsuena, kapitalak langile-klasearen antolamendua eragotzi nahi zuen. Halere, beste kezka bat ere

bazuten: fabrika-lanetan hasi zirenez geroztik, emakumeak uzkurrago agertzen ziren lan erreproduktiboak egiteko, eta galdu egin zuten hartarako gaitasuna; beraz, irtenbide bat bilatu ezean, langile-klase ingelesaren erreprodukzioa arrisku larrian egongo zen. Ingalaterrako gobernuak izendatutako inspektoreek fabriketako emakume langileen jokabideari buruzko txostenak idatzi zituzten aldizka 1840 eta 1880 bitartean, eta, haietan irakur daitekeenaren arabera, langile-klaseko gizonen osasuna eta oldarkortasuna baino zerbait gehiago zegoen jokoan erreprodukzio-erregimenaren aldaketa laudatuan.

Emakume diziplinatu gabeak, etxeko lanez, familiaz eta moralitasunaz kezkatzen ez zirenak; lanetik kanpo zeuden ordu gutxietan ondo pasatzea beste asmorik ez zutenak eta kalera irteteko beti prest agertzen zirenak, tabernara, gizonak bezala edan eta erretzera; beren seme-alabengandik urrunduak, ezkonduak eta ezkondegabeak. Horrela irudikatzen zituen burgesiak fabriketako emakume langileak; haien ustez, emakume langileek arriskuan jartzen zuten lan-indar egonkorraren ekoizpena, eta etxekotu egin behar ziren. Testuinguru hartan, langile-klaseko familiak «etxekotzea» eta lanaldi osoko langile-klaseko etxekoandreak sortzea estatu-politika bihurtu zen, eta horrek guztiak kapital-metaketaren molde berri bat ere abiarazi zuen.

1850eko hamarkadan, eta tupustean fabrika-bizitzaren errealtatera esnatu izan balira bezala, erreformatzaile-olde bat emakumeek etxetik kanpora igarotzen zituzten ordu luzeez marruka hasi zen, eta, «legedi babeslearen» bidez, lehenenik eta behin emakumeen gaueko txandak bertan behera utzi eta gero emakume ezkonduak fabriketatik kanpora egotzi zituzten, berriz hezteko eta, hala, «familiako aingeru»

gisa jarduteko gai izan zitezten; hau da, pazientzian eta mendekotasunean trebatzeko, batez ere kontuan hartuta aurrerantzean egingo zuten lanak ez zuela ezelango ordainik izango.

«Emakumeen bertutearen» idealizazioa, mendearen amaierara arte maila ertaineko eta goi-mailako emakumeei soilik zegokiena, langile-klaseko emakumeengana ere hedatu zen, haiek egin beharreko lanak diru-ordainik ez zuela ezkutatzeko. Beraz, ez da harritzekoa garai hartan kanpaina ideologiko berri bat egin izana langile-klaseko emakumeen artean amatasunaren eta maitasunaren idealak sustatzeko, biak ere norberaren sakrifizio erabatekorako gaitasun gisa ulertuta. Fantine, *Les Misérable*seko ama prostituta, bere haurtxoa mantentzeko ilea eta bi hortz saltzen dituen, ideal horren pertsonifikazio egokia zen. «Ezkon-maitasuna» eta «amatasun-sena» behin eta berriro agertzen dira erreformatzaile viktoriarren diskurtsoan, fabrikako lanak emakumeen moraltasunean eta rol erreproduktiboan dituen ondorio kaltegarrien gaineko kexekin batera.

Halere, ezinezkoa litzateke etxeko lanak arautzea sexu-lana arautu gabe. Etxeko lanekin gertatu bezala, fase honetan kapitalak eta estatuak ezarritako sexu-politikak ezaugarri nagusi bat zuen: familia burgesetako emakumeen portaera sexuala arautzen zuten printzipioak emakume proletarioengana hedatu ziren. Lehenik eta behin, ez zen onartzen emakumeek beren sexualitatea plazer-iturri gisa eta dirua irabazteko bide gisa erabiltzea. Izan ere, fabrikan lan egiten duen emakumea edo prostituta —biak ala biak ordainpeko lanak— familiaren hobe beharrez bere interes eta desira oro alde batera uzteko prest dagoen emazte/ama

ordaindugabe bihurtzeko, funtsezkoa zen «amaren rola» elementu erotiko oroz «garbitzea».

Horrek esan nahi zuen emazte/amak «maitasunaren» plazera soilik gozatu behar lukeela, eta maitasun hori sexurako eta ordainsari bat jasotzeko batere desirarik gabeko sentimendu gisa ulertu behar zela. Sexu-lanean ere, are gehiago nabarmendu zen «ugalketarako sexuaren» eta «plazererako sexuaren» arteko lan-banaketa, eta, emakumeen kasuan, are gehiago lotu zen sexua ezaugarri antisozialekin. Bai AEBn bai Ingalaterran, prostituzioari buruzko araudi berri bat ezarri zen «emakume zintzoak» eta «prostitutak» bereizteko —izan ere, emakumeak fabriketan enplegatzeak bereizketa hori lausotzea ekarri zuen—. Ingalaterrako araudiaren sustatzaileetako bat William Acton izan zen, eta adierazi zuen oso kaltegarria zela toki publikoetan beti prostitutak egotea. Bere arrazoiak oso esanguratsuak dira:

Nire interesik behinena zen kontuan hartzea zer-nolako ondorioak eragiten dituen emakume ezkonduengan horrelako *réunion*etara joateak eta haietan bozkarioz arrandiatzen duten ahizpatasun ez-moral eta lizuna ikusteko ohitura hartzeak, «lehen mailako ahizpatasuna», haien hitzetan; gizonen arreta oro onartuta, nahi beste likore eskura izanda, tokirik onenetan eserita, haien posiziotik aski goiti jantzita, dirua sobera gastatzeko, dibertitzeari eta gozatzeari uko egin gabe, etxeko lanen zamarik gabe, seme-alaben kargarik gabe. Dramaren esanahia edozein izan delarik ere, bizimodu askearen zinezko gailentasun hori ez zitzaion itzuriko sexu azkarrari. (Acton [1857] 1969, 54-55).

Actonen ekimena beste kezka batek ere akuilatu zuen, alegia, proletarioen artean gaixotasun benereoko hedatzea, batez ere sifilisa:

Irakurlea guraso arduratsua bada, ezinbestean etorri behar du bat nirekin; izan ere, nik proposatzen ditudan osasun-neurriak indarrean baleude, ez ote lioke berak ere antsietate gutxiagorekin begiratuko bere mutikoei haurtzarotik gizontasunera egiten duten bideari? Estatu-gizonak eta ekonomialari politikoak alde ditut jadanik; izan ere, ez ote dira armadak eta ontzidiak deuseztatzen, ez ote da lana ahultzen, ez ote dute herritarrek ere okerrera egiten nik borrokatu nahi ditudan gaitz horien ondorioz? (Acton [1857] 1969, 27).

Prostituzioa arautzeak esan nahi zuen sexu-lan-gileak osasun-kontrolak egitera behartzea, Frantzia XIX. mendearen lehen erdian ezarri zuten ereduaren arabera.

Araudi hori estatuak ezarri zuen, poliziaren eta medikuntzaren lanbidearen bidez, azken hori baitzen sexu-lanaren ikuskatzaile nagusia. Bada, araudi horrekin, prostitutek eta amek figura eta funtzio femenino bereizi eta elkar baztertzaileak betetzen zituzten instituzioen arabera; hau da, plazerik gabeko amatasuna eta amatasunik gabeko «plazera» instituzionalizatu ziren. Gizarte-politikak hasi ziren exijitzen prostituta ez zedila ama bilakatu.⁵⁷ Haren amatasuna ezkutatu egin behar zen, lantokitik desagerrarazi. Garai hartako literaturan, prostitutaren haurra landa-eremuan bizi da, zaintzaile karitatetsuen esku utzita. Aitzitik, espero zen amak, emazteak, «emakume zintzoak»,

57 Halere, ez zen erraza hori egitea. Esanguratsua da nola kexatzen zen Acton: Prostitutak ez dira, uste denaren kontrara, jardunean hiltzen. Aitzitik, gehienetan, lehenago edo beranduago, beren gorputz histu eta buru galbideratuekin, emazte eta ama bilakatzen dira; pertsona-klase batzuetan, sentimendu morala hain da biziotsua, ezen bere pertsona alokatzetik bizi den emakumea ia maila berekotzat hartzen baitute gizarte-harremanetan. Argi dago, beraz, emakume horiei marjinatu eta paria deitzen ahal badiegu ere, gaitakeriarako eragin handia dutela komunitatearen maila guztietan. Prostituzioak gizartean eragindako kalte morala neurtezina da; kalte fisikoa ere haren adinakoa da, gutxienez. (Acton [1857] 1969, 84-85).

etxeko zerbitzu gisa bakarrik begiratzea sexuari; ezkontzako betebeharrak itzuri ezina, plazerik emango ez ziona. Amari onartutako sexu bakarra ezkontzaren eta ugalketaren bidez araztutako sexua izango zen; hau da, ordaindu gabeko lanordu amaigabeekin, gozamen gutxirekin, eta beti ernaltzeko beldurrez. Hortik dator irudi klasikoa, XIX. mendeko nobelen bidez iritsi zai-guna: senarraren iradokizun sexualak jasaten dituen emakumea, gizarteak buruaren bueltan ipini nahi dion santutasun-aurari kontra egiteko beldurrez bizi dena.

Nolanahi ere, arrazoi bakarragatik egin du aurrera sexu-lanaren eta amatasunaren arteko lan-banaketak, alegia, kapitalak indarkeria psikologiko eta fisiko asko erabili duelako hori inposatzeko. Ama ezkongabearen halabeharrak, amatasunezko sakrifizioen gorespenarekin batera XIX. mendeko literaturaren orriak bete zituen ama «seduzitu eta abandonatu» haren patuak, etengabe ohartarazi die emakumeei edozer dela hobe «ohorea galtzea» eta jendeak «emagaldutzat» jotzea baino. Dena den, emakumeei batez ere proletarioen arteko prostituten bizi-baldintzek erakutsi diete zein den beren tokia; emakume haiek gainerakoengandik gero eta bakartuago bizi ziren, estatuak etengabe kontrolatuta.

Baina prostituzioaren kriminalizazioa gorabehera, langile-klaseko familia errespetagarri bat sortzeko ahaleginak ez zuen fruiturik eman luzaroan. Izan ere, langile-klaseko gizon gutxi batzuek bakarrik jasotzen zuten familiari «gizonaren lanarekin» soilik bizirauteko aukera ematen zion soldata, eta sexu-lana zen emakume proletarioentzat diru-sarrerarik errazena; gainera, horretara behartzen zituen sexu-harremannen ezegonkortasunak ere, zeinaren ondorioz berek bakarrik mantendu beharreko haurrak izaten baitzi-

tuzten askotan. 1970eko hamarkadan jakin genuen —eta zer pentsatua eman zigun— nola Italian, Lehen Mundu Gerraren aurretik, proletarioen haur gehienak aitatzat «NN» (*nomen nescio*, izena ezezaguna) zute-la erregistratu zirela. Nagusiek emakumeen pobrezia aprobetxatzen zuten haiek prostituziora behartzeko; izan zitekeen haien lan hala moduzkoak mantentzeko, edo izan zitekeen senarrak ez kaleratzeko.

Langile-klaseko emakume «zintzoei» dago-kienez, haiek beti jakin izan dute ezkontzaren eta prostituzioaren arteko marra, emagalduren eta emakume errespetagarriaren artekoa, oso mehea dela. Emakume proletarioek beti jakin izan dute zer esan nahi duen ezkontzak haientzat: «zerbitzaria egunez eta emagaldua gauzez»; izan ere, ezkon-ohea abandonatzeko ideia bururatzen zitzairen aldiro, beren pobrezia ekonomikoari aurre egin behar izaten zioten. Halere, emakumeen sexualitatea zerbitzu gisa eraikitzeak eta haiei plazera ukatzeak zera ekarri du, denbora luzez pentsatzea emakumeen sexualitatea bekatua dela eta ezkontzaren eta ugalketaren bidez soilik garbitu daitekeela; horren ondorioz, emakume guztiak prostituta potentzialak ziren, etengabe kontrolatu beharrekoak. Halandaze, mugimendu feminista sortu aurreko hainbat belaunalditan, emakumeek zerbait lotsagarri gisa bizi izan zuten beren sexualitatea, eta erakutsi egin behar izaten zuten ez zirela prostitutak. Era berean, prostituzioa, sozialki kondenatua eta estatuak kontrolatu beharrekoa izan den arren, lan-indarra erreproduzitzeko osagai ezinbestekotzat jo izan da, hain zuzen ere onartu izan delako emazteak ezin izango zuela erabat ase senarraren sexu-beharra.

Hori dela eta sozializatu zuten lehen-lehenik sexu-lana, gainerako etxeko lanen aurretik. Estatuaren

putetxeen bidez —*casa chiusa* (etxe itxia) edo *maison des femmes*—, zeinak ohikoak baitziren kapitalaren sexu-lanaren plangintzaren lehenengo fasean, emakumea maitale kolektibo gisa instituzionalizatu zen; hau da, emakume haiek estatuaren zerbitzura lan egiten zuten, zuzenean edo zeharka, eta estatuak senar edo proxeneta kolektibo gisa jarduten zuen. Sexu-lanak ghettoetan bildu zituen emakumeak, eta ordaindu egiten zitzairen, milioika emakumek doan egiten zuten egiteko; horrez gain, sexu-lanaren sozializazioak produktibitatearen eraginkortasunaren irizpideei erantzun die. Koitoaren taylorizazioak, zeina ohikoak baitzen putetxeetan, ikaragarri areagotu zuen sexu-lanaren produktibitatea. Estatuak babestutako sexu erraz eta kostu txikikoa ezin hobea zen langilearentzat; izan ere, eguna fabriketan edo bulegoan igaro ostean, ez zuen izaten ez denborarik ez energiarik maitasun-kontuetarako edo borondatezko harremanetarako.

Sexu-lanaren aurkako borroka

Familia nuklearra indartzearekin eta ezkontza barruko sexua areagotzearekin batera, fase berri bat zabaldu zen emakumeek etxeko lanen eta sexu-lanaren aurka abiatua zuten borrokan. Hori erakusten du, adibidez, dibortzioak XX. mendearen hasieran bizi izan zuten gorakadak, batez ere AEBko eta Ingalaterrako erdi-mailako klasean, haietan ezarri baitzen lehenengoz familia nuklearraren eredia.

O'Neill-ek (1967) dioen bezala, «XXI. mendearen erdialdera arte edo, dibortzioak oso bakanak izaten ziren Mendebaldean; handik aurrera, hain abiadura etengabearekin areagotu ziren, ezen mendearen amaierarako ezkontza deuseztatzea fenomeno sozial garrantzitsutzat jotzen baitzen» (O'Neill 1). Eta honela

jarraitzen du: «Familia viktoriarra instituzio berrizat jotzen badugu... uler dezakegu zergatik bilakatu zen dibortzioa familia-sistemaren parte ezinbestekoa. Familia gizarte-antolamenduaren erdigunea bihurtzen denean, haren intimitatea itogarria bihurtzen da, haren mugak jasanezinak, eta haren itxaropenak, berriz, lortzen zailegiak» (6).

O'Neill-ek eta bere garaikideek ondotxo zekiten familia-krisiaren eta dibortziazteko presaren atzean emakumeen matxinada zegoela. Estatu Batuetan, dibortzio-eskaera gehienak emakumeek egiten zituzten. Dibortzioaren bidez, emakumeek adierazten zuten ez zutela onartzen familia-diziplina, baina ez hori bakarrik. Garai berean, bai AEBn bai Ingalaterran, ugalkortasun-tasak beherako joera hartu zuen. 1850 eta 1900 bitartean, AEBko batez besteko familiak kide bat gutxiago zuen. Aldi berean, mugimendu feminista bat garatu zen bi herrialdeetan; esklabotzaren abolizioaren aldeko mugimenduak inspiratua zen, eta «etxeko esklabotza» hartu zuen xedetzat.

«Emakumeak errudunak dira?». Izenburu hori dibortzioari buruzko sinposio batena da; North American Review aldizkariak argitaratu zuen, 1889an, eta garai hartan emakumeen aurka abiatutako erasoaren ohiko adibide bat da. Emakumeei leporatu zieten gutziatsiak edo berekoiak izatea, ezkontzatik gehiegi itxarotea, erantzukizunari aski garrantzi ez ematea eta ongizate komuna beren interes pertsonalen mende jartzea. Dibortziazten ez zirenean ere, emakumeak etxeko lanen eta sexu-lanaren kontra borrokatu behar izaten ziren egunero, eta horrek, askotan, gaixotzera eta are desexualizatzerara eramaten zituen. Mary Nichols medikua eta familia-erreformaren sustatzailea zen, eta hau idatzi zuen 1854an:

Jaiotzen diren hamar umetatik bederatzi ez dira amak desiratuak... Zibilizazioko emakume-kopuru izugarri batek ez du ez sexuarekiko ez amatasunarekiko irrikarik. Emakume orok maitasuna eta babes nahi dute. Ez dute umerik izan nahi, ezta maitasun edo babes horren truke emagalduek izan behar izatea ere. Gaur egungo ezkonbizitzan, emakume ugari haurrik ez izateko eta besarkada maitekor baten aurrean amore ez emateko sena dute, eta sen hori ia-ia jaioberrienganako sentitzen den maitasuna bezain zabaldua dago. Emakumeen amatasun- eta sexu-sena suntsitzea gertaera patologiko izugarria da (hemen aipatua: Cott 286).

Emakumeek ahuldadearen, hauskortasunaren eta bat-bateko gaixotasunen (migrainak, zorabioak, histeria) aitzakia egiten zuten ezkontzako betebeharretatik eta haurdunaldi ez-desiratuen arriskutik libratzeko. Egiaz ez ziren «gaixotasunak», baizik eta etxeko lanekiko eta sexu-lanarekiko erresistentzia, eta hori argi erakusten du ez bakarrik fenomeno horien nonahikotasunak, baita senarren kexek eta medikuen erretolikek ere. R.B. Gleason andre estatubatuarra medikua zen, eta honela azaldu zuen berak gaixotasunaren eta arbuioaren arteko dialektika, arreta mende hasierako erdi-mailako klaseko familia bateko emakume eta gizon banaren begiradan jarrita:

Ez nuen inoiz ezkondu behar, nire bizitza agonia amaigabe bat baita. Bakarrik banengo jasan ahal izango nuke, baina pentsatzen hasten naiz nik jasaten dudan oinaze hau pairatu eta iraunaraziko duten horien ama bilakatzen ari naizela urtez urte, eta, pentsamendu horrek hain egiten nau zoritzarreko, ezen ia-ia oharkabetu egiten bainaiz (Cott 274).

Medikuak esaten du:

Senar bilakatuko den gizonak berak aukeratutako emakume eder baina ahula zaintzeko ardura har dezake; gaztetako emaztea amultsuki maita dezake, etengabe minez dagoenean eta behar baino lehen zahartzen denean; eta, halere, ez du laguntzarik izango, ez du inor izango bizitzako zoriona

areagotzeko eta bizitzako lanak arintzeko. Emakume gaixo batzuk berekoiak bihurtzen dira, eta ahaztu egiten dute ezen, haienak bezalako elkarbizitzetan, beste batzuek ere sufritzen dutela berek sufritzen dutenean. Emaztea gaixorik badute, benetako senarrek bizitza erdia baino ez dute (274).

Senarrak esaten du:

Osatuko da, egunen batean? (275)

Gaixotzen ez baziren, frigido bihurtzen ziren; edo, Mary Nicholsek esan bezala, «egoera apatiko batean» barneratzen ziren, «harreman materialeta-
ra batere bultzatzen ez zituena» (Cott 286). Diziplina sexualak beren bizitza sexualaren gaineko kontrola ukatzen zien emakumeei; batez ere, erdi-milakoei. Testuinguru hartan, frigidotasuna eta gorputzeko min ugariak sexu-harremanak arbuiatzeko baliagarriak ziren, eta kastitatearen ohiko defentsaren luzapen gisa mozorrotu zitezkeen, hau da, gehiegizko bertute gisa; behin egoera iraulita, emakumeek moral sexualaren benetako defendatzaile gisa agertzeko aukera izaten zuten. Halandaze, erdi-mailako emakume viktoriarrek errazago arbuiatzen zituzten beren betebeharrak sexualak etorkizunean beren bilobek egin ahal izango zutena baino. Izan ere, hainbat hamarkadaz emakumeek sexu-lanari uko egin ondoren, psikologoak, soziologoak eta beste «aditu» batzuk bizkortuta azaldu dira, eta ez daude atzera egiteko prest. Gaur den egun, «emakume frigidoa» erruduntzat jotzen duten kanpaina izugarriak egiten dituzte, eta, beste ezer baino gehiago, askatuta ez egotea leporatzen diete.

XIX. mendean, gizarte-zientziek loraldi bat bizi izan zuten, eta loraldi hark lotuta egon behar du zati batean familiaren krisiarekin eta emakumeek familia arbuiatzearekin. Psikoanalisi kontrol sexualaren zientzia gisa sortu zen, eta familia-harremanak erre-

formatzeko estrategiak proposatzeko ardura esleitu zitzaion. Bai AEBn bai Ingalaterran, XX. mendearen lehen hamarkadan sexualitatea erreformatzeko planak agertzen hasi ziren. Familiari eta «dibortzioaren auziari» buruzko liburuak, liburuxkak, panfletoak, saiakerak eta tratatuak argitaratu ziren, eta horrek agerian uzten zuen ez bakarrik krisiaren sakontasuna; orobat erakusten zuen gero eta nabarmenagoa zela sexuak eta familiak etika berri bat behar zutela. Hala bada, AEBko zirkulurik kontserbadoreenak Familia Babesteko Liga sortu zuten; emakume erradikalek lotura askeak defendatu zituzten, eta esan zuten sistemak funtzionatu ahal izateko «ezinbestekoa zela estatuak dirulaguntzak ematea ama guztiei, eskubide-kontu bat» zela (O'Neill 104). Bitartean, soziologoek eta psikologoek ere debatearekin bat egin zuten, eta arazoa zientifikoki konpontzea proposatu zuten. Freud arduratuko zen sexu-kode berria sistematizatzear, eta horregatik bilakatu zen bere lana hain ezaguna bi herrialdeetan.

Freud eta sexu-lanaren erreforma

Azaletik begiratuta, badirudi Freuden teoria sexualitateari dagokiola, oro har, baina benetako xedea emakumeen sexualitatea zen. Izan ere, teoria hark emakumeek etxeko lanei, haurrak izateari eta sexu-lanari erakutsitako arbuioari erantzuten zion. Freudek ondo adierazi bezala, berak bazekien zein zen «familiarren krisiaren» ernamuina, alegia, emakumeek ez zutela beren lana egin nahi, edo ezin zutela. Gizonezkoen inpotenziaren gorakadak ere kezkatzen zuten; hainbestekoa zen, ezen Freudek bere garaiko fenomeno nagusitzat jo baitzuen. Freuden ustez, inpotenziaren arrazoia hau zen: «Emakumeei egindako eskaerak gizonezkoen bizitza sexualera hedatzea eta

sexu-harremanak ezkontza monogamoen testuinguruan bakarrik eduki ahal izatea». Beste hau ere idatzi zuen: «Moraltasun sexual zibilizatuak... monogamia laudatuz... elbarri uzten du gizonen hautespena, arraza hobetzen lagundu dezakeen alderdi bakarra» (Freud 1972, 11).

Sexu-lanaren aurkako emakumeen borrokak arriskuan jartzen zuen haiek etxeko maitale gisa zuten rola, eta txerarik gabeko gizonak sortzen zituen; gainera —eta garai hartan hau zen, beharbada, garrantzitsuagoa—, ugaltzaile gisa zuten rola ere jartzen zuen arriskuan. «Ez dakit», idatzi zuen Freudek, «hezkontza zibilizatuaz kanpo ere emakume-mota anestesikorik dagoen, baina egongo da, ziurrenik. Edozelan ere, plazerik gabe haurduntzen diren emakume horiek gero ez dute izaten behin eta berriro erditzeko gogo handirik, erditzearen mina jasateko nahirik; beraz, ezkontzaren aurreko prestakuntzak zuzenean zapuzten du ezkontzaren helburua» (25).

Freudek estrategia hau proposatu zuen: sexua (berriro) etxeko lanen egunerokoan eta diziplinan txertatzea, emakumearen rol tradizionala —hau da, emaztearen eta amaren rola— oinarri sendoago baten gainean berreraikitzeke, bizitza sexual askeago eta asegarriago baten bidez. Beste hitzez, Freuden ekarpenarekin sexualitatea etxeko lanak sendotzeko prozesuaren zerbitzura jarri zen, eta lan-elementu bihurtu, laster betebehar bilakatuko zena. Hortaz, Freudek sexualitate askeago errezetatu zuen, horren bidez familia-bizitza osasuntsuagoa izateko, familia bat non emakumea emazte-funtzioarekin identifikatuko baitzen eta ez zen histeriko eta neurotiko bihurtuko eta ez zuen bere gorputza frigidotasun-izara batean bilduko ezkontzako lehenengo hilabeteetan ezta lesbianismoa

bezalako esperientzia «gaiztoen» bidezko transgresiorako tentaziorik izango ere.

Freudetik aurrera, sexu-askapenak etxeko lan gehiago ekarri zien emakumeei. Psikologiaren lanbideak sustatutako emazte- eta ama-eredua ez zen jada seme-alaba ugari munduratzeko zituen amarena; orain emakumeak emazte-maitalea izan behar zuen, eta gorputz pasibo edo uzkur batean zakila sartzeak dakarrena baino plazer handiagoa eman behar zion senarrari.

Estatu Batuetan, eta familia proletarioei dagokienez, sexualitatea etxeko lanen artera itzultzeko prozesua Aro Progresistan etxekotasuna garatzearekin batera hasi zen finkatzen, eta lanaren eta soldaten berregituratze fordistarekin bizkortu zen. Muntaketa-katearekin, bost-dolar-eguneko soldatarekin eta lanaren azkartzearekin batera etorri zen, horrek eskatzen baitzuen gizonak gauez ongi atsedentzea, tabernen inguruan ibili beharrean, indarberritzeko eta lan gogorreko beste egun baterako prestatzeko. Taylorismoak eta fordismoak Estatu Batuetako fabriketara eramane zuten lan-diziplina zorrotzak ezinbestekoa zuten higie berri bat, sexu-erregimen berri bat, eta horrek sexualitatea eta familia-bizitza birmoldatzea eskatzen zuen. Beste hitzez esanda, fabrikako bizitzaren diziplinari eutsiko bazioten, langileek tabernetako tupusteko enkontruek eskaintzen zutena baino sexualitate mamitsuagoa erosteko adinako soldata izan behar zuten. Eta etxeko sexu-lanaren berrantolamenduaren bidez etxea erakargarriagoa bihurtzea, hori ere funtsezkoa zen soldatak igotzen ari ziren garai hartan, bestela dirua ospakizunetan gastatzeko arriskua baitzegoen.

Aldaketa hura arrazoi politikoek ere bultzatu zuten. Bigarren Mundu Gerraren ostean, are gehia-

go areagotu zen gizonak tabernetatik aldentzeko eta etxera eramateko ahalegina, ordura arte tabernak antolamendu eta eztabaida politikorako eta prostituziorako gune izan zirelako.

Etxekoandrearentzat, berrantolamendu hark esan nahi zuen haurrak egiten jarraitzea eta aldakak gehiegi zabaltzen ari zitzaizkiolako arduratzen hastea, eta hor dietak etorri ziren bata bestearen atzetik. Etxekoandreak harrikoa egiten eta lurra garbitzen jarraituko zuen, baina azazkal pintatuekin eta pappailadun mantalarekin, eta esklabo izaten jarraituko zuen goizabarretik ilunabarrera arte, baina apaindu egin beharko zuen senarrari behar bezalako ongietorria egiteko. Puntu hartara iritsita, oso zaila zen ohean ezetz esatea. Izan ere, psikologiako liburuen eta emakumeei zuzendutako aldizkarien bidez hedatutako kanon berriak zera hasi ziren azpimarratzen, sexu-elkarketa ezinbestekoa zela ezkontzak behar bezala funtzionatzeko.

1950eko hamarkadatik aurrera, prostituzioaren funtzionamendua ere aldatu zen. Mendeak aurrera egin ahala, batez besteko gizon estatubatuarrak gero eta gutxiagotan jotzen zuen prostituziora bere beharrak asetzeko. Dena den, emakumeentzat oso zaila zen beren soldata propioa izatea, eta hori zen familia beste ezeren gainetik salbatzen zen. Nolanahi ere, dena ez zegoen ongi familia estatubatuarrean, gerra osteko garaian hala Ingalaterran nola Estatu Batuetan izandako dibortzio-kopuru handiari begiratuta. Zenbat eta gehiago eskatu emakumei eta familiei, orduan eta gehiago areagotzen zen emakumeen arbuioa; oraindik ezin zuen izan ezkontzarekiko arbuioa, arrazoi ekonomiko agerikoengatik, baina bazen ezkontza barruan mugikortasun handiagoa

izateko eskaera bat, hau da, senarretik senarrera (nagusitik nagusira bezala) mugitzeko eta etxeko lanetarako baldintza hobegoak exijitzeko aukera izateko eskaera. Garai hartan, bigarren lanaren (eta gizarte-laguntzaren) aldeko borroka familiaren kontrako borrokaren oso gertuko bilakatu zen; izan ere, fabrika edo bulegoa zen askotan emakumeentzat etxeko lan ordaindegabeetatik, familia barruko bakartasunetik eta gizonaren desirerikiko mendekotasunetik libratzeko aukera bakarra. Ez halabarrez, gizonen prostituzioaren bezperatzat jo izan zuten denbora luzez emakumeen bigarren lana. Gizarte-laguntzaren aldeko borroka lehertu arte, etxetik kanpoko lan bat izatea zen emakumeentzat modu bakarra etxetik irteteko, jendea ezagutzeko, ezkontza jasanezin batetik ihes egiteko.

1950eko hamarkadaren hasieran, baina, Kinsey txostenak alarma jo zuen, erakutsi baitzuen emakumeak ez zeudela prest sexu-lanari behar bezala heltzeko. Ohartu ziren emakume estatubatuar ugari frigidoak zirela eta ez zutela sexu-lanean parte hartzen, mekanikoki jarduten zutela. Era berean, aurkitu zuten AEBko gizonen erdiek harreman homosexualak izan zituztela edo izan nahi zituztela. Urte batzuk geroago, ezkontzak AEBko langile-klassen bizi zuen egoerari buruzko ikerketa bat egin zuten, eta antzeko ondorioak atera zituzten. Kasu hartan ere ikusi zuten emakume ezkonduen laurdenak ezkontzako betebeharragatik soilik egiten zutela amodioa, eta haien arteko kopuru izugarri handi batek ez zuela ezelango plazerik sentitzen (Komarovsky [1967], 83). Hori ikusirik, AEBko kapitalak sexuari buruzko kanpaina handi bat egin zuen, horrenbeste emakumek sexualitatearekiko sentitzen zuten apa-

tia tematiari teoriaren eta praktikaren armekin aurre egiteko asmoz. Kanpaina haren gai nagusia emakumezkoen orgasmoaren bilaketa izan zen; gero eta gehiagotan, ezkontza-batasunaren bikaintasunaren frogatzat hartzen zen. 1960ko hamarkadan, emakumezkoen orgasmoa hainbat azterketa psikologikoren gaia bihurtu zen, eta, Masters eta Johnson-en ustezko aurkikuntza historikoarekin, gailurra jo zuen: emakumeen orgasmoa existitu existitzen zen, eta, gainera, era askotakoa izan zitekeen.

Masters eta Johnsonen esperimentuarekin, emakumeen sexu-lanari produktibitate-maila oso handia ezarri zitzaion. Kontua ez zen bakarrik emakumeak orgasmora iritsi zitezkeela maitasuna eginda, ez; emakumeek iritsi egin behar zuten orgasmora. Lortzen ez bagenuen, ez ginen benetako emakumeak; are okerrago, ez geunden «askatuta». 1960ko hamarkadan mezu hori bidaltzen ziguten zinema-pantailetatik, emakumeen aldizkarietatik eta koito atsegingarriak izaten lagunduko ziguten posizioak irakasten zizkiguten eskuliburuetatik. Psikoanalistek ere gauza bera esaten zuten behin eta berriro; haiek ziotenez, oreka sozial eta psikologikoa erdiesteko ezinbestekoa zen sexu-harreman «beteak» izatea. 1970eko hamarkadan «sexu-klinikak» eta «sex-shopak» agertzen hasi ziren, eta familia-bizitza nabarmenki berregituratu zen: ezkontza aurreko eta ezkontzaz kanpoko harremanak legitimatu ziren, baita «ezkontza irekiak» eta talde-sexua ere, eta autoerotismoa onartu zen. Bitartean, eta ziurrago egoteko, berrikuntza teknologikoak bibragailua sortu zuen, merkaturatutako azken Kama Sutrarekin ere berotzen ez ziren emakumeentzat.

Zer ekarri die horrek emakumeei?

Esan dezagun argi. Gaur egungo emakumeentzat, gure amentzat eta amonentzat bezala, sexu-askapenak esanahi bakarra izan dezake, hau da, «sexutik» askatzea, eta ez sexu-lana areagotzea.

«Sexutik askatzeak» esan nahi du gure sexualitatea bizitzeko baldintza behartuetatik askatzea. Baldintza horiek lan nekeza bihurtzen dute sexualitatea, ziurgabetasunez eta istripuz betea, eta ezin ahaztu haurdun geratzeko arriskua, kontuan izanda, gainera, azken kontrazeptiboak ere osasun-arrisku handiarekin hartzen direla. Baldintza horiek dirauten artean, «aurrerabide» orok lan eta antsietate handiagoa ekarriko du. Zalantzarik gabe, abantaila handia da aitek, nebek eta senarrek emakumeok ez jipoitzea baldin eta jabetzen badira ez garela birjinak edo «desleialak» garela eta «txarto portatzen» garela, nahiz eta gizona bikoitak utzi nahi dituzten emakume erailen kopurua etengabe ari den handitzen. Halere, guretzat sexualitateak antsietate-iturri izaten jarraitzen du, «sexu-askapena» ezinbestean onartu beharreko betebeharrak bihurtu delako, inork gu atzerakoitzat jotzea nahi ez badugu. Halandaze, gure amonak, lan gogorreko egun baten ondoren, lotara joan zitezkeen bakean, migraina baten aitzakian, eta gu, osterak, haien biloba askatuak, errudun sentitzen gara sexu-harremani ezetz esaten diegunean, haietan aktiboki parte hartzen ez dugunean edo, are, haiekin gozatzen ez dugunean.

Korritzea, orgasmo bat izatea, hain kontu ezinbestekoa bihurtu da, ezen ezeroso sentitzen baikara onartzeko «ez dela ezer gertatu», eta gizonen galdera etengabeei gezur batekin erantzuten diegu edo gure burua behartzen dugu beste ahalegin bat egitera;

azkenean, gure oheek gimnasio-itxura hartzen dute askotan.

Nolanahi ere, desberdintasun handi bat dago. Izan ere, gure amek eta amonek trukearen logikarekin begiratzen zieten sexu-zerbitzuei: ezkondu zinen gizonarekin oheratzen zinen, hau da, nolabaiteko segurtasun ekonomikoa promestu zizun gizonarekin. Aitzitik, gaur egun dohainik egiten dugu lan, nola ohean hala sukaldean, ez bakarrik sexu-lana ordaindu gabeko lana delako, baizik eta gero eta gehiagotan trukean ezer jasotzeko itzaropenik gabe eskaintzen ditugulako sexu-zerbitzuak. Hain zuzen ere, zer da, bada, emakume askatuaren ikurra, ez bada beti eskura dagoen emakumea, trukean jada ezer eskatzen ez duena.

BEDERATZI

MORMOIAK ESPAZIOAN (BERRIKUSIA) GEORGE CAFFENTZIS-EKIN BATERA

Nola azaldu kapitalak lurra uzteko duen irrika? Hura suntsitzeko eta, aldi berean, transzenditzeko grina? Zer dela-eta amets horiek guztiak, transbordadore espazialak, espazioko koloniak, Martera bidaiak eta, horrekin batera, espazioaren militarizazioa? Kapitalismoak lur nahasi hau suntsitu nahi ote du, gure gorputzak berrantolatu nahi dituen gisan? Hori ote da kapitalismoaren sekretu larria, lurra behin betiko suntsitzea, orobat gure gorputz setatsuak, biak ere kapitalismorik gabeko milaka milioi urteren hondakinak direnak? Zergatik saiatzen dira espazioa militarizatzen eta, aldi berean, gure kromosomak eta gure sistema neuronala birkodetzen? Zergatik, ez bada izaki egiazki kapitalista bat sortzeko, kokatuko dena plasma osorik kapitalista batean eta lan-gertaeren segida osorik kapitalista batean? Neurona-sistema pisurik eta formarik gabeak, behin eta berriro berregitura daitezkeenak.

«Kanpo-espazioa» ez da guk ezagutzen dugun espazioa. Kapitalak kanpo-espazioaren irrika du, ez Marten aurki edo ekoitz daitezkeen mineralengatik, baizik eta hara eramaten gaituztenean gurekin egin ahal izango dutenagatik.

Gure garaiko espiritua definitzen saiatuko bagina —Eskuin Berrian zehar arnasa hartuz—, enigma deszifraezin baten aurrean izango ginateke. Alde bate-tik, duela urte batzuk zientzia-fikziotzat joko genukeen iraultza zientifiko eta teknologiko baten bozeramaileak daude: geneak moztu eta itsastea, DNA birkonbinatua, denbora laburtzeko teknikak, espazioko koloniak. Era berean, Eskuin Berriaren zirkuluak joera erlijiosoen eta kontserbadurismo moral baten ernaberritzearen leku-koak izan dira, ustez Puritanismoaren Aita Sortzaileek behin betiko lurperatuak zituztenak. Edonora begira-tuta ere, Jainkoaren beldur diren eta Satanengan baino pentsatzen ez duten taldeak ikus daitezke han-hemen hedatzen: Kristau Ahotsa, Familiaren aldeko Foroa, Otoitzaren aldeko Kanpaina Nazionala, Arrano Foroa, Bizitzeko Eskubidearen aldeko Batzordea, Hautesle Heziak Berreskuratzeko Funtsa, Ekonomia Kristaua-ren Institutua. Ingerada orokorrari begiratuta, badirudi Eskuin Berriaren gorputza kontrako bi noranzkotan hedatzen ari dela: jauzi ausart bat egin nahi du bai ira-ganera, eta, aldi berean, jauzi ausart bat egin nahi du, baita ere, etorkizunera.

Enigma are gehiago korapilatzen da ohartzen garenean ez direla sekta bereziak; alderdi bati baino gehiagori dagokionez, jende eta diru bera dabil sekta guztietan. Pluralismoaren itxurari eusteko xede baka-rrarekin izaten dituzten liskar hutsal gutxi batzuk eta zenbait keinu kenduta, jende bera da bai transborda-dorea orbitan jartzen duena edo saguak eta untxiak birkonbinatzen dituen bai gayak, trans pertsonak eta abortatzen duten emakumeak sutara bultzatzen di-tuena eta gurutze handi bat marratzen duena ez soilik XX. mendean, baita XIX. eta XVIII. mendeetan ere.

Zer neurritaraino diren bizitzeko eskubidearen aldeko apostoluak eta zientziaren futurologoak arima eta misio bera, hori hobeto ikus daiteke ez beharbada bietako bakoitzaren bozeramaileen bizitzetan, baizik eta gaur egungo «gai nagusiei» aurre egiteko orduan beren xedeetan erakusten duten bat etortzean. Kontu ekonomiko eta politikoetan, desberdintasun-izpiak urritu egiten dira, eta Eskuin Berriko bi arimek xede beraren alde jartzen dituzte dirua eta baliabideak. Merkatu libre, laissez-faire ekonomia, herrialdearen militarizazioa («defentsa militar sendoaren eraikuntza» esaten diotena), barne-segurtasuna indartzea —adibidez, FBIri eta CIAri erabateko askatasuna emanda gure egunerokoa kontrolatzeko—, gizarte-gastu guztiak murriztea —espetxeak eraikitzeko eta milioika lagunek haiek beteko dituztela bermatzeko behar dena izan ezik—. Hitz batean, AEB munduaren jabe kapitala dela berrestea eta «Amerika» soldata minimoaren (edo gutxiagoren) truke lanean jartzea. Eskuin Berri osoak Bibliaren gainean zin egingo luke helburu horien guztien alde.

Eskuin Berriaren arima bikoitza ulertzeko, lagungarria da ohartzea gizarte-politika erreakzionarioen eta ausardia zientifikoaren nahasketa hori ez dela berria kapitalismoaren historian. Hasiera-hasierara jotzen badugu —XVI. eta XVII. mendeetara, zeinetara Gehiengo Morala⁵⁸ pozik itzuliko bailitza-teke—, antzeko egoera ikusiko dugu kapitalismoaren lehen urratsen lekuko izan ziren herrialdeetan. Galileo

58 Moral Majority [Gehiengo Morala] Estatu Batuetako erakunde politikoa zen, eskuin kristauren eta alderdi errepublikarraren gertukoa. Jerry Falwell ministro baptistak sortu zuen, 1979an, eta 1980ko hamarkadaren amaieran desagertu zen. Funtsezkoa izan zen kristau kontserbadoreak indar politiko gisa mobilizatzeko; zerikusia izan zuen, bereziki, 1980ko hamarkadan errepublikarrek presidentetzarako hauteskundeetan erdietsitako garaipenetan. [Itzle. oh.].

-k teleskopioa ilargira begira jarri zuenean, eta Francis Bacon arrazionaltasun zientifikoaren oinarria ezartzen ari zenean, emakumeak eta homosexualak sutan erre-
tzen ari ziren Europa guztian, intelligentsia europar modernizatzailearen bedeinkapen erabatekoarekin.

Bat-bateko zoroaldia? Basakerian erortze azalezina? Egia esan, sorgin-ehiza «giza bikaintasuna» lortzeko ahaleginaren parte izan zen, zeina arrazionalismo modernoaren aiten amets gisa ezagutu baitzen. Izan ere, sortzen ari zen klase kapitalistak natura menderatzeko eta ustiatzeko zuen bultzada hura ezerezean geratuko litzateke baldin eta aldi berean gizabanako berri bat sortuko ez balitz, banako bat zeinaren jokabidea aurkitu berri ziren naturaren legeak bezain erregularra, auresangarria eta kontrolagarria izango baitzen. Helburu hura lortzeko, ezinbestekoa zen munduarekiko ikuskera magikoa suntsitzea; izan ere kolonietako herri indigenek uste zuten sakrilegioa zela lurra ustiatzea, eta europarrei erakutsi zieten «zoritxarreko egunetan» proiektu guztiak saihestu behar zirela. Gainera, sorgin-ehizak lan-iturri handienarekiko kontrola eman zion Estatuari, hau da, emakumearen gorputzarena, abortua eta kontrazepzio-molde oro zigortuz eta gizakiaren kontrako krimentzat joz. Sutan hil zen emakume adulteroa, ospe txarrekoa, lesbiana, bakarrik bizi zena, ama-senik ez zuena edo haur ez-legitimoak izan zituenena. Sutan bukatu zuten eskale askok, ale eta ogi puska bat ukatu zieten biraoka erantzun zietenak. Arrazionalismo modernoaren aitek hori guztia onartu zuten. Batzuk kexatu ere egin ziren, Estatuak nahikoa egin ez zuelakoan. Doilorraren doilorre, Jean Bodinek behin eta berriro esan zuen sorginak ez lituzketela estrangulatu behar sutara botara aurretik —«errukiz» egiten omen zuten—.

Dakusagunez, gaur egungo AEBn antzeko egoera nagusitzen ari da, eta horrek erakusten du kapitala krisian dagoela. Oinarria ziurtatua ez duen aldiro, kapitalak funtsezkoa jotzen du. Egun, horrek esan nahi du jauzi teknologiko ausart bat egiten saiatzea: alde batetik (ekoizpenaren aldetik), kapitala metatzen da eta lana aurrekaririk gabeko mailatan automatizatzen; bestetik, milioika langile soldatarik gabe edo langabezian uzten dira, edo lana gogor egitera behartzen, soldata-mailarik txikienaren truke, «merkataritzea askeko eremu» goraiatuaren ereduari jarraikiz. Horrek guztiak berekin dakar lanaren erreprodukzio-prozesua berrantolatu behar izatea.

Gaur egun, errepresioaren eta autodiziplinaren instituzionalizazioa, Eskuin Kristau Berriaren ildoarekin bat datorrena, ezinbestekoa da langile-klasearen espektroaren bi muturretan: bai aldi baterako lan soldata txikikoak egiten dituzten langileak edo etengabe lan bila dihardutenak, bai teknologiak ekoitz dezakeen ekipamendurik sofistikatuenaekin lan egiten duten beharginak. Ez gaitezen nahasi. Wall Street-etik armadaraino, kapitalaren utopia guztiak gorputz mailako mikropolitika infinitesimaletatik abiatzen dira, gure animalia-sena menderatu eta «zoriontasunaren bilaketaren» esanahia fintzen dutenak. Hori bereziki nahitaezkoa da teknologia-maila handiarekin diharduten langileak garatzeko, zeinak, langile-klasearen maila baxuagoetakoak ez bezala, ezin baitira makilaren bidez zuzendu, lanerako erabiltzen dituzten makinak askoz ere garestiagoak direlako.

Giza makinak jauzi teknologiko bat egitea, hori da teknologia-maila handiko industriak gaur egun gehien behar duena da; hau da, urrats ebolutibo handi bat, kapitalaren inbertsio-beharrak aseko dituen lan-

gile-mota berri bat sortuko duena. Zer gaitasun izan behar lituzke gure futurologoek proposatzen duten izaki berri horrek? Galdera horri erantzuteko, argigarria da kolonia espazialen inguruan sortutako eztabaidari begiratzea. Guztiek uste dute espazioan giza koloniak garatzeko arazorik handiena oztopo biosozialak direla, ez oztopo teknologikoak. Transbordadore espazialaren lauzak estu-estu atxiki eta ontzia Martera bidaltzeko prest utz dezakezu, baina espazioko langile egokia ekoiztea arazo bat da, aitzinamendu genetikoek ere konpondu ez dutena. Gizabanako horrek gai izan behar du denbora-tarte luzez eta hondoa jo gabe bakartze soziala eta zentzumen-gabezia jasateko, «perfektuki» jarduteko ingurune zeharo aurkako/arrotz eta artifizial batean eta estres ikaragarri handi baten pean, eta ondo baino hobeto kontrolatzeko erreakzio psikologikoak (haserrea, gorrotoa, zalantzaldia) eta gorputzaren funtzioak (kontuan hartu ordubete behar dela espazioan kaka egiteko!).

Gure ahultasun gizatiarregiek hondamena eragin dezakete espazioko bizitzaren mundu hauskorrean. Espazioan bizitzeak aginduekiko erabateko obedientzia, adostasuna eta harkortasuna eskatzen du. Sabotaje-ekintzarik txikienak ere ondorio katastrofikoak izan ditzake jendearen eskuetan utzitako ekipamendu garesti, konplexu eta ahaltsuarentzat, eta, beraz, ezin da desbideratzerik eta desadostasunik onartu. Espazioko teknikariek harreman ia-erlijiosoak izan behar dute beren makinekin, baina ez hori bakarrik; berek ere gero eta makinaren antzekoagoak bihurtu behar dute, eta sinbiosi perfektua lortu behar dute ordenagailuekin, zeinak espazioko gau luzeetan haien gidari bakar eta fidagarrienak izaten baitira, haien lagunak, adiskideak.

Beraz, espazioko langileek pertsona aszeti-koak izan behar dute, gorputzez eta arimaz garbiak, jardunean bikainak, ordularirik zehatzenak bezain esanekoak eta muturreraino fetitxistak beren jokamolde mentaletan. Non haz daitezke horrelako harribitxiak? Sekta erlijioso fundamentalista batean. Garrett Hardin biologoaren hitzetan esanda:

Zer talde litzateke egokiena azken *Brave new world*⁵⁹ [Mundu berri ausarta] edo kolonia espazial honetarako? Segur aski, erlijio-talde bat. Iritziek bat etorri behar dute, eta diziplina onartu behar da. Nolanahi ere, unitaristek edo kuakeroek ez dute balio, haientzat gizabanakoaren kontzientzia baita ekintzarako gidarik onena. Kolonia espazialak egongo badira, hutteriteek edo mormoiek edo antzekoren batzuek izan behar dute hango biztanle... Eta, ontzia hauskorra denez, ezin da hartu talde desberdinak nahasteko arriskua, sabotajearen edo terrorismoaren beldurrez. «Garbikuntzak» bakarrik balioko luke (Brand 1977, 54).

Espero bezala, lehen transbordadore espaziala lurreratu eta zenbait egunetara, mormoien ordezkari nagusi Neal Maxwell-ek ongiatorria egin zien astronautei Mormoien Tabernakuluan. «Gar gauean, Jainkoa bere maiestate eta botere betean ikusi duten gizonak ohoratuko ditugu», esan zuen, eta kongregazioko sei mila kideek «Amen» erantzun zuten.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, kreationismoaren eta eboluzionismoaren arteko borroka kontrol-baliabiderik egokiena zein den zehaztea helburu duen barne-eztabaida kapitalista bat dirudi. Gure biologo sozialek eta ingeniari genetikoek —gaur egungo aitzinamendu zientifikoaren heroiak— robot perfektua

59 *Brave new world* Aldous Huxley idazle ingelesaren lehen eleberri distopikoa da, 1931n idatzia. Euskarara itzulia dago, *Bai mundu berria* izenburuarekin (Xabier Amuriza, 1971) [Itzle. oh.].

sortzeko bidea aurkitzen dutenera arte, zartailuak balioko du, batez ere oraindik ere 1960ko hamarkadako ideologia anarkiko edo subertsiboez kutsatuta dagoen garai honetan.

Gainera, aszetismoa, autokontrola, lurretik eta gorputzetik ihes egitea —irakaskuntza puritanoaren funtsa—... horiek guztiek kapitalaren plan zientifiko eta ekonomikoak loratzeko lurrik onena osatzen dute. Aski kontzienteki, kapitala, bere burua lur seguruagoe-tan birkokatze ahaleginean, erlijio ororen ametsa besarkatzen ari da: muga fisiko guztiak gainditzea, gizakia aingeru-itxurako izaki bihurtzea, arimaz eta borondatez betea.⁶⁰ Langile elektronik/espaziala sortzeko bidean, zeina unibertsoaren esplorazio-esplotazio zientifikoaren apaiza izango baita, kapitala materiaren aurkako borroka historikoa egiten ari da berriro: lurraren mugak eta «gizatasunarenak» gaintitu nahi ditu, biak aldi berean, baina azken horrek, gaur gaurkoz, etorkizunean gaintitu beharko diren muga gaintiezinak ditu.

Industria espazialen antolaketa planifikatua eta gorputzaren desmaterializazioa elkarrekin doaz. Izan ere, lehena ezin da lortu beharizanen, nahien eta desiren lotura oso bat birmoldatu gabe, zeinak planetan milaka milioi urtetan gertatu den eboluzio materialaren produktua baitira, baita orain arteko gure erreproduktzio biosozialaren baldintza materialak ere: urdinak, berdeak, titiburuak, baloiak, laranjen testura, behikia, azenarioak, haizeak, itsasoaren usaina, egun-argia, kontaktu fisikoaren beharra, SEXUA! Sexu-desirak berekin dakartzan arriskuek argi erakusten dute izaki guztiz autokontrolatuak sortzeko ahalegi-

60 Horri buruz gehiago jakiteko, ikus Sol Yurick, *Behold Metatron, the Recording Angel* (1985).

nean kapitalak aurkitzen dituen oztopoak; izan ere, kapitalak gau bat bestearen atzetik bakarrik igarotzeko gai diren gizakiak behar ditu, soilik ordenagailuekin hitz egingo dutenak, arreta pantailan ez beste ezertan jarrita. Gai zara espazioan kitzikapen sexualari aurre egiteko edo bakarrik sentitzeko? Gai zara jeloskor sentitzeko edo ezkon-harreman bat hausteko?

Horri dagokionez, Antartikako Hego Poloko Estazioko txosten batean jasota dago zein den jarrerarik egokiena. Itxura batean, estazioa poloko kondizio meteorologiko, astronomiko eta geografikoak aztertzeko eraiki zen, baina giza esperimentazioaren gune gisa erabili zuten: espazioko kondizioen antzekoetan (hainbat hilabetez bakartuta, kontaktu sentsualik gabe...) gizakia nola bizi zen aztertu zuten. Honela dio txostenak: «Hautagai guztiei jakinarazi zitzaien zer ‘arrisku’ izan zezaketen abentura sexuarekin hemen, tentsio handiko kondizio hauetan. Aukerarik onena zelibatua zen... Lehenengo asteetan, gizonek sexuan baino ez dute pentsatzen, baina gero pentsamendu hori bigarren maila batera pasatzen da, ia neguaren amaierara arte. [Langile batek zioenez], «Funtsean, burutik kentzen duzu. Etengabe ari zara lanean, eta ez dago pribatutasunik»» (Reinhold 1982).⁶¹

Zelibatua, abstinentzia: prozesu luze baten azken urratsa da, prozesu bat zeinaren bidez kapitalak gutxitu egin baitu gure bizitzetako eduki sentsual eta sexuala eta murriztu egin baititu, halaber, jendearekin izaten ditugun enkontruak, irudi mentala ukitu fisikoarekin ordeztuz. Diziplina kapitalistaren mende igaro ditugun mende luzeek ukituak izatearen beldurrez elkarrengandik urruntzen diren gizabanakoak

61 Robert Reinhold, «Strife and Despair at South Pole Illuminate Psychology of Isolation», New York Times, 1982ko urtarrilaren 12a.

ekarri dituzte. (Begira nola bizi ditugun gure espazio sozialak; adibidez, autobusak eta trenak, bidaiari bakoitza bere espazioan itxita, ongi zedarritutako muga ikusezinek babestuta; nor bere gazteluan. Sendagileek ere jada oso gutxitan ukitzen dituzte gure gorputzak, eta laborategiko txostenetan oinarritzen dute beren diagnostikoa.) Elkarrenganako bakartze fisiko eta emozional hori, zeina ordenagailuen eta telefono mugikorren bidezko komunikazioarekin are nabarmenagoa baita, lankidetza kapitalistaren funtsa eta molde berria da. Baina gure bizitza-molde guztien desmaterializaziorako joera horrek etorkizuneko kolonia espazialeko alegiazko biztanleetan du azken portua, zeinen arrakasta aingeru bilakatzeko gaitasunaren arabera baita; izan ere, aingeruek ez dute behar Lurrean eguneroko elikagai dugun estimulu sentsualik, eta beren borondate autosufiziente eta egozentrikoaz soilik elikatuz bizi daitezke.

Bizitzaren abstraktutasuna bat dator heriotzaren abstraktasunarekin. Gaur egungo gerretan, etsaiaren gorputza pantailan nabari den kliska bat da, eta hura suntsitzea bideo-joko batekin jardutea bezain erraza. Kasu honetan ere, trebakuntza erlijiosoak erabakigarria da humanitatea bitan zatitu ahal izateko: hautatuak eta madarikatuak. Infernuko sua onartuz gero, ez da zaila beste gorputz batzuen suntsipena onartzea —milioika izan daitezke gerra nuklear batean—, lurra gaitz sozial guztietatik garbitzeko baliabide gisa. Lehenengo urratsa zera da, gure arteko eta besteekiko lotura guztiak etetea eta are geure burua ere geure gorputzetatik urruntzea. Hala, eliza elektronikoa dugu, sendalaria desmaterializatzen duena; irudi gisa azaltzen da milaka pantailatan, eta helbide bat ere ematen du, guk

hara dirua bidaltzeko eta, hala, berak ustez gure alde errezatzeko.

Hala da: soinuak eta irudiak gure gizarte-harremanak ordezkatzeko ari dira. Giza topaketa iragarrezinak nahieran aktiba eta buka daitekeen teknosozialitatearekin ordezkatzeko ari dira. Funtsezkoa da makinarekin bizitzea eta haiek bezalakoak bihurtzea. Tiporik idealena aingeru desexualizatua da, motorraren zirrikituetan mugitzen dena, lan-espazioa eta bizi-espazioa ezin hobeki integraturik, astronauten kapsulan nola, pisurik gabe, giza desirak eta tentazioek eragiten duten grabitate-indarrez araztua izan delako, lanarekiko arbuioa azkenean baliogabetua. Badirudi jada eskura dugula kapitalaren giza bikaintasunaren amets zaharra, XVI. eta XVII. mendeetako utopietan hainbeste nabarmendu zena, Bacon-etik hasi eta Descartes-eraino. Honela mintzatu zen NASAko astronauta Wally Schirra, 1968an Apollo 7 ontzia gidatu zuena, espazioan izandako esperientziari buruz:

Pisugabea zarela sentitzea... ez dakit, hainbeste gauza dira elkarrekin. Harrotasun-sentimendu bat da, bakardade osasungarriarena, zikina eta likatsua den ororekiko askatasun duin bat. Bikainki eroso sentitzen zara, hori da hitza, bikainki... Eroso sentitzen zara eta sentitzen duzu hainbesteko energia duzula, gauzak egiteko halako gogo bizia, gauzak egiteko halako gaitasuna. Eta ongi lan egiten duzu, bai, ongi pentsatzen duzu, ongi mugitzen zara, izerditu gabe, zailtasunik gabe, Bibliako madarikazio hura —«zure aurpegiko izerdian eta saminean»— jada existituko ez balitz bezala. Berriz jaio izan bazina bezala.⁶²

62 Walter M. Schirra Jr.-ren aipua, 1968ko urrikoa, telebista-saio batean espaziotik esana, Apollo 7 ontzitik.

Ez da harritzekoa kapitala hain arduragabea izatea gure bizitoki lurtar honekin, ezta halako presatasuna izatea ere lurra leherketa nuklearren bidez suntsitzeko; espirituak lurra eta materia garaitu izanaren haragitze perfektua, Jainkoaren lehen ekintza bezain kreatiboa! Big Bang, Big Phallus bere botere-gosearen esentzia erakusten, muga guztietatik askatzeko gurari jainkotiarra erdiesteko ahaleaginean gizadiaren lurra zatikatzen. Fausto astronautaren —espazioko langilearen— arropak jantzita, inoren beharrik ez duen supergizona, bere nahia betetzeko asmo sendoarekin, ez bakarrik lurlean, baita unibertsoan ere.

Kezka erlijioso eta patriotikoen motibatutako aingeruz osatutako gizartea. Nolanahi ere, espazioa kolonizatzeko abentura ez da izango «Amerika Berri» bat, hau da, ez dute populatuko naufragoek, ordainik gabeko langileek eta esklaboen. Hara joateko, ezinbestekoa da lan-proiektuarekiko erabateko identifikazioa izatea, erabateko obediencia, erabateko autodiziplina eta autokontrola; hainbestekoa, ezen, NASaren arabera, garai bateko ordain-moldeak ere bazterrean utzi behar direla: «Espazioa kolonizatzeko jendea hautatzean, ez litzateke erabili behar pizgarri ekonomiko handirik, horrek komeni ez den jendea erakarriko lukeelako» (Johnson eta Holbrow 1977, 31). Soldatarik gabe lan egitea. Hori da azken utopia kapitalista, lana bera lanaren sari, eta horri uko egiten diotenak gau izartu hotzera kanporatzen dira. Azkenean, kapitalismoak bere helburua eta muga erdietsi ditu.

LAUGARREN ZATIA

HAMAR

GORPUTZ DANTZARIAREN LAUDORIOA

Gorputzaren historia gizakien historia da, ez baita jarduera kulturalik lehenik gorputzari aplikatzen ez zaionik. Gorputzak kapitalismoan izan duen historiaz bakarrik hitz egitea erabakitzen badugu ere, egundoko lana izango dugu aurrean; izan ere, teknika asko eta asko erabili dira gorputza diziplinatzeko, eta teknika horiek etengabe aldatuz joan dira, gure gorputzek jasan behar izan dituzten lan-erregimen desberdinen eskakizunetara egokitzeko.

Gorputzaren historia berreraikitze modu bat izan daiteke kapitalismoak haren aurka aktibatu dituen errepresio-bideak azaltzea. Alabaina, erabaki dut erresistentziarako zelai gisa ulertutako gorputza izatea abiapuntua, hau da, gorputza eta bere ahalmenak: ekiteko ahalmena, bere burua eraldatzeko ahalmena, eta gorputza esplotazioaren muga gisa.

Behin eta berriro errepikatzen dugu gorputza sozialki eratzen dela eta performatiboa dela, eta, horretan gabiltzala, beste zerbait ahaztu dugu. Gorputza ekoizpen sozial (diskurtsibo) gisa ikusteak haren beste alde bat ezkututzen du: gorputza botere, ahalmen eta erresistentzien edukiontzi bat da, eta ahalmen eta

erresistentzia horiek garatu dira gure ingurune naturalarekin batera bizi izan dugun eboluzio-prozesu luze batean, baita gorputza esplotazioarekiko muga natural bihurtu duten belaunaldiarteko praktiken bidez ere.

«Muga natural» horrekin zera adierazi nahi dut: guran sortutako behar eta gurarien egitura, baina ez bakarrik gure erabaki kontzienteen edo praktika kolektiboen bidez sortutakoak, baita milioika urtetako eboluzio materialaren bidez eratutakoak ere: eguzkiaren beharra, zero urdinarena eta zuhaitz berdeena, basoen eta ozeanoen usainarena; ukitzeko, barre egiteko, lo egiteko, maitasuna egiteko beharra.

Behar eta gurarien egitura metatu hori gure erreproduktzio sozialaren baldintza izan da milaka urtetan. Gure esplotazioa mugatu du, eta kapitalismoa etengabe borrokatu da muga hori gainditzeko.

Kapitalismoa ez zen izan giza lanaren esplotazioan oinarritutako lehen sistema. Nolanahi ere, historiako beste ezein sistema baino gehiago saiatu da sortzen mundu ekonomiko bat non lana baita metaketaren printzipiorik funtsezkoena. Zehatzago esanda, gorputzaren diziplina eta mekanizazioa aberastasunaren metaketarako premisa nagusi bihurtu zuen lehen sistema izan zen. Hasieratik gaur den egunera arte, kapitalismoaren zeregin sozial nagusietako bat izan da gure energiak eta gure gorputzen ahalmenak lan-indar bihurtzea.

Caliban eta sorginan (2004) aztertu nuen zer estrategia erabili dituen kapitalismoak zeregin hori betetzeko eta giza izaera birmoldatzeko, lurra birmoldatzen saiatu den modu berean, emankorragoa bihurtzeko eta animaliak fabrika bizidun bilakatzeko. Gorputzaren aurka eta gure materialtasunaren aurka egin duen borroka historikoari buruz hitz egin dut,

eta horretarako sortu dituen instituzio ugarietz: legea, zartailua, sexualitatearen erregulazioa... orobat guk espazioarekiko, naturarekiko eta elkarrekiko dugun harremana birdefinitu duten praktika sozial guztiz ugariak.

Kapitalismoa jendea lurretik bereiztetik sortu zen, eta haren lehen zeregina izan zen lana urtaroen mendekotasunetik askatzea eta laneguna gure erresistentzia-mugetatik harago luzatzea. Oro har, prozesu horren alderdi ekonomikoa azpimarratzen dugu, hau da, kapitalismoak diru-harremanetatik abiatuta sortu duen mendekotasun ekonomikoa, baita horrek soldatapeko proletariotzaren sorreran izan duen papera ere. Baina bada zerbait beti kontuan hartu ez duguna, eta da gu lurretik eta naturatik bereizteak zer esan nahi izan duen gure gorputzarentzat; gorputz pobretua, kapitalismoaren aurreko jendeek aitortzen zizkioten ahalmenez gabetua.

Marx (1988, 75-76) ohartu zenez, natura gure «gorputz inorganikoa» da, eta, garai batean, haizeak, hodeiak eta ibai eta itsasoetako korronteen aldaketak irakurtzeko gai ginen. Kapitalismoaren aurreko gizarteetan, jendeak uste zuen hegaz egiteko gaitasuna zuela, gorputzez kanpoko esperientziak izateko gaitasuna, animaliekin komunikatzeko eta hitz egiteko, haien ahalmenak eskuratzeko eta are itxuraldatzeko. Halaber, uste zuten aldi berean toki batean baino gehiagotan egon zitezkeela; adibidez, hilobitik itzul zitezkeela, beren etsaien mendeku hartzera.

Ahalmen haiek guztiak ez ziren irudimenezkoak; izan ere, naturarekin harremanetan egoten ziren egunero, eta hortik ikasten zuten. Hori argi islatzen da, adibidez, batez ere kolonizazio aurreko Ameriketan elikaduraren alorrean gertatu zen iraultzan, baita

arrantza-tekniken iraultzan ere. Esate batera, orain badakigu Polinesiako jendeak itsas barrura joaten zirela gaez, gorputza iparrorratz bakar, olatuen bibrazioei jaramon eginda jakiten baitzuten zer bidetatik zuzendu behar zituzten ontziak itsasertzera.

Gorputzak espazioan eta denboran finkatzea; hori izan da kapitalismoak gorputzak bereganatzeko erabili duen teknikarik funtsezkoena eta iraunkorra. Begira, adibidez, zer-nolako erasoak jasan dituzten historian zehar alderraiek, migratzaileek eta behartsuek. Mugikortasuna mehatxu bat da lanaz bestelako arrazoiengatik gauzatu nahi denean; izan ere, leku batetik bestera ibiltzen ditu ezagutza, esperientziak eta borrorak. Iraganean zartailuak, kateak, bilurrak, mutilazioa eta esklabotza baliatzen zituzten mugikortasuna mugatzeko. Gaur egun, zartailuaz eta atxilotze-zentroezen gain, zaintza informatikoa eta epidemien mehatxu aldizkakoak dauzkagu; esate batera, nomadismoa kontrolatzea helburu duen hegazti-gripea.

Kapitalismoa etengabe eta beste ezertan baino gehiagotan saiatu da mekanizazioa lortzen, gizon eta emakumeen gorputzak makina bihurtzen. Animaliak ere makina bihurtzen dira: urdangek kume-kopuru bikoitza izan dezakete, oiloek etengabe ekoizten dituzte arrautzak, emankorrek ez diren oiloak akabatu egiten dira, eta txahalak ez dira zutundu ere egiten hiltegitara iritsi aurretik. Ezinezkoa zait gorputzaren mekanizazio-molde guztiak orriotara ekartzea. Aski da esatea harrapatzeko eta menderatzeko teknikak aldatu egin direla lan-erregimen nagusiaren arabera, baita gorputzarentzat eredu izan diren makinaren arabera ere.

Halandaze, XVI. eta XVII. mendeetan (manufakturaren garaian), gorputza makina sinpleen arabera irudikatzen eta diziplinatzen zen; adibidez,

ponpa eta palanka. Erregimen horrek taylorismoa ekarri zuen azkenean, hau da, denboraren eta mugimenduaren arteko erlazioaren azterketa; mugimendu guztiak kalkulatzeko ziren, eta energia oro zereginen batera bideratu.

Erresistentzia inertzia gisa irudikatzen zen, eta gorputza animalia hezigabe gisa, aginduei aurre egiten dien munstroa.

Alabaina, XIX. mendean gorputza eta diziplina-teknikak lurrun-makinak ezarritako ereduaren arabera ulertzen ziren. Gorputzaren produktibitatea inputaren eta outputaren bidez kalkulatzeko ziren, eta «eragin-kortasuna» hitz gako bilakatu zen. Erregimen horren pean, gorputza elikadura mugatuz diziplinatzen zen, eta lanean ziharduen gorputz batek beharko zukeen kaloria-kopurua kalkulatu. Testuinguru hartan, une gorena langile mota bakoitzak behar zuen kaloria-kopurua adierazten zuen taula naziarekin erdietsi zen. Etsaia, kasu hartan, energia-dispersioa zen; entropia, xahupena, desordena. AEBn, ekonomia politiko berri horren historia 1880ko hamarkadan abiatu zen, tabernen kontrako erasoarekin eta familia-bizitzaren birmoldaketarekin, zeinaren erdian arduraldi osoko etxeoandrea baitzegoen, betiere gailu antientropiko gisa ulertuta: beti lanerako prest, hustutako lapikoa berriz betetzeko, bainatu ostean zikindutako gorputza berritzeko, konpondu eta berriz tarratatutako arropak berriz josteko.

Gure garai honetan, ordenagailua eta kode genetikoak dira gorputzaren ereduak; helburua da gorputz materialiaz hustu eta ataletan zatitu bat egitea, zelulez eta geneez osatutako konglomeratu bat balitz bezala, zein bere programa propioarekin, besteez eta gorputzaren osotasunaz ezaxola. «Gene berekoia» teoria da; ho-

rren arabera, gorputza zelula eta gene indibidualistaz osatuta dago, eta horietako bakoitzak bere programari jarraitzen dio; bizitzaren ikuspuntu neoliberalaren metafora perfektua da: merkatuaren nagusitasuna bihurtzen da ez bakarrik talde-elkartasunaren aurkakoa, baita gure arteko elkartasunaren kontrakoa ere. Ondorioz, gorputza gene berekoien multzo bat sortuz desintegratzen da, zein bere xede egoista erdiesteko borrokan ari dena, gainerakoen interesei ezaxola.

Ikuspegi hori barneratzen dugun heinean, autoalienazioaren bizipenik sakonena barneratzen dugu, aurre egiten baitiogu ez bakarrik gure aginduei jaramonik egiten ez dien piztia bati, baita mikroetsaien olde bati ere, zeinak gure gorputzean bertan ezarrita baitaude, edozein unetan gure aurkako erasoak jotzeko prest. Industriak gorputzaren ikuspegi horrek eragiten dituen beldurretan oinarrituta eraiki dira, eta guk kontrolatzen ez ditugun indarren mende jarri gaituzte. Izan ere, gure gorputzak beldurra ematen digu, eta ez diogu entzuten. Ez dugu entzuten zer nahi duen, eta haren aurkako erasoekin bat egiten dugu, medikuntzak eskain ditzakeen arma guztiekin: erradiazioa, kolonoskopia, mamografia... guztiak ere gorputzaren aurkako borroka luzean erabiltzen diren armak, gu ere erasoarekin bat eginda, gure gorputza su-lerrotik atera barik. Hala, gorputz-atalak merkatuko salgai bihurtzen dituen mundu bat onartzeko prest gaude, eta gure gorputza gaixotasunen gordetegi gisa ikusteko: gorputza izurri gisa, gorputza epidemia-iturri gisa, arrazoimenik gabeko gorputza.

Halandaze, gure borrokek gure gorputza berriz geureganatzetik abiatu behar du, erresistentziarako duen ahalmena berriz balioestetik eta berraurkitzetik,

eta haren ahalmen indibidual eta kolektiboak hedatze-
tik eta laudatzetik.

Gorputza berreskuratzeko, dantza ezinbestekoa da. Funtsean, dantzatzea zera da, gorputzak zer egin dezakeen esploratzea eta asmatzea: zein diren haren gaitasunak, zein haren hizkuntzak, nola adierazten dituen gure izatearen ahaleginak. Dantzan filosofia bat dagoela uste izatera iritsi naiz; izan ere, dantzak imitatu egiten ditu guk munduarekin erlazionatzeko baliatzen ditugu prozesuak, beste gorputz batzuekin konektatzeko erabiltzen ditugunak, gu geu eta gure inguruko espazioa eraldatzeko darabiltzagunak. Dantzaren bidez ikasten dugu materia ez dela ergela, ez dela itsua, ez dela mekanikoa; bere erritmoak dituela, bere hizkuntza, eta autoaktibatu eta autoantolatu egiten dela. Gure gorputzek arrazoiak dituzte, guk ikasi, berraurkitu eta berrasmatu behar ditugunak. Haien hizkuntza entzun behar dugu, gure osasunbide eta sendabide gisa, eta mundu naturalaren hizkuntza eta erritmoak ere entzun behar ditugu, lurraren osasunbide eta sendabide gisa. Gorputzak bere-berezkoa du eragina izateko eta eragiteko gaitasuna, mugitua izatekoa eta mugiaraztekoa; gaitasun suntsiezina da, heriotzarekin soilik ahitzen dena. Horregatik, politika immanente bat datza harengan: bere burua eta beste batzuk eraldatzeko eta mundua aldatzeko gaitasuna.

HITZOSTEA

MILITANTZIA ALEGERA

Militantzia alegera izango bada, gure politikak liberatzailea izan behar du, eta gure bizitza onerako aldatu, haztera bultzatuz eta poza ekarriz; bestela, zerbait gaizki dabil.

Askotan, politika goibela izaten da, gehiegi espero dugulako gure kabuz edo indibidualki egin dezakegunaz eta horrek gehiegi kargatzeko ohitura eramaten gaituelako. Horren harira, Nietzsche-ren *Honela mintzatu zen Zaratustrako metamorfosiak* datozkit akordura: gamelua zamabere gisa deskribatzen du, grabitatearen espirituaren haragitze gisa. Beti lan askorekin zamaturik dabiltzan militanteen prototipoa da, munduaren patua haien eskuetan dagoela uste dutenena. Esate batera, stakhanovismoaren militante heroikoak beti daude goibel; hainbeste egin nahi dute, ezen inoiz ez baitaude erabat presente egiten ari diren horretan, inoiz ez daude erabat presente haien bizitzetan, eta ezin dute hauteman beren lan politikoak eraldaketarako duen ahalmena. Era horretan lan egiten dugunean, gu ere zapuzten gara, egiten dugun horrek ez gaituelako eraldatzen eta ez dugulako gure lankideekin ditugun harremanak aldatzeko astirik.

Arazoa zera da: bete ezin ditugun helburuak jartzen ditugu eta beti «kontra» borrokatzen gara, zerbait eraikitzen saiatu beharrean. Horrek esan nahi du beti etorkizunerantz proiektatuta gaudela. Politika alegera, ostera, orainean ere bada eraikitzailea. Gaur egun, jende gehiago ohartzen da horretaz. Gure helburuak ezin ditugu kokatu etengabe urruntzen ari den etorkizun batean. Zati batean bederen, orainean ere lor ditzakegun helburuak jarri behar ditugu, nahiz eta gure ostertzak hori baino zabalagoa izan behar duen, noski. Politikoki aktiboak izateak onerako aldatu behar du gure bizitza eta gertuko jendearekin dugun harremana. Goibeltasuna etortzen da behin eta berriro atzeratzen dugunean lortu beharrekoa, nora-eta inoiz gerturatzen ez zaigun etorkizun batera; horren ondorioz, ez gara gai ikusteko zer egin daitekeen orainean. Autosakrifizioa ere ez dut maite. Ez dut sinesten sakrifizioan, baldin eta horrek esan nahi badu geure buruak zigortu behar ditugula gure behar, desira eta gaitasunen kontra doazen gauzak eginez. Horrek ez du esan nahi lan politikoak sufrimendurik ekarriko ez duenik. Baina ez dira gauza bera sufritzea gure erabaki batek ondorio mingarriak dituelako —errepresioari aurre egitea, maite ditugunak minduta ikustea— eta autosakrifizioa, hau da, gure desira eta gurarien aurkako zerbait egitea, gure eginbeharra hori dela uste dugulako. Horrek gizabanako dohakabe eta kontentagaitzak sortzen ditu. Lan politikoan jarduteak sendagarria izan behar du. Indarra eman behar digu, buru-argitasuna; gure elkartasun-sena sendotu behar du, eta elkarrekiko dugun mendekotasunaz ohartarazi. Gure mina politizatzekeo gai izatea, ezagutza-iturri bihurtzeko, beste jende batzuekin konektatzen gaituen zerbait bilatzeko... horrek guztiak sendatzeko

gaitasuna du. «Ahalduntzailea» da (atsegin ez dudan hitza, bestalde).

Askotan, ezker erradikalak ez du lortu jendea erakartzea, eta uste dut hori gertatzen dela ez diolako arretarik jartzen lan politikoaren alde erreproduktiboari, hau da, elkarrekin afaltzea, subjektu kolektibo bat osatzearen sentipena sendotzen duten abestiak kantatzea, harreman afektiboak elkarrekin garatzea. Ameriketako herri indigenek erakusten digute, adibidez, jaiak oso garrantzitsuak direla, ez bakarrik olgatzeko, baita elkartasuna eraikitzeko ere, elkarren arteko maitasunari eta erantzukizunari esanahi berri bat emateko. Jendea biltzen duten jardueren garrantzia erakusten digute, elkartasun adeitsua sentiarazten digutenak eta konfiantza eraikitzen laguntzen dutenak. Horregatik, jaien antolamendua oso serio hartzen dute. Mugak muga, langileen sindikatuek funtzio hori betetzen zuten iraganean, eta lanaldia bukatu ondoren (gizonezko) beharginak elkartzeko zentroak eraiki zituzten, ardo-baso bat edatera joan zitezten, burki-deekin egotera, azken berrien eta ekintza-planen berri izatera. Hala, politikaren bidez familia zabalak eratzen ziren, ezagutzaren transmisioa bermatzen zen belau-naldien artean, eta politikak berak beste esanahi bat hartzen zuen. Hori ez da izan ezkerraren kultura; ez, behintzat, gure garaian; eta, hein batean, hortik dator goibeltasuna. Lan politikoak jendearekin dugun harremana aldatu behar luke, elkarrekiko loturak sendotu, eta adorea eman, erakusten digulako ez gaudela bakarrik munduari aurre egiteko zereginean.

Nahiago dut alaitasunaz berba egitea zoriontasunaz baino. Nahiago dut alaitasuna, irrika aktibo bat delako. Ez da egoera geldi bat. Ez da bertan gozo egitea. Gure ahalmenak sentitzea da, ikustea nola hazten

diren gure baitako gaitasunak eta inguruko jendeare-
nak. Eraldatze-prozesu batetik datorren sentipena da.
Esan nahi du, Spinoza-ren hitzak erabilia, ulertzen
dugula zer egoeratan gauden eta une honetan gagan-
dik espero denaren arabera egiten dugula aitzinera.
Hortaz, sentitzen dugu aldatzeko ahalmena dugula
eta aldatzen ari garela, beste batzuekin batera. Ez da
dagoenarekin konformatzea. Spinozak dio alaitasu-
na arrazoimenetik eta ulermenetik datorrela. Horren
harira, urrats garrantzitsua da ulertzea gure orbaine-
kin gatozela mugimendura. Guztiok dauzkagu gizarte
kapitalista batean bizitzearen markak. Egia esan, ho-
rregatik egin nahi dugu borroka, horregatik aldatu nahi
dugu mundua. Ez litzateke horren beharrik izango jada
gizaki perfektuak izan bagintezkeen —horrek edo-
zer esan nahi duela ere— gizarte honetan. Baina sari
desengainua hartzen dugu, zeren eta iruditzen zaigu
mugimenduan harreman harmoniatsuak soilik aurki-
tu behar ditugula, eta hori ez da beti betetzen; askotan,
jelosia, txutxu-mutxuak eta botere-harreman ez-pare-
kideak aurkitzen ditugu.

Emakumeen mugimenduan ere harreman
mingarri eta etsigarriak izan ditzakegu. Egia esan,
emakumeen talde eta erakundeetan dugu etsipen eta
min sakonak bizitzeko aukerarik handiena. Izan ere,
espero dezakegu gizonek huts egitea eta traizionat-
zea, baina ez dugu holakorik espero beste emakume
batzuegandik, eta ezin dugu imajinatu guk geuk ere
beste emakume batzuk mindu ditzakegunik; ezin dugu
irudikatu behehitiuak senti gaitezkeenik, ez ikusiak,
edo guk ere beste emakume batzuk horrela sentiarazi
ditzakegunik. Zalantzarik gabe, gatazka pertsonalen
atzean aitortu gabeko desberdintasun politikoak ego-
ten dira batzuetan, gaindiezinak izan daitezkeenak.

Baina gerta daiteke ere traizionatuak sentitzea eta atsekabetzea uste dugulako mugimendu erradikal batean —eta, batez ere, mugimendu feminista batean— parte hartzeak berez bermatzen duela gure gorputz-arimetan daramatzagun zauri guztietatik askatzea; gure defentsak lasaitzen ditugu, gizonekiko harremanetan edo erakunde mistoetan inoiz egingo ez genukeen gisan. Tristurak halabeharrez hartzen gaitu, batzuetan mugimendutik alde egitera bultzatzeraino. Denborarekin ikasten dugu emakumeen mugimenduetan maiz aurkitu ohi ditugun zekenkeria, jelsia eta gehiegizko zaurgarritasuna gizarte kapitalistan bizitzeak eragiten duen desitxuratzearen parte direla askotan. Gure hazkunde politikoaren parte da horiek identifikatzen ikastea eta haiek gu ez suntsitzea.

BIBLIOGRAFIA

- Acton, William. (1857) 1969. *Prostitution*. New York: Praeger 1969.
- Apfel, Alana. *Birth Work as Care Work: Stories from Activist Birth Communities*. Oakland: PM Press 2016.
- Arditti, Rita, Renate Klein, and Shelley Minden, ed.. *Test-Tube Women: What Future for Motherhood?* Londres: Pandora Press 1984.
- Baggesen, Lise Haller. *Motherism*. Chicago: Green Lantern Press 2014.
- Barnes, Barry, and Steven Shapin, eds.. *Natural Order: Historical Studies of Scientific Culture*. Beverly Hills, CA: Sage 1979.
- Beauvoir, Simone de. *Bigarren sexua*. Donostia: Elkar 2019.
- Beckles, Hilary McD. *Natural Rebels: A Social History of Enslaved Black Women in Barbados*. New Brunswick, NJ: Rutgers University Press 1989.
- Berardi, Franco. 2009a. *Precarious Rhapsody: Semiocapitalism and Pathologies of the Post-Alpha Generation*. Londres: Minor Composition 2009b. *The Soul at Work: From Alienation to Autonomy*. Los Angeles: Semiotext(e).

- Bernasconi, Robert. «Who Invented the Concept of Race?» In *Race*, edited by Robert Bernasconi, 11-36. Malden, MA: Blackwell 2001.
- Bordo, Susan. *Unbearable Weight: Feminism, Western Culture and the Body*. Berkeley: University of California Press 1993.
- Boston Women's Health Book Collective. *Our Bodies, Ourselves: A Book by and for Women*. New York: Simon and Schuster 1971.
- Bowring, Finn. *Science, Seeds, and Cyborgs: Biotechnology and the Appropriation of Life*. Londres: Verso 2003.
- Brand, Stewart, ed. *Space Colonies*. New York: Penguin 1977.
- Braverman, Harry. *Labor and Monopoly Capital: The Degradation of Work in the Twentieth Century*. New York: Monthly Review 1974.
- Briggs, Laura. *Reproducing Empire: Race, Sex, Science, and U.S. Imperialism in Puerto Rico*. Berkeley: University of California Press 2002.
- Brown, J.A.C. *The Social Psychology of Industry*. Londres: Pelican 1954.
- Brown, Jenny. *Birth Strike: The Hidden Fight over Women's Work*. Oakland: PM Press 2018.
- Butchart, Alexander. *The Anatomy of Power: European Constructions of the African Body*. Londres: Zed Books 1998.
- Butler, Judith. *Bodies That Matter: On the Discursive Limits of Sex*. New York: Routledge 1993. *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge 1999. *Undoing Gender*. New York: Routledge 2004.
- Caffentzis, George. *Exciting the Industry of Mankind: George's Berkeley's Philosophy of Money*. Dordrecht: Kluwer 2000. In *Letters of Blood and Fire: Work,*

- Machines, and the Crisis of Capitalism*. Oakland: PM Press 2002.
- Carlsson, Chris. *Nowtopia: How Pirate Programmers, Outlaw Bicyclists, and Vacant-Lot Gardeners Are Inventing the Future Today*. Oakland: AK Press 2008.
- Connelly, Matthew. *Fatal Mis-Conception: The Struggle to Control World Population*. Cambridge, MA: The Belknap Press of Harvard University Press 2008.
- Corea, Gena. *The Mother Machine: Reproductive Technologies from Artificial Insemination to Artificial Wombs*. New York: Harper and Row 1979.
- Cott, Nancy. *Root of Bitterness: Documents of the Social History of American Women*. New York: E.P. Dutton 1972.
- Danna, Daniela. *Contract Children: Questioning Surrogacy*. 2015.
- Stuttgart: Ibidem-Verlag. *Il peso dei numeri: Teorie e dinamiche della popolazione*. Trieste: Asterios Editore 2019.
- Danner, Mona J. E. , «Three Strikes and It's Women Who Are Out: The Hidden Consequences for Women of Criminal Justice Policy Reforms». In *It's a Crime: Women and Justice*, ed. Roslyn Muraskin, 354-64. Boston: Prentice Hall 2002.
- Davis, Angela. «Surrogates and Outcast Mothers: Racism and Reproductive Policies in the Nineties». In *The Angela Y. Davis Reader*, ed. Joy James, 210-21. Malden, MA: Blackwell 1998.
- Deleuze, Gilles. *Negotiations: 1972-1990*. New York: Columbia University Press 1997.
- Diepenbrock, Chloé. «God Willed It! Gynecology at the Checkout Stand: Reproductive Technology in the Women's Service Magazine, 1977-1996». In *Body Talk: Rhetoric, Technology, Reproduction*, ed.

- Mary M. Lay et al., 98-121. Madison: University of Wisconsin Press 2000.
- Ehrenreich, Barbara. «Welcome to Cancerland: A Mammogram Leads to a Cult of Pink Kitsch». Harper's Magazine, 2001eko azaroa, 43-53. *Natural Causes: An Epidemic of Wellness, the Certainty of Dying, and Killing Ourselves to Live Longer*. New York: Hachette Book Group 2018.
- Ehrenreich, Barbara, eta Deirdre English. *Sorginak, emaginak eta erizainak. Emakumezko sendalarien historia bat*. Iruñea: Katakarak 2019.
- Fanon, Frantz. *Black Skin, White Masks*. New York: Grove Press 1967.
- Fausto-Sterling, Anne. *Sexing the Body: Gender Politics and the Construction of Sexuality*. Boston: Basic Books 2000.
- Federici, Silvia. *Caliban eta sorgina*. Donostia: Elkar 2017. *Revolution at Point Zero: Reproduction, Housework and Feminist Struggle*. Oakland: PM Press 2012. *Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria. Iraganeko eta gaur egungo sorgin-ehizak*. Iruñea: Katakarak 2020.
- Firestone, Shulamith. *The Dialectic of Sex: The Case for Feminist Revolution*. Londres: Woman's Press 1970.
- Foucault, Michel. *La Volonté de Savoir*. Paris: Gallimard 1976. *Surveiller et Punir: Naissance de la Prison*. Paris: Gallimard 1975.
- Fox, Meg. «Unreliable Allies: Subjective and Objective Time in Childbirth». In *Taking Our Time: Feminist Perspectives on Temporality*, ed. Frieda Johles Forman eta Caoran Sowton, 123-35. Oxford: Pergamon Press 1989.

- Freud, Sigmund. *Sexuality and the Psychology of Love*. New York: Collier 1973.
- Gargallo Celentani, Francesca. *Feminismo desde Abya Yala: Ideas y proposiciones de las mujeres de 607 pueblos en nuestra América*. Buenos Aires: América Libre—Chichimora Editorial 2013.
- Ginsburg, Faye D., eta Rayna Rapp, ed.. *Conceiving the New World Order: The Global Politics of Reproduction*. Berkeley: University of California Press 1995.
- Greenberg, Gary. «The War on Unhappiness». Harper's Magazine, 2010ko iraila: 27-35. 2010.
- Guattari, Félix. *Soft Subversions*. ed. Silvère Lotringer. New York: Semiotext(e) 1996.
- Haley, Sarah. *No Mercy Here: Gender, Punishment, and the Making of Jim Crow Modernity*. Chapel Hill: University of North Carolina Press 2016.
- Haller Baggesen, Lise. *Motherism*. Chicago: Green Lantern Press 2014.
- Hanmer, Jalna. «Reproductive Technology: The Future for Women?» In *Machina ex Dea: Feminist Perspectives on Technology*, ed. Joan Rothschild, 183-97. New York: Pergamon Press 1983.
- Haraway, Donna J. «Cyborg Manifesto». In *Simians, Cyborgs, and Women: The Reinvention of Nature*. New York: Routledge 1991.
- Harcourt, Wendy. *Body Politics in Development*. Londres: Zed Books 2009.
- Harris, Wess, ed. *Blood: Courage and Corruption in the Appalachian War of Extraction*. Oakland: PM Press 2017.
- Hartmann, Betsy. *Reproductive Rights and Wrongs: The Global Politics of Population Control*. Boston: South End Press 1995.
- Hobbes, Thomas. *Leviathan*. Londres: Croke 1651.

- hooks, bell. *Ain't I a Woman: Black Women and Feminism*. Boston: South End Press 1981. *Talking Back: Thinking Feminism, Thinking Black*. Toronto: Boston: South End Press 1988. *Yearning: Race, Gender, and Cultural Politics*. Boston: South End Press 1990.
- Johles Forman, Frieda, ed., eta Caoran Sowton. *Taking Our Time: Feminist Perspectives on Temporality*. New York: Pergamon Press 1989.
- Johnson, Richard, eta Charles H. Holbrow, ed. *Space Settlements: A Design Study*. Washington, DC: NASA, Scientific and Technical Information Office 1977.
- Jones, James H. *Bad Blood: The Tuskegee Syphilis Experiment*. New York: Free Press 1981.
- Jones, Jesse. *Tremble, Tremble/Tremate, Tremate*. Dublin: Project Press; Milan: Mousse Publishing 2017.
- Komarovsky, Mirra. *Blue-Collar Marriage*. New York: Vintage Books 1967.
- Laqueur, Thomas. *Making Sex: Body and Gender from the Greeks to Freud*. Cambridge, MA: Harvard University Press 1990.
- Lay, Mary M. et al., ed. *Body Talk: Rhetoric, Technology, Reproduction*. Madison: University of Wisconsin Press 2000.
- LeFlouria, Talitha L. *Chained in Silence: Black Women and Convict Labor in the New South*. Chapel Hill: University of North Carolina Press 2016.
- Le Sueur, Meridel. *Women on the Breadlines*. Minneapolis: West End Press 1977.
- Levidow, Les, and Kevin Robins. *Cyborg World: The Military Information Society*. Londres: Free Association Books 1989.

- Linebaugh, Peter. *The Londres Hanged: Crime and Civil Society in the 18th Century*. Cambridge: Cambridge University Press 1992.
- Locke, John. *An Essay Concerning Human Understanding*. 1 lib. New York: Dover (1689) 1959.
- Lombroso, Cesare, eta Guglielmo Ferrero. *Criminal Woman, the Prostitute, and the Normal Woman*. Durham, NC: Duke University Press (1893) 2004.
- Lyubomirsky, Sonja, Laura King, eta Ed Diener. 2005. «The Benefits of Frequent Positive Effect: Does Happiness Lead to Success?» *Psychological Bulletin* 131, 6 zkia., 803-55.
- Mac, Juno, eta Molly Smith. *Revoluting Prostitutes: The Fight for Sex Workers' Rights*. Londres: Verso 2018.
- Marshall, Alfred. *Principles of Economics*. Philadelphia: Porcupine Press (1890) 1990.
- Marx, Karl. 1988. *Economic and Philosophical Manuscripts of 1844*. Ingeleserako itzulpena Martin Milligan. Buffalo: Prometheus Books. Capital. 1. lib. Londres: Penguin 1990.
- Melossi, Dario, and Massimo Pavarini. *The Prison and the Factory: Origin of the Penitentiary System*. Totowa, NJ: Barnes and Noble 1981.
- Merino, Patricia. *Maternidad, Igualdad y Fraternidad: Las madres como sujeto político en las sociedades poslaborales*. Madrid: Clave Intelectual 2017.
- Mies, Maria. *Patriarchy and Accumulation on a World Scale: Women in the International Division of Labor*. Londres: Zed Books 1986.
- Milwaukee County Welfare Rights Organization. *Welfare Mothers Speak Out: We Ain't Gonna Shuffle Anymore*. New York: Norton 1972.

- Molina, Natalia. *Fit to Be Citizens: Public Health and Race, 1879-1939*. Berkeley: University of California Press 2006.
- Moraga, Cherríe, eta Gloria Anzaldúa, ed.. *This Bridge Called My Back*. New York: Kitchen Table: Women of Color Press 1983.
- Morgan, Robin. *Sisterhood Is Powerful: An Anthology of Writings from the Women's Liberation Movement*. New York, Random House 1970.
- Murphy, Julien S. *The Constructed Body: AIDS, Reproductive Technology, and Ethics*. New York: SUNY Press 1995.
- Nissim, Rina. *Une sorcière des temps modernes: Le self-help et le mouvement femmes et santé*. Lausanne: Editions Mamaméli 2014s.
- Noble, David F. *The Religion of Technology: The Divinity of Man and the Spirit of Invention*. New York: Penguin 1999.
- Nourse, Victoria F. *Reckless Hands. Skinner v. Oklahoma and the Near Triumph of American Eugenics*. New York: W.W. Norton 2008.
- O'Neill, William L. *Divorce in the Progressive Era*. New Haven, CT: Yale University Press 1967.
- Paltrow Lynn M., and Jeanne Flavin. 2013. «Arrests and Forced Interventions on Pregnant Women in the United States, 1973-2005: Implications for Women's Legal Status and Public Health». *Journal of Health Politics, Policy and Law* 38, 2 zkia. (apirila): 299-343.
- Pateman, Carole. *The Sexual Contract*. Stanford, CA: Stanford University Press 1988.
- Pfeufer Kahn, Robbie. «Women and Time in Childbirth and Lactation». In *Taking Our Time: Feminist Perspectives on Temporality*, ed. Frieda Johles Forman

- eta Caoran Sowton, 20-36. New York: Pergamon Press 1989.
- Polhemus, Ted. *The Body Reader: Social Aspects of the Human Body*. New York: Pantheon 1978.
- Poole, W. Scott. *Satan in America: The Devil We Know*. Rowman and Littlefield 2009.
- Reese, Ellen. *Backlash against Welfare Mothers: Past and Present*. Berkeley: University of California Press 2005.
- Reinhold, Robert. «Strife and Despair at South Pole Illuminate Psychology of Isolation». New York Times, urtarrilak 12, 1982.
- Roberts, Dorothy. (1997) *Killing the Black Body: Race, Reproduction, and the Meaning of Liberty*. New York: Vintage Books 2017.
- Rothschild, Joan ed.. *Machina Ex Dea: Feminist Perspectives on Technology*. New York: Pergamon Press 1983.
- Rozzi, R.A. *Psicologi e Operai: Soggettività e lavoro nell'industria italiana*. Milan: Feltrinelli 1975.
- Rynes, Sara L., Barry Gerhart eta Laura Parks-Leduc. 2005. «Personnel Psychology: Performance Evaluation and Pay for Performance». *Annual Review of Psychology* 56, 1 zkia. (otsaila): 571-600.
- Salecl, Renata. *On Anxiety*. New York: Routledge 2004.
- Sartre, Jean-Paul. *L'être et le néant*. Paris: Gallimard 1953.
- Schiebinger, Londa. *Nature's Body: Gender in the Making of Modern Science*. New Brunswick, NJ: Rutgers University Press 1993.
- Seidman, Steven. *Difference Troubles. Queering Social Theory and Sexual Politics*. Cambridge: Cambridge University Press 1997.

- Solinger, Rickie, et al., ed.. *Interrupted Lives: Experiences of Incarcerated Women in the United States*. Berkeley: University of California Press Starr, Paul. 1982. *The Social Transformation of American Medicine*. New York: Basic Books.
- Stocking, George W., Jr. *Bones, Bodies, Behavior: Essays on Biological Anthropology*. Madison: University of Wisconsin Press 1988.
- Sublette, Ned, eta Constance Sublette. *The American Slave Coast: A History of the Breeding Industry*. Chicago: Lawrence Hill 2016.
- Tajima-Pena, Renee, *No Más Bebés/No More Babies*. San Francisco: ITVS; Los Angeles: Moon Canyon Films 2015.
- Tapia, Ruby C. «Representing the Experience of Incarcerated Women in the United States». In *Interrupted Lives: Experiences of Incarcerated Women in the United States*, ed. Rickie Solinger, 1-6. Berkeley: University of California Press 2010.
- Taylor, Sunaura. *Beasts of Burden: Animal and Disability Liberation*. New York: New Press 2017.
- Townley, Chiara. 2019. «Cosmetic Surgery Is on the Rise, New Data Reveal». *Medical News*, Mar-txoak 17, 2019.
- Turner, Bryan S. *Regulating Bodies: Essays in Medical Sociology*. Londres: Routledge 1992.
- Turney, Lyn. «The Politics of Language in Surgical Contraception». In *Body Talk: Rhetoric, Technology, Reproduction*, ed. Mary M. Lay et al., 161-83. Madison: University of Wisconsin Press 2000.
- Twohey, Megan. 2013. «Americans Use the Internet to Abandon Children Adopted from Overseas». *The Child Exchange: Inside America's Underground Market for Adopted Children*, 1 at. (irailak 9). <https://>

www.reuters.com/investigates/adoption/#article/part1.

Valentine, David. *Imagining Transgender: An Ethnography of a Category*. Durham, NC: Duke University Press 2007.

Welsome, Eileen. 1993. «The Plutonium Experiment». Albuquerque Tribune, Azaroa 15-17, 1993.

Williams, Kristian. *American Methods: Torture and the Logic of Domination*. Boston: South End Press 2006.

Wittig, Monique. «The Straight Mind». In *The Straight Mind and Other Essays*, 21-32. New York: Harvester Wheatsheaf 1992.

Yurick, Sol. *Behold Metatron, the Recording Angel*. Brooklyn: Autonomedia 1985.

